



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

V. legegintzaldia

Iruña, 2002ko otsailaren 21a

14 ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, Nekazaritza Azpiegiturei buruzkoa. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak onetsitako irizpena (2. or.).

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak aurkeztua, 2002tik 2004rako Nafarroako Enplegu Plana betetzen dela bermatzekoa (31. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, Nekazaritza Azpiegiturei buruzkoa

NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA ETA MENDI BATZORDEAK ONETSITAKO IRIZPENA

Nekazaritza, Abeltzaintza eta Mendi Batzordeak Nekazaritza Azpiegiturei buruzko Foru Lege proiektuari buruz onetsitako irizpena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da, Biltzarreko Erregelamenduko 136.6 artikuluan ezarritakoa betez. Proiektu hori, 2001eko uztailaren 11ko 75. Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Irizpen horri buruz, Osoko Bilkuran, 1. zenbakiko "in voce" zuzenketa", Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentuko Taldeak aurkeztua, defendatzen ahalko da:

Lehenbiziko xedapen iragankorra ordeztuko zuzenketa. Honela geldituko da:

Lehenbizikoa. Foru lege honek indar hartu baino lehen Foru Dekretu baten bidez onetsi diren lurzati berrantolamenduek eta bestelako nekazaritza azpiegituretako ekintzek oinarriak onetsita badituzte, lehengo araudiaren arabera gobernatuko dira aurrerakoan ere. Aldiz, berrantolamendu eta ekintzak Nekazaritza azpiegituren erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legeko 127. artikulua ezarritako prozeduren bidez hasi badira, aukeran izanen dute tramitazioa aurreko araudiaren arabera egitea –azpiegituren finantzaketari dagokionez soilik; horretarako, aipatutako legeko 19. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio–edo foru lege honen arabera egitea; azken kasu horretan, administrazioak bere kabuz adieraziko du horien lehentasuna.

Zioak: Lege hau indarrean sartu aurretiko irizpide eta informazioak oinarri hartuta hasi ziren prozesuentzat trataera ezberdina jasotzea. Egoera horrek zenbait proiektu aurrera ez egitea ekar dezake, finantzaketa makurragoa izateagatik.

Iruñean, 2002ko otsailaren 18an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

Irizpena

Foru Lege proiektua, Nekazaritza Azpiegiturei buruzkoa

ZIOEN AZALPENA

Nafarroako Foru Komunitateak 1985ean nekazaritzaren erreforma eta garapenaren arloan eskumen eksklusiboak bere egin zituenetik, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoari jarraituz, bere araudia garatu du, nekazaritza azpiegituren gaineko ekintzak arautzen dituen legedia egokitzeko Nafarroako gizarte, nekazaritza eta ekonomiaren egoerara.

Nekazaritza Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legea lehenengoa izan zen. Lege horrek aurrerapen nabarmena ekarri zuen urtarrilaren 12ko 118/1973 Dekretuaren bidez onetsitako Nekazaritzaren Erreforma eta Garapenari buruzko Legearen aldean. Hala ere, foru Lege hori bategilea denez, 18/1994 Foru Legeak bere egin zituen hainbat lege eta erabilitako administrazio prozedura bategiten ditu. Horretaz gain, intereseko figura juridiko berriak sortu dira, ondorioz, aipatu legeko prozedura batzuk ez datoz bat bizkortasun eta arintasun printzipioekin. Horregatik, segurtasun juridikoa ezertan galarazi gabe, prozedura horiek aldatu edo ordeztu behar dira foru lege honetan.

18/1994 Foru Legeak, nekazaritzaren azpiegiturretan, nahitaez egin beharreko interes orokorreko obrak finantzatzeko baldintzak jasotzen zituen. Obra horiek egin behar ziren bai lurzati berrantolamenduaren bidez, bai ezarritako prozeduren bidez, baina betiere, horretarako onetsitako Lurraldeko Hobekuntza eta Obretarako planaren barruan. Dena den, zentzu horretan, Nekazaritzako Finantzaketaren Legegintzako Foru Dekretuaren III. tituluan lurzati-tako instalazioen finantzaketa, hau da, Lurraldeko Obra eta Hobekuntza

Planetakoak izan eta nekazaritzako interes pribatukotzat jotzen zirenenak.

18/1994 Foru Legean kontzeptu berria sartu zen: "oinarrizko ustiategi azalera", alegia. Haren bidez, lurzati berrantolamenduko prozedura eta berrantolatu beharreko eremuan azalera behar adinakoa zuten ustiategiak eratzen ahal ziren, bideragarriak izateko moduan. Berria izan zen, halaber, ureztalur bihurtzeko ziren finken erregimena, zeren funts publikoen bidez ureztalur bihurtutako finka horiek saltzean sortzen zen plusbaliarekin espekulazioa egitea galarazteko, "eraldatu ondorengo finka ureztagarri" direlakoan erregimena ezartzen zen.

Azkenik, lurzati berrantolamenduko prozeduran egitura arrazionalagoa sartzen zen, prozedura osatzen duten ekintzen denbora hurrenkeraren arabera eta berrikuntza handiak ezarri ziren, gai honen gaineko eskumenak erabilita izandako esperientzaren ondorioz.

18/1994 Foru Lege horrek zituen berrikuntza guztien ondorioz, bada, eta Nafarroako lurralde egitura bereziaren arabera moldatutako prozedura berriak sortzearen ondorioz, zaulitasun handiagoa lortu da 1994tik, batez ere ureztalurrak modernizatzeari dagokionez, eta bide eman da batzuetan pisu-bidezko ureztatze sistema kendu eta presio bidezkoa sartzeko, nahiz ez aintzat hartzeko moduko kopuruan.

Indarrean jarri den bigarren foru legea, abenduaren 9ko 19/1994 Foru Legeak, zeinak apirilaren 4ko 133/1991 Foru Dekretu Legegintzakoaren III. titulua aldatzen zuen, (nahiz nekazaritza azpiegitura hutserakoa izan ez), titulu bat bazuen ureztalurretako ekintzei buruzkoa (orain, nekazaritzaren finantzabideari buruzko xedapen lege mailakoan testu bategineko III. titulua; testu hori otsailaren 16ko 54/1998 Foru Dekretu legegintzakoak onetsi zuen), eta hortaz oso figura interesgarria sortzen zuen: oinarrizko ureztatze azalera, zeinak, oinarrizko ustiatze azalarekin lotuta, bukaera eman zien lurzatiko instalazioetarako laguntzei, zeinek ordu arte ez baitzuten lagundu beharreko finken gutxieneko tamaina faktore inportantetzat hartzen aukera egiterakoan.

Ondoren, martxoaren 16ko 7/1999 Foru Legeak, Nafarroako Foru Komunitateko Ureztatze Planean sartutako ureztalurretan egindako ekintza eta obrei buruzkoak, etorkizuneko barrutia eman zien ureztalurren modernizazio gaietako ekintzei 2018. urtera arte. Ureztalurrak modernizatzea (18.908 ha.) eta ureztalur bihurtzea (61.736 ha; haien barne, Nafarroako Ubidearen 57.000 ha baino gehiago) plan horren helburu nagusiak dira;

ekintzek osotara duten bolumenagatik eta bereziki lurzati berrantolamenduko prozesuak Nafarroako Ubidearen eraikuntza erritmoaren arabera moldatu beharagatik, ezinbestekoa da hainbat kontzeptu berriz definitzea, garai batean baliagarriak baina gaur ekintzen berangarri izan litezkeenak eta ureztalurren gaietan Nafarroako Parlamentuak onetsi dituen helburuak galaraz litzaketanak.

Orobat, Batzordearen 2000ko irailaren 15eko Erabakiak Nekazaritza Garatzeko Programa onetsi zuelarik Espainiako 1. helburuaz landarako eskualdeko produkzio egiturak hobetzeko, zeinean Nafarroarako "ur baliabideen kudeaketa" deitu neurrirako finantzazioa aurkitzen baita, ezinbestekoa da baliabide tekniko eta finantzarioak metatzea bertan ureztalurrak eraldatu eta modernizatze gaitan aurreikusten diren jarduerak burutzeko; horretarako, halaber, beharrezkoa da oraingo lege euskarria ere hobetzea, Nafarroak aukera izan dezan eskuragai dauden Europako funtsak bereganatzeko, gutxienez 2000-2006 aldian, geroago iraungo ote duten ez baita segur jakiten.

Ezin aipatu gabe utzi daiteke, bestalde, zer bilakaera izan den ingurumenari buruzko legeria kontuetan bai Europako Batasunean nola Nafarroan eta Espainian. Bilakaera hori ikusirik, bada, funtsean Kontseiluaren 1997ko martxoaren 3ko 97/11/EE zuzentarauan bildua (aldatzen du 85/337/EEE Zuzentaria, zenbait proiektu publiko eta pribatuk ingurumenaren gainean duten eragina ebaluatzeari buruzkoa) eta bai ekainaren 21eko 237/1999 Foru Dekretuan (arautzen du ingurumenari buruzko ebaluazioa lurzati berrantolamenduko prozesuetan) eta urriaren 6ko 9/2000 Errege Dekretu Legean ere (aldatzen du ekainaren 28ko 1302/1986 Errege Dekretu legegintzako, ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioari buruzkoa), beharrezkoa da aipatu 18/1994 lege hori aldatzea. Lege hark, izan ere, arrazoizko aurreikuspena egiten zuen Lurraldeko Hobekuntza eta Obretako Planen ingurumen-eraginei buruz, baina hala ere aipatu den araudi horrek gaitu egin ditu eta gainera legeak orain agintzen du azpiegitura gaitako ekintzak etorkizunean Nafarroako Gobernuak erabakiko dituela, aurrez Ingurumenaren gaineko Eraginaren deklarazioa baldin badute.

Horrez gain, Bai Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 60/2000 zuzentariak, zeinak Batasuneko herrientzat ur politikaren gaineko joka-barruti komuna ezartzen duen, eta bai Batzordearen "ur baliabideen tarifak eta erabilera jasangarria ezartzeko politika" deritzan dokumentuak, hainbat agindu (lehenbizikoak) eta hainbat

sujerentzia (bigarrenak) ematen dituzte ur baliabi-deak egoki kudeatzearen gainean, kostuak partez ala osorik berreskuratuz (kasuan kasuan), eta ureztalurretan, funtsezko neurri gisa, ur kontsumoa kontrolatu beharraren gainean, hazkuntza mota bakoitzeko erreferentziako ratioak ezarriz. Hori guztia gogoan, alderdi horiek gaurkotu eta hobetu behar dira eta bai proposamen berriak egin ere haien gainean nekazaritza azpiegiturei buruzko lege sistema berrian.

Oraingo errebisio honek, beraz, hainbat helburu orokor ditu:

Lehenbizikoa, esan bezala, Europako Batasunaren eta Estatuaren arauetan ingurumen eta ur gaietarako agintzen direnak Nafarroarako moldatzea da, Nafarroako legeetan nekazaritza azpiegiturak gai dituztenez landara.

Bigarrena, arau multzo bakarrean kodifikatu eta harmonizatzea, ahal den guztian, nekazaritza azpiegituretako gaietan egoki jokatzeko Estatuaren oinarritzko legerian dauden ordezgarrizko xedapenez gain behar diren xedapen barreiatu lege mailako guztiak, betiere Konstituzioak Nafarroa eta Estatuaren artean egin duen eskumen banaketa begiraturaz.

Hirugarren helburuak arintasun eta efikazia printzipioak erantsi nahi dizkie nekazaritza azpiegituren gaietako ekintzei, administrazio publikoko eta haren sozietateetako jardunaren helburu behar baitute. Hartarako, eginahalean erreformatu eta sinpletu egin dira hainbat prozedura, bai lurzati berrantolamendukoak nola ureztalurrak eraldatu eta modernizatzeakoak.

Laugarren helburuak zenbait kasutan berdefinitu eta beste zenbaitetan sartu nahi ditu lurzati berrantolamenduko prozesuei laguntzeko zenbait kontzeptu tekniko eta juridiko, eta bai ureztalurrak eraldatu eta modernizatzeari laguntzekoak ere. Honakoak bereziki aipagarriak dira:

– Lehenbizikorik, ustiategi bideragarriak sustatzea, helburua dela bai lehor lurretan nola ureztalurretan tokian tokiko produkzio orientazioaren arabera ustiategi egokiak sortzea, hartarako lurrak erosteko eta lurrak errentan emateko dirulaguntzak emanaz.

– Bigarrenik, jarduera nagusiko nekazariak eramandako ureztalur eremuetan nekazaritza sozietateak bultzatzea; sozietate horiek titular bakartzat hartuko dira lurzati berrantolamenduko prozesuan eta dirulaguntzak emanen zaizkie beren lurrak haiei eransten dizkietenei, tokian tokian ezarri den tamaina, (oinarritzko ureztatze azalera delakoa) iristen ez duten lurjabeak izan

nahiz balio hori iritsi eta are gainditurik ere Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan baja hartzen dutenak izan.

– Hirugarrenik, Lurren Funtza delakoa sortzea, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kudeatua, dela zuzenean dela sozietate publikoak bitarte; bertan sartzen diren lurrak ustiategi bideragarriak egiteko erabiliko dira edo pres-takuntzako nahiz ingurumenaren inguruko demostrazio helburuetarako. Funtz hau osatzeko, gehienbat foru lege honetan jasotzen diren desjabetzapen prozesuetako lurrak erabiliko dira, eta bai borondatezko ekarpenak eta erospenak ere.

– Laugarrenik, Nekazaritza Azpiegiturak Erreformatzeko Lege orain ordeztzen den hartan bezala, zenbait laboreren eskubideak eskualdatzeko arauak daude eta zenbait irispide ezartzen dira oihan hazkuntzen tratamendurako lurzati berrantolamenduan titular aldaketa egiten denean.

– Bosgarren helburua da nekazaritza azpiegituren gaietako ekintzak hainbat alderditan babestea:

a) Oinarritzko laborantza unitateen araubide berria sortuz, Nekazaritza azpiegituren foru lege orain ordeztzen den hartan baino zehatzagoa eta zorrotzagoa, unitate horiek ureztatze unitateen tamainarekin eta lehor lurreko oinarritzko ureztatze azalerekin lotzen baitira, gero batean unitate horiek zatitzea ezintzeko.

b) Bigarrenik, hobetzen da eraldatu ondorengo finka ureztagarrien araubide juridikoa, Nafarroan lehenago indar zuen azpiegiturei buruzko legerian ezarrita zegoena, segurtatzeko inbertsio publikoak sortzen duen plusbalia ez dadila izan partikularren mesedetako ureztalur bihurtu eta hamabost urte iragan arte.

c) Hirugarrenik, araubide berria eransten da, ureztatze unitateak sustatzekoa deitua, lurzatian ureztatze instalazioen diseinu arrazionala lortzea helburu, hartarako obligazioa ezarritz ureztatze unitateak zenbat ere jabe dituen, ureztatze sistema berarekin diseina dadin, arrazoi ekonomiko eta agronomiko soilak aintzat hartuta.

d) Laugarrenik, arrazionalizatzen dira laguntza hartzaile batek ureztalur bihurtu dezakeen azalerraren mugei buruzko eta lurzatian instalatzeko dirulaguntzen mugei buruzko agindu guztiak, kasuan kasuan foru lege honen babesean eraturako nekazaritza sozietate eta ustiategi bideragarrietarako pertsona fisiko nahiz juridiko bakoitzari eman behar zaion tratamendua bereiziz, beti azken horien alde, gai baitira eraldatzeko azalera handiagoa hartzeko edo lurzatian instalatzeko

laguntza handiagoak. Horrela hasierako eraketa ez ezik ondorengo ekipamendua ere laguntzen da.

– Seigarren helburua Urei buruzko aipatu zuzentarauarekin lotzen da eta uraren erabilera efikaza sustatzea da, erreferentziatza Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Riegos de Navarra S.A.ren bidez ezartzen dituen kontsumoak hartuta. Hartarako, foru lege honek ura aurrezteko modu bat baino gehiago ezartzen ditu:

a) Lehenbizi, ureztatze unitateen tamaina egokiak finkatzen dira, diseinu efikazak eta ura aurrezteko modukoak erabiltzeko proposak.

b) Bigarrenik, behartzen dira Ureztatzaile Elkartek beren elkartekideen ur kontsumoak zigortzera baldin erreferentziakoak baino handiagoak badira eta gehiegizko kontsumo horiek sor ditzaketen kalteak beren gain hartzera.

c) Hirugarrenik, funtsez aldatzen da ureztalurrak modernizatze finantzazioa. Horrela ureztatze sistema aldatuz modernizatzea sustatzen da, eusten baitio aurreko finantzazioari; eta ureztatze sistema aldatu gabe modernizatzea, berriz, zigortzen, ez baitu ura hain ongi kontrolatzeko biderik ematen.

d) Azkenik, ezartzen da ez dela zilegi izanen lurzati instalazioen finantzazioa (ehuneko 55erainoko dirulaguntzen bidezkoa) bere goreneko mailan hartzea hartzaileak ez baditu betetzen etorkizuneko nekazaritza enpresaburuaren edo sustatu nahi diren nekazaritza sozietateen kondizio idealak; haren profila jardura nagusiko nekazari gaztea da, oinarrizko prestakuntza tekniko jaso duena ureztatze ura egoki erabiltzearen eta fertirrigazioaren gaitetan, eta horretan iritsi duen benetako gaitasuna ureztatze kanpaina kopuru jakin batean frogatu duena.

– Zazpigarren helburua horizontalagoa da eta lehentasuna eman nahi die, foru lege honen barrenean izan daitezkeen laguntza eta lehentasunetan, jardura nagusiko nekazariei eta nekazari gazteei, eta bai ere haren babesean sortu nekazaritza sozietateei. Horretarako hainbat modu daude:

a) Lehenbizikorik, eraldaketa edo modernizazioa alor komunaletan egin nahi denean, toki entitate beharturik dago, Nafarroako Gobernuak finantzazioa onetsi aurretik, ordenantza berriak onestera herrilurretako loteak adjudikatzerakoan lehentasuneko nekazaritza ustiatzei lehentasuna emateko, hau da, nekazari gazteak zuzendari edo partaide dituztenei.

b) Bigarrenik, ustiatze bideragarriak edo nekazaritza sozietateak foru lege honen babesean sortu nahi direnean, ezinbestekoa da, ezarritako laguntzak jasoko badira, haien erabakitze organo- etako ordezkarien gehiengoa jardura nagusiko nekazarien eskuetan egotea.

c) Hirugarrenik, Lurren Funtsak lehiaketak egi- ten dituenean, lehentasuna emanen zaie familiako nekazaritza ustiatzei lehenetsiei, bereziki nekazari gazte bat zuzendari edo partaide dutenei.

d) Laugarrenik, Eraldatzearen eta lurzati instalazioetarako laguntzen muga-araubidean ere zenbait irizpide ezartzen dira aipatu helburuaren alde egiteko. Horrela, laguntza hartzen duen giza- banako edo pertsona juridiko foru lege honetan sustatzen direnetan sartzen ez denak muga bat badu bere lurak ureztalurrak bihurtzeko: ureztatuz oinarrizko ustiatze azaleraren goiko muga halako bi alegia. foru lege honen babesean eratu eta finantzatutako pertsona juridikoek, berriz, zilegi izanen dute beren kide bakoitzari aplikatzea aipatu muga hori.

Halaber, finantzatutako lurzati batean ekipatu beharreko gehienezko azalera, edozein eskatzaile- lerentzat, oinarrizko ustiatze azaleraren goiko mugara artekoa izanen da, eta familiako nekazaritza ustiatzei lehenetsientzat erreserbatzen da aurrekoa halako biko muga, eta baimena ematen ere zaie foru lege honek babesten dituen sozietatei beren osakide bakoitzari aurreko irizpideak aplikatzeko, haientzat hobeak badira.

Oinarrizko helburu horiek ezarri, bada, foru legea sei titulutan egituratua dago.

Atariko Tituluak foru legearen helburua eta xedek ezartzen ditu, hau da, lurzoru urbanizaezi- nean arautzea nolakoak behar duten izan nekazaritza azpiegituretako ekintzek lurzati berrantolamendua eginaz, ureztalurrak bihurtuz eta oraingo ureztalurrak modernizatuz. Lurzati berrantolamenduko prozedura da ardatz nagusia eta harez gain zenbait administrazio neurri lagungarri erantzen dira eta beste babesgarri batzuk ere bai, ekintzek irautea lagundu eta segurtatzeko.

I. titulua nekazaritza azpiegituretako ekintzen prozeduraz ari da eta zehazten du zer formula dauden hura abiarazteko, abiatze horrek zer ondorio dituen gero bateko hartzaileentzat, eta oinarrizko Proiektuaren kontzeptua ere sartzen du, zeinak bide ematen duen asmotan diren ekintzen azterketa tekniko, juridiko, sozioekonomiko eta ingurumenekoa egiteko. Bereziki, garatzen du zer prozesu segitu behar den ekintzen Ingurumenaren gaineko Eraginaren deklarazioa lortzeko, zeinak, aldekoa bada, kasuko eskualdeko neka-

zaritza azpiegituretako ekintzei buruzko Foru Dekretua ekarriko baitu ondorio, haren eduki gutxienezkoa finkatuz eta bai haren ondorioak ere eta prozedura normalaz gain beste bi sortuz. Prozedura laburtua, zeinerako, aplikatuko bada, beharrezkoa baita nekazaritza azpiegituretako ekintza lehenestekotzat deklaraturik egotea, Nafarroako Gobernuak lotzen duten zenbait interes-arrazoi direla medio; prozedura berezia, gozamen eskubideen lurzati berrantolamenduari buruzkoa edo herri-lurrei edo eite berekotzat jotakoei buruzkoa.

Prozedura normalari dagokionez, bistan da erraztu dela, Oinarriak, Erabakia eta Birbanatze Akta besterik ez baita geratu, inkestak kenduta eta lehenbiziko horien tramitazioa guztientzako administrazio prozedurari buruzko arauetan agintzen denaren arabera moldatuta, eta bai Birbanatze Akta ere legetan horri buruz agintzen denaren arabera. Tratamendu berria ematen zaie korralizei, ez daitezkeen traba izan lurzati berrantolamendua egoki egiteko ez eta eragozpen ere eraldatu eta modernizatzeko ekintzetarako.

Lurzati berrantolamenduko prozedura laburtuan are gehiago sinpletzen dira aldi diferentek; zenbait egintza nahibadako ezarri eta dokumentu bakarra eratzen da Oinarriak eta Erabakia bategiteko. Aurrera ateratzen diren helegiteak tratatzeko araubide bat ezartzen da, dela sobranterekin diren terreneak adjudikatuz, prozedura normalean bezala, dela diruzko kalte-ordaina erabiliz, prozedura honen barnean Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ematen dituen erabaki eta egintzen izaera exekutiboarekin bat.

Hobetzen dira, lehengo foru legekoen alderako, prozedura bereziak, bai lurzatiez gozatzeko eskubideak birbanatzeko nola herri alorre buruzkoa, zeinean loteen tamaina eta adjudikazio hartzaileen tipologia finkatzen baitira adjudikaziorako irizpidetzat, nekazari gazte bat zuzendari edo partaide duten familiako nekazaritza ustiategi lehentseiei lehentasuna emateko.

II. titulua lagungarriko neurri deitzen zaien garabideaz ari da, zeina "ustiategi bideragarrien eraketa" deitzen denarekin hasten baita. Titulu honek hobetu egiten du garabide hori 18/1994 foru legekoaren aldean; ezartzen du, adibidez, jarduera nagusiko nekazari gehiengoa duten erabakitze organoek kontrolatu behar dituztela elkarrekin ustiategi bideragarriak. Ezartzen ere du, bestalde, eratzen diren ustiategiak nahitaez inskribatu behar direla Nafarroako Nekazaritza Ustiategi Erregistroan eta, azkenik, laguntzak antolatzen ditu handiagoak izan daitezkeen hartzearekin

batera lurjabe horiek lurzati berrantolamenduko zerrendetan baja hartzen badute.

II. titulu honek beste lagungarriko neurri bat ere badu: Lurren Funts bat sortzea, alegia, ureztalurrak eraldatu eta modernizatzeko eremuetan ari-tuko dena, eta foru lege honetan haren alde aurreikusten diren desjabetzapen prozesuen bidez eratuko dena eta bai denetariko erospen, truke eta aportazioez eta eraldatu ondorengo finka ureztagarrien araubidearen ondorioz Nafarroako Gobernuak duen eros-lehentasuneko eskubidea erabiltzetik heldu diren lurrez ere. Funtsak horrela beretzen dituen lurak gehienbat ustiategi bideragarriak eratze erabiliko dira, hartarako lehiaketak eginaz, zeinetan nekazaritza ustiategi lehentseiei emanen baitzaie lehentasuna. Zilegi izanen ere da lurrokin prestakuntza eta ingurumenaren gaineko demostrazio helburuetan erabiltzea edo eskualde horri garabidean laguntzen dion beste edozertan.

Bereziki aipatzekoak dira Lurren Funtsaren alde egin daitezkeen desjabetzapenak ureztalurrak bihurtzea delarik kontua; prozedura arautua eratzen da ekintzarekin ados egon ez eta lehor lurra aski ez delako edo halako lurrik ez dagoelako lehor lurretan berrantolatu ezin diren titularren terreneak desjabetzeko. Kasu horietan desjabetu diren lurak Lurren Funtsera pasatuko dira hari esleitu zaizkion eginkizunetarako.

Beste berritasun handi bat da (ureztalurrak tradizionalak lurzati berrantolamenduetan murriztzen indize handiak lortu beharrez sartua baina eraldatzeari ere aplikatzeko) lagungarriko beste neurri bat sortzea Nekazaritza Elkarrekin bultzatu eta finantzatzeko, ustiategi bideragarriak eratze-koaz gain. Nekazaritza Elkarrekin horien helburu nagusia nekazaritza jarduera izanen da eta oinarriko ureztatze azalera baino txikiagoa duten lurjabeek aportatzen dituzten terreneak elkarrekin ustiatzea, betiere dituzten guztiak aportatu badi-tuzte eta bai, halaber, beren lurren tamaina zein ere den Nafarroako Nekazaritza Ustiategi Erregistroan baja hartzen duten lurjabeek aportatutakoak ere. Nolanahi ere, horrela eratzen diren sozietateak titular bakarra balira bezala tratatuko dira lurzati berrantolamenduko prozeduretan.

Eratzeko dirulaguntzak erantsitako azalaren arabera finkatuko dira, azalera horren balioaren arabera eta Nafarroako Nekazaritza Ustiategi Erregistroan baja hartzen duen lurjabe kopuruaren arabera. Sozietateok eskritura publiko batean formalizatuko dira, 15 urte iraunen eta erabakitze organoetan jarduera nagusiko nekazari izanen dute gehiengoa.

II. tituluaren bukarri, lurzati berrantolamenduaren aldeko beste neurri bat ezartzen da: labore iraunkorren eta landaketaren eskubideak aldatzekoa, zeinak funtsean 18/1994 Foru Legeko irizpide berei eusten baitie. Berririk, ordea, badu zerbait, beste lurjabe bati erauki behar zaizkion lurzatietan dauden oihan espezieei dagokienez, interesatuak adosten ez badira, posible izanen baita lurzorua desjabetu eta landatutakoa erauztea ere.

III. tituluak babes neurriei buruzko xedapenak dauzka, nekazaritza azpiegituretako ekintzek iraun dezaten segurtatu eta hortaz lortutakoa galtzea galarazteko. Horrela, ordezen finkak zatikaztea galarazteko, gutxieneko laborantza unitateen araubidea ezartzen da. Ureztalur bihurtutako ordezgarrizko loteak eskualdatzea galarazteko, zeinen plusbalia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari itzuli behar baitzaio, eraldatu ondorengo finka ureztagarrien araubide bat ematen zaio foru legeari. Lurzatietakoa instalazioak irrazionalki zatikatzea galarazteko, zenbait diseinu arau ezartzen dira, ureztatze unitateen araubidean sartuak eta azkenik, pertsona fisiko nahiz juridiko batek eraldatu dezakeen gehienezko ureztalur azalera eta bai lurzatietakoa instalazioen aldera jaso daitekeen gehienezko laguntza mugatzeko, kontzeptu horiek arautzeko araubide bat ezartzen da.

Titulu honetan hauek dira, laburbildurik, aurreko legeriaren aldean dauden berritasunak: oinarritzko laborantza unitateen mugak igotzen direla eta oinarritzko ustiatze unitateekin lotzen direla, berritik arestian aipatu ureztatze unitateen araubidea sortzen dela, zeinak unitate horiei gutxieneko tamaina bat ezartzen dien eta bai dirulaguntza publikoak jaso ahal izateko baldintza tekniko oinarritzakoak ere.

Bestalde, Nekazaritza Azpiegituren Erreformari buruzko 18/1994 Foru Legean zegoen bezalatsu eusten zaio eraldatu ondorengo finka ureztagarrien araubideari, nahiz eta oraingoak aukera berria ezartzen duen eros-lehentasuneko eskubidea erabiltzen den finkak Lurren Funtsera pasatzeko. Bere hartantsu irauten du, halaber, eraldatzeko dirulaguntzen eta lurzatietakoa instalazioetarako laguntzen araubideak, nahiz orain kapitulu berean sistematizatua dagoen, aipatu 18/1994 Foru Lege hartan ez bezala, araubide horrek aplikatu ahal izateko jartzen zituen baldintzak sakabanaturik baitzeuden.

IV. tituluari (nekazaritza azpiegituretako ekintzen alderdi juridikoak) arindu zaio edukia aipatu 18/1994 Foru Legeko testuaren aldean, lege hark Estatuaren oinarritzko legeriakoen antzeko agin-

duak ematen baitzituen eta horregatik haietako zenbait kendu baitira zorrotzasun juridikorik galdu gabe. Titulu honetan Jabetza Birbanatzeko Akta gauzatzeko prozedura ezartzen da, zer karga ezarri behar diren eta bertan nola gauzatu behar diren. Ezartzen ere da nahitaezkoa dela Katastroaren eta Jabetzaren Erregistroaren artean koordinazioa egotea eta titulu horretan sartzen da, halaber, ezezagunen finkei eta sobran dauden finkei zer tratamendu eman behar zaien eta zer berme juridiko ezarri behar diren lurzati berrantolamenduko Oinarrietan hobeki aitortzeko eskubide eta egoera juridikoak eta horiek ordezen finkaetara aldatzeko.

V. tituluak zehapen araubidea dauka; gehiago eta zehatzago definitzen du zehapenen tipologia eta bai haien zenbatekoa goratzen ere 18/1994 Foru Legearen aldean; lehengo legeko testua arindu ere egiten du, zenbait agindu guztiendako administrazio prozedurari buruzko arauetan baitaude eta hortaz alferrik baita foru lege honetan errepikatzea.

Ekobaldintzaren klausula, ordea, berritasuna da, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emanda edo hari eskatuta dauden dirulaguntzak pixkanaka kenduz joatekoa ingurumenaren inguruko hutsegite larriak edo oso larriak egin direnean.

Bukatzeko, VI. tituluak lurzati berrantolamenduko prozedura ardatz duen nekazaritza azpiegituren gauzatzeaz ari da eta alde batetik obretarako behar diren terreno okupazioen eta zorren alderdi praktikoak jorratzen, eta bestetik eraikuntza proiektuak idazteko behar diren arauak ematen, Ingurumenaren gaineko Eraginaren deklarazioari dagokienez, eta azkenik zer baldintza aurretiazko bete behar dituzten, zeinak funtsean bi baitira: hartzaileei dagokien kostua aurrez pagatu beharra, batetik, eta herrilurren kasuan familiako nekazaritza ustiategi lehenetsien adjudikazioari lehenetasuna eman beharra, bestetik. Horiez gain beste bi baldintza badaude, garrantzi handikoak uraren kudeaketaren ikuspuntutik eta nekazaritza industriako laboreen gaineko informazioa kudeatzearen ikuspuntutik. Lehenbizikoak ezinbesteko egiten du ur kontsumoarekin lotura duten ureztatzaileei tarifak ezartzea, gehiegizko kontsumoa ere zehatuz, eta bigarrenak behartzen ditu ureztatzaile elkartek Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari eta haren sozietate publikoei dauden edo asmotan diren laboreen gaineko informazioa ematera, nekazaritza industria eta sortu edo modernizatu egiten diren ureztalurrak ongi loturik egon daitezen.

VI. titulua ureztaketa abiatzeko deklarazioa egiteko prozedurez ari da, oro har obrak entregatzekoez eta ureztalur bihurtutako terreneok duten babes araubidez; bukaeran xehero deskribatzen du nola sailkatzen diren nekazaritza azpiegituretako ekintzak, eta haien finantzazioa. Horiek dira interes orokorreko lanak, bai lurzati berrantolamendukoak bai ureztalurrak eraldatu eta modernizatzeoak eta bai nekazaritza interes pribatukoak, oraingo legean berritasuntzat sartzen baitira aipatu 18/1994 Foru Legearen aldean, hobetzen baituzte ureztatze ura hobeki kudeatzera daramaten obra motak finantzatzeko baldintzak eta bai finantzazioa gutxitzen ere pisu bidezko ureztatze sareak mantendu edo proiektatu egiten dituzten obrei.

Foru lege honek xedapen gehigarri bat ere badu, zeinak Nafarroako Ubidearen eremu ureztagarriari buruz Ingurumenaren gaineko Eraginaren Ebaluazio berria egin beharra kentzen baitu, lehendik ere bai baitu Ingurumenaren gaineko Eraginaren deklarazio behar dena, eta bai bi xedapen iragankor ere; lehenbizikoak finkatzen du nekazaritza azpiegituretako ekintzen eremuetatik zeini aplikatu behar zaion foru lege berria eta zeini lehengo araudia; bigarrenak esku ematen du Nekazaritza Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legeko lehenbiziko xedapen iragankorrak agintzen duena ezin erabili izan zuten inbertsioak berfinantzatzeko, behar diren baldintzetan betetzen badira.

ATARIKO TITULUA Xedapen orokorrak

1. artikulua. Foru legearen xedea.

Foru lege honek helburua du nekazaritza azpiegituretako ekintzak zein beharrezkoak diren laguntza eta babeserako neurri administratiiboak arautzea, Nafarroako nekazaritza ustiatzei azpiegitura egokiak eskaintzeko, produkzio eta ingurumeneko ikuspuntutik, horrela, lehiakortasuna areagotu eta nekazaritza arloko industrian haien sarrera bultzatzeko.

2. artikulua. Nekazaritza azpiegituretako ekintzak.

1. Nekazaritza azpiegituretako ekintzak lurzoru urbanizaezinetan gauzatuko dira, honako baldibide hauen bidez:

a) Lurzati berrantolamendua. Haren bidez eskualdearen oinarritzko birbanaketa eginen da, eta, kasua bada, bestelako ekintzak eginen dira haren ondorioz. Lurzati berrantolamendua prozedura arruntaren bidez, laburtuaren bidez, edo foru

lege honetan aurreikusitako prozedura berezieta-koren bat erabiliz egiten ahalko da.

b) Ureztalur bihurtzea, ura behar bezala kontrolatzeko, nekazaritzako produkzioan alderdi garrantzitsua baita. Aldaketa hori egiteko obrak lurzati berrantolamendukoekin koordinatuko dira.

c) Egundauden ureztalurrak modernizatzea, uraren erabilera zentzuzkoa egin ahal izateko, ureztatze teknika berriak erabiliz. Aipatu obrak lurzati berrantolamendukoekin koordinatuko dira.

2. Lurzati berrantolamendua, ondorio hauetarako, azpiegituretako ekintzen oinarritzko osagaia da. Hura garatzen duen prozedura koordinatu beharko da juridikoki, eta denborari doakionez, ingurumenaren gaineko tramitazioarekin, bai eta bide eta saneamendu sareak aldatu, modernizatu eta eraikitzeo obrekin ere.

Haren xede nagusia izanen da ustiatzeak eta, behar izanez gero, ureztatze unitateak sortzea, betiere, ingurumen, agronomia, ekonomikoa eta gizartearen ikuspegitik bideragarriak badira.

3. artikulua. Administrazio neurri osagarriak.

Nekazaritza azpiegituretako ekintzak, foru lege honen 2. artikulua gainekoak, garatzen dituzten baliabideak sendotzearen, administrazio neurri hauek ezarri dira:

a) Ustiatze bideragarriak osatzea, foru lege honetan definitutako "oinarritzko ustiatze azalerak" sustatuz.

b) Lurren Funtza sortzea.

c) Nekazaritza sozietateak sortzea, aldaketa dela-eta eginen diren ureztalurrak eraldatu edo modernizatuko diren eskualdeetan, interesatuek nagusiki elkarlanean ustiatzeko aurkeztutako lurak abiapuntutzat harturik.

d) Eskubideak labore batzuetatik beste batzuetara aldatzeko bermeak eta laguntzak.

4. artikulua. Administrazioaren babes-neurriak.

Administrazioaren babes-neurri hauek ezarriko dira inbertsio publikoak ongi eginen direla segurtatzeko:

a) Gutxieneko laborantza unitateen gaineko araubidea sortzea; oinarritzko ustiatze azalaren arabera finkatuko da haien tamaina.

b) Ureztalur berriak erregulatzeko araubide juridikoa sortzea. Inbertsio publikoek eragindako plusbalia ez dadin partikularren mesederako izan labore mota horrekin hasi eta hamabost urte iragan arte.

c) Ureztatze unitateak sustatzeko araubidea sortzea, finkak elkartzearen bidez, lurzatietako instalazioen diseinu zentzuzko, eta ekonomikoki eta agronomikoki zuzena bideratzeko.

d) Lurzatieta instalatu eta ureztalur berriak paratzeko laguntzak erregulatzeko araubidea sortzea. Horren bidez, bermatu gogo da inbertsio publikoen onuradunek eraldatu beharreko azalerek ez dituztela foru lege honetan ezarritako mugak gaindituko. Sobrante den lur azalera desjabetzen ahalko da eta Lurren Funtsera gehitu.

I. TITULUA

Nekazaritza azpiegituretan jarduteko prozedurak

I. KAPITULUA

Xedapen orokorrak

5. artikulua. Kontzeptua.

Foru lege honen ondorioetarako, nekazaritza azpiegituren arloko azpiegituretat joko da foru lege honen 2. artikuluan zerrendatutako baliabideen aplikazioa, horrek, esparru geografiko jakin batean, bide emanen baitu, gizarte, ekonomia eta ingurumenaren aldetik, bideragarritasuneko helburuak lortzeko.

6. artikulua. Hasiera ematea.

1. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariaren Foru Agindu bat beharko da nekazaritza azpiegituretako ekintzak hasteko. Foru Agindu horretan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko baita, adieraziko da eskualde horretan egin gogo den oinarritzko proiektuaren idazketa baimendu dela. Era berean, horrek ekarriko du interesatuek beren esku dituzten eta lurzatien egoera juridikoa eta lurren sailkapena zehazteko behar diren datuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari igorri beharra.

2. Foru Agindua administrazioaren ekimenez edo onuradun izan daitezkeen egindako eskareren ondorioz emanen da.

Administrazioaren ekimenez hasten ahalko da interes orokor edo presakoa bada, eta, bereziki, foru lege honen 13. artikuluko 3.a) idatz-zatian aipatutako inguruabarretakoren bat gertatzen bada.

Eskaera arrazoitua eginez gero, erregelamenduaren arabera finkatutako arauari jarraikiz egin beharko da. Hori ebazteko, kontuan hartuko da, besteak beste, eskualde horretako nekazaritza ustategien garrantzia. Eskaera aurkezten denetik sei hilabete pasatzen badira haren gaineko ebaz-

penik jaso gabe, eskaera gaitzetsizat hartzen ahalko da.

3. Nekazaritza azpiegituretako ekintzak hasteko Foru Agindua argitaratutakoan, landaketa berriak, labore iraunkorrak jarri, eraikin berriak edo bestelako ekintzetarako, baldin eta ezarri nahi diren azpiegituretan eragina izan badezakete, beharrezkoa izanen da Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren baimen zehatza. Baimenik gabe egindako landaketak, obrak edo hobekuntzak ez dira kontuan hartuko lurzatien balorazioa edo sailkapena egitean. Halaber, behar den espediente tramitatu ondoren, arauhauslea zehatuko da, eta ekintza horiek geldiarazteko aurreneurriak hartuko.

4. Nekazaritza azpiegituretako ekintzak hasteko Foru Agindua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aitzina, jabeek eta nekazariak lurzatiak landu beharko dituzte, Nafarroako nekazaritza jardunbide onaren arabera. Horretaz gain, ezin izanen dute obrak hondatu, zuhaitzak eta zuhaixkak moztu, bota edo erre, ez eta landaketak edo labore iraunkorrak errotik atera edo kendu, lurra elkortu, edo lurzatien balioa murrizten ahal duen ekintzarik egin ere. Edozein gorabehera berezi dela medio beharrezkoa bada aurreko lerroaldeko ekintzaren bat egitea, interesatuak, aldeztatik, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren baimena eskuratu beharko du.

5. Artikulu honetako 3 eta 4 zenbakietan eskatutako baimena, gehienez ere, hiru hilabeteko epean jakinarazi beharko da. Epe horretan jakinarazpena jasotzen ez bada, interesatuak gaitzetsizat jotzen ahalko du eskaera, administrazioaren isiltasunagatik.

6. Foru lege honen 18. artikuluan definitutako Batzorde aholku-emailea eratuko da nekazaritza azpiegituretako ekintzak hasteko Foru Agindua argitaratu ondoren. Izan ere, une horretan, hasten ahalko dira lurra sailkatzeko lan teknikoak eta lurzatien egoera juridikoa zehaztekoak, hots, lurren berrantolamendurako prozesuan bete beharrekoak. Horrela, oinarritzko proiektua prestatzen ahalko da informazio agronomiko eta sozial egokiaren laguntzaz, geroko zuzenketak deusetan galarazi gabe, 25. artikuluan, oinarriak direla-eta, agindutako prozedurei jarraituz.

7. artikulua. Oinarritzko proiektua.

1. Oinarritzko proiektuak zehaztuko ditu nekazaritza azpiegituren arloan egin beharreko ekintzak. Foru lege honen 9. artikuluan adierazitakoari jarraikiz egingen da, ekintzen gaineko aginduzko azterketak posible egiteko; azterketa tekniko, juri-

diko, sozioekonomiko eta ingurumenari buruzkoak, alegia.

2. Ez da inola ere oinarritzko proiektuen xedea izanen nekazaritza azpiegituren kontserbatze hutsa, mantenimendua edo lehengoratzeko partziala.

3. Oinarritzko proiektuan sartzen ahalko dira obra jakin batzuk, bai hidraulikoak bai bestelakoak ere, zuzeneko ekintza eremukoak ez izan arren, ezinbestekoak badira nekazaritza azpiegituren garapen egokirako.

II. KAPITULUA

Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazioa

8. artikulua. Ingurumenari dagozkion alderdiak nekazaritza azpiegituretako jardueretan sartzea.

Nekazaritza azpiegituretako jardueretarako, lurren azalera edozein dela ere, Ingurumenaren gaineko Eraginaren ebaluazioa egin beharko da, ingurumenaren gaineko eragina arautzen duen legediaren arabera, eta betiere, ekintza hori baimenduko duen Foru Dekretua onetsi aurretik, foru lege honen xedapen gehigarri bakarrean aipatutakoa galarazi gabe.

9. artikulua. Ingurumenari dagozkion alderdiak sartzeko agiriak.

1. Nekazaritza azpiegituretako Ingurumenaren gaineko Eraginaren ebaluaziorako proiektua osatzen duen agiri teknikoa da oinarritzko proiektua, Europako Batasuneko araudiak horren gainean xedatutakoa betetzeko.

Oinarritzko proiektuak bilduko ditu Ingurumenaren gaineko Eraginaren ebaluaziorako zehazten ahal diren eta erabilgarri eta nahikoak diren alderdi adierazgarrienak, honako hauei dagokienez: eraikuntza, instalazio eta aurreikusitako obren lanak, inguruan edo paisajearen gaineko esku-hartzeak, eta, halakorik badago, lurzoruaren baliabideak ustiatzeko esku-hartzeak.

Oinarritzko proiektuaren eskala eta zehaztasun mailak handia beharko du izan, eraikuntza proiektu zehatzek ingurumenaren gaineko eraginari buruzko beste ebaluaziorik aurkeztu behar ez izateko, nekazaritza azpiegituretako ekintza ingurumen aldetik bideragarri deklaratu ondotik.

2. Eraikuntza proiektua, oinarritzko proiektua abiapuntutzat harturik, egin beharreko obra unitateak zehazten dituen agiri teknikoa da, kontratazio prozedurari eskatzen ahal zaizkion zehaztapenen araberrakoa. Era berean, betearazteko modua

adierazten du, bai eta Ingurumenaren gaineko Eraginaren deklarazioko zehaztapenak ere.

10. artikulua. Ingurumenaren gaineko Eraginaren ebaluaziorako prozedura.

Ingurumenaren gaineko Eraginaren ebaluaziorako prozedura oinarritzko proiektua bidalitakoan hasiko da. Proiektu hori Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak igorriko du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentura, eta han Ingurumenaren gaineko Eraginaren deklarazioa emanen.

11. artikulua. Ingurumenaren gaineko Eraginaren deklarazioaren ondoko ekintzak.

1. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak hartutako konponbidearen araberrako ekintzak eginen ditu eraikuntza proiektuari jarraikiz, foru lege honen 9.2 artikuluan ezarri moduan.

2. Ureztalurrak eraldatu eta modernizatzeko, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak jarduera horien onuradun diren Ureztatzaile Elkarteak sartuko ditu Departamentuak nekazaritzarako ur baliabideak behar bezala ustiatzeko egin beharreko ekintzetan, bai zuzenean, bai diru publikoz hornituriko Riegos de Navarra, S.A. enpresaren bidez.

III. KAPITULUA

Nekazaritza azpiegituretako ekintzen Foru Dekretua

12. artikulua. Ekintzaren onespenna Nafarroako Gobernuaren aldetik.

1. Nekazaritza azpiegituretako ekintzaren bat onetsi behar izanez gero, Nafarroako Gobernuak egin beharko du, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak proposaturik. Foru Dekretu baten bidez onetsiko da eta dekretu hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko.

2. Hori onesteko, edo kasua bada, ezesteko, kontuan hartuko dira honako alderdi hauek: ekintzaren legezkotasuna, egokitasun eta bideragarritasun teknikoa, gizarte, ekonomia eta ingurumenaren ikuspegitik.

13. artikulua. Oinarritzko edukia.

Nekazaritza azpiegituretako ekintzak onesteko Foru Dekretuak, gutxienez, oinarritzko osagai hauek izanen ditu:

1. Egin beharreko ekintzaren azalpen orokorra. Bertan, aipatuko dira Ingurumenaren gaineko Eraginaren deklarazioa eta oinarritzko proiektuak hartuko duen eremu geografikoa.

2. Egin behar den eskualdeko nekazaritza azpiegituretako ekintzaren onura publiko eta presako okupazioaren deklarazioa. Horrek helburu izanen du ondasun eta eskubideen desjabetzape-na, aldi baterako edo behin betiko okupazioa, eta bidezko diren aldi baterako edo behin betiko zortasunen sorrera.

3. Lurraren berrantolamendurako prozedura finkatzea, foru lege honetako edukiak direla-eta:

a) Arrunta edo laburtua.

Prozedura laburtua aukeratzeko, Foru Dekretuan bertan eman beharko zaio lehentasuna lurzati berrantolamenduari. Horretarako, kasu haue-takoren batek gertatu beharko du:

1. Lurzati berrantolamendua eta ureztaketa abiatzea edo ureztalurren modernizazioa arin egin behar direnean, horiek urez hornitzen dituen obra bukatzearekin batera produzitzen hasteko.

2. Gizarte eta ekonomia arrazoiak larriak badi-ra, lurzatiak barreiatu daudelako edo eskualde horretan azpiegituretik ez dagoelako, eta nekaza-ritza jardueraren golea mugatzen badute.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planetan sarturiko ureztaketa ekintza eta obrei buruzko martxoaren 16ko 7/1999 Foru Legean eta hura garatzen duten xedapenetan aurreikusitako ekintzak eta obrak, onura publiko eta interes oro-korrekoak, egin behar direnean.

4. Nekazaritza azpiegituretako ekintza eremu horretan, lurzati berrantolamenduko aurreko prozesuen ondorioz, bide eta saneamendu egitura egokiak badaude; horrek bidea emanen baitu beste ekintza batzuk egiteko, orain artekoak apro-betxatuz, dauden moduan edo aldaketa txikien bidez.

5. Hiru jabe edo gehiagok aho batez erabaki-tzen badute mugakide diren edo elkarren ondoan dauden finketarako lurzati berrantolamendua egitea, betiere, finka horiek zatitu edo barreiatze-ko arriskuak ukitzen baditu, eta hori konpontzen ahal bada haien azaleraren trukaketaren bidez. Dena den, inola ere ez da izanen trukaketa hutsa, obrarik gabea.

b) Berezia: gozamen eskubide, edo herrilur eta lur integratuetako lurzati berrantolamendua egin gogo denean.

4. Ekintzaren lur esparrua mugatzea:

a) Berrantolamenduko lurren perimetroa behin-behinekoz zehaztea. Muga hori aldatzen ahalko da, zabalpen edo murrizketen arabera, alboetako finkak sartzen direlako edo beste batzuk baztertu.

b) Kasua bada, ureztaketako eremuaren behin-behineko mugapena, eraldatzen ahal diren lurren ezaugarri edafologiko eta topografikoetan eta erabil daitezkeen ur baliabideetan oinarriturik.

5. Oinarrizko ustiatze azalerak, bai lehorrekoak bai ureztatzekoak, zehaztea, gehien eta gutxiene-ko mugak adieraziz, behar izanez gero, eta eskualdeko joera produktiboak kontuan harturik. Halaber, lehorreko lurak ureztalurren, eta alderan-tziz, bihurtzeko faktorea finkatzea. Horretaz gain, gutxieneko laborantza unitateen balioak ere eza-rriko dira, lehorrerako zein ureztalurretarako, kasua bada. Mugaren behealdetik hurbilen dago-en oinarrizko ustiatze azalerak izen hau hartuko du: oinarrizko ureztatze azalera.

14. artikulua. Foru Dekretuaren eraginak.

1. Foru Dekretu bat argitaratuko da nekazari-tza azpiegituretako ekintzaren onura publiko eta presako exekuzioa deklaratzeko, eta horrenbes-tez ezinbestekoa izanen da ekintza honako hauendako: ukitutako finken jabeendako eta haien gaineko eskubide errealean eta egoera juridikoen titularrendako. Era berean, Nekazaritza, Abel-tzaintza eta Elikadura Departamentuari esleituko dio mugariak edo seinaleak jartzeko ahalmena.

2. Foru Dekretuak ahalmena emanen du erai-kuntza proiektuak egiteko, zeinak prozeduraren une egokian prestatu beharko baitira.

3. Lurzati bat berrantolamenduan sartzeak era-ginen du, prozedurak iraun bitartean, mugakideen atzera eskuratzearen, nahitaezko truke eskubide-aren eta legeek, lurzati gelditasun edo barreita-suna saihesteko, ematen dituzten gainerako eros-te eskubideen iraungitzea.

4. Lurzati berrantolamenduko espedientean emandako ebazpenak ez dira etengo berrantola-menduak ukitzen dituen eskubideen gainean par-tikularren artean sor daitezkeen aferengatik.

IV. KAPITULUA **Prozedura arrunta**

Lehen atala **Xedapen arruntak**

15. artikulua. Hastapenak.

Nekazaritza azpiegituretako ekintzak garatze-ko prozedura arruntak, azkartasun irizpideari jarraikiz, lurzati berrantolamendurako prozedura izanen du abiapuntu, eta administrazioaren eki-menez gauzatuko da. Prozedura hori zehaztuko da dagokion Foru Dekretuan. Bide eta saneamen-du obrekin koordinatuko da, eta, beharrezkoa

bada, ureztalurrak eraldatu edo modernizatzekoekin.

16. artikulua. Lurzati berrantolamenduko aldiak.

Lurzati berrantolamenduko prozesuan honako aldi hauek bereizten dira:

- a) Berrantolamendurako oinarriak.
- b) Berrantolamendurako erabakia.
- c) Jabetza Birbanatzeko Akta

Bigarren atala Berrantolamendurako oinarriak

17. artikulua. Oinarrien edukia.

Lurzati berrantolamendua hastea erabaki ondoren, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, hurrengo artikuluan azalduko den batzorde aholku-emailearen laguntzaz, oinarriak prestatuko ditu. Hona hemen haien edukia:

a) Berrantolatzeko eremuaren perimetroa mugatzea, baztertu nahi diren lurzati zerrenda, sar daitezkeen inguruetak lurzatiak, eta, kasua bada, perimetroa aldatzeko proposamena, erregelamenduaren arabera egina. Ondorio horietarako, eta Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak txostena eman ondoren, perimetroaren behin betiko mugapenak ekin-tza hasteko Foru Dekretukoa aldatzen ahalko du.

b) Lurraldeko natur balioen zerrenda; grafikoan bidez zehazturik, azpiegituretan egin beharreko ekintzen esparruan nahitaez kontserbatu eta babestu beharrekoak adieraziko dira, Ingurumenaren gaineko Eraginaren deklarazioko zehaztapenei jarraikiz.

c) Lurren sailkapen orokorra, ekoizpen eta finkatze mailaren arabera. Bertan zehaztuko dira aldaketen ondoriozko konpentsazioak egiteko oinarritzat hartuko diren koefizienteak.

d) Lurzati jabeen zerrenda, aurkeztutako agirien arabera. Agiririk ez badago, jabe edo edukizaitzat agertzen dena sartuko da zerrendan. Halaber, berrantolamendurako baliagarriak izan daitezkeen datuak baino ez dira bilduko.

Jabekidetasunak direnean, oinarrietan jasotzen ahalko da jabekide bakoitzak ordaindu beharreko kuota.

e) Jabe bakoitzak aurkeztutako lur pusken zerrenda eta haien sailkapena.

f) Tasen zerrenda, mahastiak eta beste labore enbordonak landatzeko eskubideen zerrenda eta bestelako egoera juridikoa. Horretarako ezarri

diren erregistro ofizialetan jaso ez diren errentamenduak ez dira oinarrietan sartuko.

g) Beharrezkoa izanez gero, korralizen gaineko eskubideen balioa, berrerosi ahal izateko, bai lur trukaketa bidez bai diru bidez, edo nahitaez desjabetzeko.

h) Kasua bada, egun dauden ur emakiden zerrenda, lurzati eta jabe onuraduna adieraziz. Zerrenda hori ez da beharrezkoa izanen lurzatiak Ureztatzaile Elkarte batekoak badira, baldin eta elkarte hori dagokion Ur Konfederazioaren erregistro ofizialean sarturik badago edo hori tramitatzeko ari bada.

i) Kasua bada, ureztalurretako ekintza eremua finkatzea, foru lege honen 69. artikuluan aipatutako aldaketa, ureztaketa abiatzeko deklarazioari buruzkoa, deusetan galarazi gabe.

j) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak beharrezkotzat jotzen dituen guztiak.

18. artikulua. Batzorde aholku-emailea.

Lurzati berrantolamendurako batzorde aholku-emailea organo kolegiatua da, eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak izendatutako teknikariek, toki entitateen eta Ureztatzaile Elkartearen ordezkariak eta lurzati berrantolamenduan parte hartuko dutenek osatuko dute. Departamentu horrek laguntzen dio oinarritako proiektua eta lurzati berrantolamendurako oinarriak prestatzen, eta haien onetsitakoan desegiten da. Haren eraketa eta funtzionamendua erregelamenduaren arabera izanen dira.

19. artikulua. Korralizak.

1. Lurzati berrantolamenduko prozesuetako lurretan ezarritako belar eskubideak eta antzekoak, inguruabar partikularrak aztertu ondoren eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren iritziz, honela geldituko dira:

a) Ordezpen loteen barruan gordetzen ahalko dira, luraren jabe berriari kargak ezarri eta, aurretik halako kargarik ez zuten kasuan, lur azalera handiago baten bidez berdinduz, foru lege honen 17.g) artikuluan ezarritako balioei jarraikiz.

b) Beste lur batzuekin trukatzeko, foru lege honen 17.g) artikuluan finkatutako irizpideei jarraikiz.

c) Ureztalurren kasuan, Lurren Funtsean sartzeko desjabetzea, betiere belar eskubideak mantentzeak galarazten badu lurzati berrantolamendua behar bezala egitea, edo ureztalur bihurtzea edo dagoena modernizatzea.

2. Berrerosi edo desjabetzeko, korralizak jabe-ari ematen dizkion etekinak izanen dira soilik, nekazaritza azpiegituretako ekintzak egin aurretik, finkek zuten izaera edo xedearen gainekoak, foru lege honetan aipatzen baitira. Ondorioz, ezin izanen dira sartu ekintza hori dela-eta sortuko diren etekinak edo espektatibak.

3. Lurzatien berrantolamenduko prozesuaren ondorioz, belar zortasunetik aske gelditzen diren lurjabeek bere ekarpena jasoko dute foru lege honen 22.3 artikuluan ezarritakoa aplikatutakoan gertatutako murriztapenekin.

4. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak bultzatuko du, aholkularitza tekniko eta juridikoaren bidez, ukitutakoen belarren gaineko eskubide diferenteak biltzen dituzten entitateen borondatezko elkarketa, aprobetxamendu komunerako, bakarra izanen baita ukitutako guztiendako. Era berean, pertsona horiek partaidetza izanen dute aipatu entitatean.

5. Dena den, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak korralizzen perimetroak aldatzen ahalko ditu, azpiegituren diseinu egokia bermatzearen, eta antzeko kargak dituzten korralizzen kasuan, jabeen aldaketak baimenduko ditu.

20. artikulua. Lurzatien egoera juridikoa zehaztea.

1. Berrantolamenduaren xede den eremuaren perimetroaren barneko lurzatien egoera juridikoa zehazteko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak egin behar dituen lanak eta ikerkuntzak aurrera atera ahal izateko, lurzatien berrantolamenduan parte hartuko dutenek aurkeztu beharko dituzte beren eskubidea jasotzen duten idazkiak, baldin badaude, eta edozein kasutan ere, beren finkak edo eskubideak ukitzen dituzten kargak edo jabari egoerak aitortu.

2. Aurreko lerroaldean aipatutako lanen garapena dela-eta, parte-hartzaileei eskatuko zaie behar diren agiriak aurkezteko eta bidezko deklarazioak egiteko.

3. Foru lege honetan aurreikusitako lurzatien berrantolamendua egiteko ez da inolako oztopoa izanen berrantolamenduak ukitzen dituzten lurzatien edukizailleek behar den jabetza titulua ez izatea.

4. Ikertzealdian interesatuak bat ez badatoz, desadostasun hori oinarrietan jasoko da, nahiz eta lehentasuna emanen zaion titulu edo eskubide gehiago agertzen dituenari.

Hirugarren atala

Lurzatien berrantolamendurako erabakia

21. artikulua. Erabakiaren edukia.

Foru lege honen 27. artikuluan ezarritakoari jarraikiz, oinarriak administrazio bidean irmo bilakatutakoan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak lurzatien berrantolamendurako erabakia prestatuko du.

Erabaki horrek honakook islatzeko dokumentazio grafikoa izanen du: jabetzen banaketa berria; jabeen zerrenda, hasiera batean esleitu zaizkien finkekin batera; eta jabetzen birbanaketaren arabera, behar izanez gero, ezarri beharko diren lur-sailen zortasunen zerrenda. Halaber, kasua bada, ekintzak izanen diren ureztalurren eremua mugatuko da, foru lege honen 69. artikulua ureztaketa abiatzeko deklarazioaren gainean ezarritakoa deusetan galarazi gabe, orduan finkatuko baita eraldatutako finken zerrenda.

22. artikulua. Ekarpunen kenkariak.

1. Esleipenak doitzeko egiten diren parte-hartzaileen ekarpunen kenkariak ez dira inola ere izanen emandakoaren % 4 baino gehiagokoak.

2. Ekarpenetatik kentzen ahalko da lurzatien berrantolamenduaren onurako egin beharreko obretarako lurren balioa, eta, kasua bada, ureztalurrak jarri edo daudenak modernizatzeko azpiegitura-obretarakoena. Kenkari horrek neurri berean eraginena dio parte-hartzaile guztiak berrantolaketan duten balioari, salbu eta kenkariak ingurumen balioaren edo balio estetiko edo funtzionalaren galera berekin dakarrenean.

3. Kenkari horietatik portzentaje bat kentzen ahalko da, korraliza bakoitzaren arabera, berrerosketarako beharko diren lurren balio bera izanen duena.

4. Artikulu honetako 1 eta 2 zenbakietako kenkarien batuketara ezin izanen da aurkeztutako lurzatien balioaren seirena baino gehiagokoa izan.

23. artikulua. Egoera juridikoa.

1. Herrilurrak ez dira lurzatien berrantolamendutik baztertuko. Gainera, aldaketa egin ondotik, sortzen diren finken izaera jatorrizko lurzatiena bera izanen da.

2. Berrantolamenduko lurzatiek oinarri dituzten jabari eta gainerako eskubide errealak zein egoera juridikoak berdin berdin mantenduko dira finka berrietan.

3. Partzuer eta errentariak, foru lege honen II. tituluko I. kapituluaren ustiatutako bideragarrien eraketari buruz xedatutakoari heldu diotenak izan ezik,

eskubidea izanen dute kontratuak deuseztatzeko kalte-ordainik pagatu gabe, baldin eta esleitu zaien ordezen finka komeni ez bazaie. Eskubide hori ordezen finkaren jabetza hartu aurretik besterik ezin izanen dute erabili.

Laugarren atala **Oinarrien eta erabakiaren prestaketa**

24. artikulua. Alderdi orokorrak.

Oinarrien eta erabakiaren prestaketa lan tekniko eta juridikoa denez, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak aztertu beharko du, eta, kasua bada, onetsi. Izan ere, Departamentu horrek bermatu du atzematen diren desadostasunei edo kontraesanei eman beharreko tratamendua, bai eta interesatuen aukera jatorrizko lurzatiei eskubide eta egoera juridikoak ordezen finketara haien interesendako modurik egokienean igarotzeko eskatu ahal dezaten.

25. artikulua. Oinarrien onespena.

1. Oinarriak egin ondoren, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak onetsiko ditu, emanen duen administrazio ebazpenaren bidez.

2. Oinarrien onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta iragarkia Nafarroako Foru Komunitateko bi egunkaritan jarriko da. Horretaz gain, oinarrien gaineko dokumentazioaren kopia bidaliko da dagokien toki entitateen egoitzetara, interesatuek errezago azter dezaten.

3. Lurzatiei berrantolamenduan parte hartuko dutenei ekarpenen orria bidaliko zaie, ikus dezaten. Bertan, azalduko dira aurkeztutako lurzatiei, haien balioa, izan ditzatekeen kargak, eta berrantolamenduko espedienterako beharrezkoak izan daitezkeen bestelako inguruabarrak.

4. Oinarriak onesteko administrazio ebazpenaren kontra administrazioarekiko helegitea jartzen ahalko da, indarra duen legediari jarraikiz, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aitzina.

26. artikulua. Erabakiaren onespena.

1. Lurzatiei berrantolamendurako erabakia osatzen duen dokumentazioa eta, bereziki, foru lege honen 21. artikuluan eskatzen dena aztertutakoan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak onetsiko du administrazio ebazpen baten bidez.

2. Erabakiaren onespena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta iragarkia Nafarroako Foru Komunitateko bi egunkaritan jarriko da. Horretaz gain, erabakiaren gaineko dokumenta-

zioaren kopia bidaliko da dagokien toki entitateen egoitzetara, interesatuek errezago azter dezaten.

3. Lurzatiei berrantolamenduan parte hartuko dutenei ordezen finken atribuzioen orria bidaliko zaie, ikus dezaten. Bertan, oinarrietan aitortu eta aurkeztutako lurzatiei balio orokorra, eta, konzeptu diferenteak direla-eta, aplikatu zaizkien kenkariak.

4. Erabakia onesteko administrazio ebazpenaren kontra administrazioarekiko helegitea jartzen ahalko da, indarra duen legediari jarraikiz, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik aitzina.

27. artikulua. Administrazioan irmo bilakatzea.

Administrazioarekiko helegiterik jartzen ez bada, edo, ebatzi badira, oinarriak eta erabakia irmo bilakatuko dira administrazio bidean.

Bosgarren atala **Erabakiaren ondorioak**

28. artikulua. Jabetza hartzea.

1. Aurreko artikuluan ezarri bezala erabakia irmo bilakatutakoan, berrantolaketan parte hartu dutenei ordezen finken jabetza esleitu zaie, koordinatuen definizioaren arabera. Finkak identifikatu eta lurlean jarritako mugarrien bidez mugatuko dira, salbu eta bide, saneamendu edo ur azpiegiturek, interes orokorrekoek nola nekazaritza interes pribatukoek, mugatzen badituzte, kasu horretan erabat beharrezkoak direnak baino ez baitira jarriko.

2. Dena den, erabakia irmoa izan baino lehen, ordezen finken jabetza behin-behinekoz ematen ahalko da, betiere helegitegileen kopurua eskualdeko jabe guztien ehuneko bosta baino gehiago ez bada, eta, gutxienez ere, berrantolamenduko azaleraren gaineko portzentaje bera osatzen badute. Gainera, horrek ez du galaraziko aurrera egiten duten helegiteen ondoriozko aldaketak egitea.

3. Interesatuek proposatzen ahalko dute, jabetza hartu eta hurrengo hiru hilabeteetan, ordezen finken trukaketa. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak onetsiko ditu, trukaketa horiek berrantolamenduari kalterik sorrarazten ez dioten bitartean.

29. artikulua. Erabakiaren betearazpena eta zehapen araubidea.

Lurzatiei berrantolamendurako erabakia bete-arazten ahalko da, banakako ohartarazpen idatzia bidali ondotik, ordezen finken jabetza hartzeari kontra egiten diotenak zuzenean behartuz, Neka-

zaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak aldez aurretik iragarritako baldintzetan, guztiendako administrazio prozedurari buruzko legeek horren gainean ezartzen dituzten xedapenei jarraikiz, eta interesatuari foru lege honen V. tituluaren aurreikusitako zehapen araubidea aplikatzea deusetan galarazi gabe.

30. artikulua. Helegiteak, azaleraren gaineko desadostasunengatik.

Ordezpen finkak parte-hartzaileen eskura jarri, haien jabetza hartzeko, eta ondoko hilabetean, interesatuak administrazioarekiko helegitea jartzen ahalko dute, Nafarroako Gobernuari zuzendua. Helegiteari perituaren irizpena erantsiko zaio kasu guztietan. Agiri horretan ordezen finke azalera-aren eta berrantolamenduko espedientearen agertzen denaren arteko diferentziak jasoko dira. Helegitea aintzat hartzen bada, inguruabarren arabera, erabakia aldatu ahalko da, erreklamazio egilea sobran gelditzen diren lurren kargura konpentsatu, edo, hori egiterik ez badago, eskudirutan ordaindu.

V. KAPITULUA Prozedura laburtua

31. artikulua. Prozedura laburtuaren hautapena.

Nafarroako Gobernuak, foru lege honen 13. artikuluko 3.a) idatz-zatian aurreikusitako inguruabar bereziak gertatzen direla uste duen kasuetan, zilegi izanen du lehentasuna ematea lurzati berrantolamendu bati, nekazaritza azpiegituretako ekintzak onesteko Foru Dekretuan.

32. artikulua. Prozedura laburtuaren faseak.

1. Lurzati berrantolamendu bat lehentasunezko deklarazioak ekarriko du berekin kapitulu honetan aurreikusitako prozedura laburtuaren aplikazioa. Hona hemen prozedura horren zatiak:

a) Lurzati berrantolamenduko oinarriak eta erabakia administrazioaren ekimenez prestatu eta batera tramitatzea dokumentu bakar batean.

b) Behin betikoz onestea dokumentu bakarra.

c) Ordezpen finke jabetza hartzea.

d) Jabetzak birbanatzeko akta.

2. Kapitulu honek aurreikusten ez dituen kasuetan, aurreko kapituluaren prozedura arruntaren gainean xedatutakoari jarraituko zaio.

33. artikulua. Administrazioaren egintzen eraginkortasuna.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren erabakiak eta egintzak, prozedura laburtuaren

bidezkoak badira, berehala betearaztekoak izanen dira, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnetik aitzina. Beraz, ez da beharrezkoa izanen aldez aurretik administrazio bidean irimo bilakatzea, eta, betearazleak izan arren, horrek ez du eragotziko Nafarroako Gobernuari zuzendutako administrazio helegiteak jartzea.

34. artikulua. Aukerako egintzak.

Lurzati berrantolamenduko prozedura laburtuan, nahi izanez gero, ondoko egintzak betearaziko dira:

a) Lurzati berrantolamendurako Batzorde Aholku-emailearen eraketa, foru lege honen 18. artikuluan aurreikusi bezala.

b) Notarioak protokolizatu beharrean, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko funtzionario baimendu batek horretarako luzatutako agiri publiko baten bidez egiten ahalko da. Dena den, Departamentuak, Jabetza Erregistroan idatzoharra egin edo sartu ondoren, eskritura publikoan jarriko du Jabetzak birbanatzeko akta.

35. artikulua. Oinarrien eta erabakiaren onestapena.

Lurzati berrantolamenduko oinarrien eta erabakiaren dokumentu bakarra egindakoa, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak administrazio ebazpen baten bidez onestiko du, foru lege honen 25 eta 26. artikuluetan xedatutakoari jarraikiz.

36. artikulua. Ordezpen finke jabetza hartzea.

Lurzati berrantolamenduko oinarrien eta erabakiaren dokumentu bakarra egindakoa, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak parte-hartzaileei emanen die ordezen finke jabetza.

37. artikulua. Helegiteak.

Lurzati berrantolamenduaren kontra bidez egiten duten helegiteak, lurzati berrantolamendua hasita baldin badago ordurako prozedura laburtuaren bidez, eta zuzenketarik ezin bada egin prozedura oso aurreraturik edo bukaturik dagoelako, sobran gelditutako lurren kargura ebatziko dira, eta hori egiterik ez badago, eskudirutan pagatuko da kalte-ordaina.

VI. KAPITULUA Prozedura bereziak

Lehen atala Lurzatien gaineko eskubideen berrantolamendua

38. artikulua. Kontzeptua.

1. Landalurren kasuan, erabiltzaileak edo onuradunak luraren jabeak ez badira, komunitate, toki entitate edo jabe partikular batenak direlako, egiaztatzen badute lurzatiei aprobetxamendurako eskubideak dituztela, partzialak edo produktu batzuen gainean badira ere, eta lurzati horietan eskubide horiek modu larri-larrian sakabanaturik badaude, zilegi izanen da eskubide horiek birbanatzea lurzati berrantolamenduko irizpideetan oin harturik.

2. Salbuespen gisa, zilegi izanen da lurzatiak erabiltzeko eskubideak birbanatzeko prozedura hori erabiltzea baldin direlako landa eremuen erabiltzaileak edo onuradunak jabe titularrak izan ez eta jabetza partikular batena bada, betiere Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak juzgatzen badu arrazoi sozial edo ekonomi-koengatik hala komeni dela.

3. Aurreko kasuetan, lurzatiei aprobetxamendurako eskubideak kapitulu honetan ezarritako prozeduraren bidez berrantolatzeak ez du inola ere ekarriko ordezen berrien gaineko eskubide berriak eskuratzea erabiltzaile edo onuradunaren aldetik.

39. artikulua. Prozedura.

Lurzatiei aprobetxamendua berrantolatuko da lurzatiei berrantolamenduko prozedura arruntaren bidez, salbu eta Jabetzak birbanatzeko aktan xedatutakoari dagokionez, honako berezitasun hauek agertu baititu:

a) Lurzatiei jabearen baimena edo, kasua bada, titularrarena sartu behar da.

b) Batzorde aholku-emaitza jabeen edo titularraren komunitateko ordezkari batek hartuko du parte.

c) Berrantolamenduko erabakia irmo bilakatu ondoren, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak egungo eskubideen berrantolamendurako akta luzatu eta baimenduko du. Akta horretan, sortuko diren finken gaineko eskubideak zerrendatu eta zehaztuko dira.

Bigarren atala Alor komunalen berrantolamendua

40. artikulua. Prozedura.

1. Toki entitate baten alor komunalen berrantolamendua egiten ahalko da, herri ondareen hobekuntzaren barnean, ureztalur bilakatu edo dagoe-na modernizatzearen, baldin eta eskualde jakin bateko nekazaritza azpiegituretako geroko ekintzak oztopatzen ez badituzte edo egindakoak hondatzen ez badituzte.

2. Horretarako, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak oinarrizko proiektua prestatuko du, non herrilurretako ureztalurrak eraldatu edo modernizatzeke egin beharreko obrak sartuko baitira.

3. Oinarrizko proiektuak Ingurumenaren gaineko Eraginaren ebaluazioari helduko dio, foru lege honen I. tituluko II. kapituluaren ezarritakoari jarraikiz. Ebaluazioa egindakoan, Ingurumenaren gaineko Eraginaren ebaluazioa positiboa izanez gero, eraikuntza proiektua prestatuko da.

4. Berrantolamendua onesteko Foru Dekretua argitaratu eta eraginik gabe geldituko dira ukitutako herrilurretako adjudikazioak. Hala ere, landatzen ahalko dira, behin-behinekoz bada ere, ureztalurrak eraldatu edo modernizatzeke obrak adjudikatu arte.

5. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak eraikuntza proiektua onetsi dezan, toki entitateak honako baldintza hauek bete beharko ditu ezinbestez:

a) Gutxienez hamabost urtetan, ureztaketa abiatzeko deklaraziotik aitzina, loteek oinarrizko ureztatze azaleraren tamaina bera edo handiagoa izatea. Oinarrizko azalera hori eraikuntza proiektuan zehaztuko da.

b) Eraldaketa edo berrikuntzen ondoriozko loteen adjudikazioetarako orden bat finkatzea, ordenantza berrietan, lehentasun hauen arabera: lehenik eta behin, lehentasunezko nekazaritza ustiategiak, familia batenak eta nekazari gazte bat zuzendari edo gutxienez partaide dutenak; bigarrenik, lehentasunezko nekazaritza ustiategiak, jarduera nagusiko nekazariak osatuak; eta hirugarrenik, toki entitateek zuzenean ustiatuak. Azkenik, loteren bat sobrate geldituz gero, toki entitateak enkante publikoaren bidez adjudikatzen ahalko du.

c) Ordenantza horiek onestea, foru lege honen VI. tituluaaren arabera, obren finantzazioa dela-eta, toki entitateak pagatu behar duen parte eskatu aurretik.

II. TITULUA Neurri osagarriak

I. KAPITULUA Ustiategi bideragarrien eraketa

41. artikulua. Ezaugarriak.

Neurri osagarri honen helburua da nekazaritza ustiategiak eratzea, bai lehorrekoak bai ureztatze-koak, edo egitura mistokoak ere, bideragarritasuna ahalbidetzeko azalera nahikoa egonen dela bermatuz. Azalera hori osatzen ahalko dute jabe-tzako eta errentamenduko lurrek, edo partzuer-lurrek, landa errentamenduen gaineko legediari loturik. Honako ezaugarri hauek izanen dituzte:

1. Ekintza eremu bakoitzean, proiektuaren xede diren ustiategiaren neurriak izanen dira foru lege honen 13. artikuluko 5. idatz-zatian xedatutako gutxiengo eta gehiengo mugen artekoak.

2. Halaber, Nafarroako Gobernuak bultzatuko du nekazaritza ustiategiak bateratzea, hala nola, kooperatibetan, eraldaketako nekazaritza elkarte-etan edo bestelako taldeetan biltzea, lurak modu bateratuan ustiatzearen. Horretarako, baldintza hauek bete behar dira:

a) Helburu sozial nagusia nekazaritzan aritzea izatea, nekazaritzako industriaren edo nekazari-tzako energiaren inguruko jarduerekin osaturik, halakorik denean.

b) Azalera osoa hartuta, artikuluko honetako 1. idatz-zatian ezarritako mugen barnean egonen den azalera osatzea.

c) Erabakitze organoetako ordezkarien gehien-goia nekazarien esku egotea batez ere.

d) Ustiategiko kide batek edo gehiagok lan egi-tea zuzenean eta modu pertsonalean ustiategian.

e) Taldeak, gutxienez eta ezinbestez, hama-bost urte irautea.

f) Nafarroako Nekazaritza Ustiategiaren Erregis-troan izena ematea.

g) Ustiategiaren helbidea Nafarroakoa izatea.

3. Ustiategi bideragarriak eratzeko dirulagun-tzak emanen zaizkie euren finkak eskualdatzen dituzten jabeei eta hartzen dituzten onuradunei. Ondoko baldintzak bete beharko dituzte:

a) Ustiategia benetan sortzea, baldin eta Foru Dekretua eman ondoren eta lurzati berrantola-menduko oinarriak onetsi baino lehen egiten bada.

b) Konpromiso idatzia egotea, non adieraziko baita ustiategia modu horretan mantetzeko beha-rra, gutxienez ere, hamabost urtetan.

c) Ustiategi bideragarria eratzearen ondoriozko jabeen kopurua, lurzati berrantolamenduko zerrendetatik murriztuko dena.

d) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak, eskualdeko moduluen arabera, egiten duen balorazioa.

4. Finkak eskualdatzen dituzten jabeendako eta hartzen dituzten onuradunendako laguntzak lortzeko baldintzak, eta, oro har, onuradunen betebeharrak erregelamendu bidez garatuko dira.

II. KAPITULUA Lurren Funtsa

42. artikulua. Funtsaren sorrera eta ezauga-riak.

1. Lurren Funtsa eratu da. Funts horrek eragi-na izanen du Nafarroako Foru Komunitateko Ureztaketa Planetan sarturiko ureztaketa ekintza eta obrei buruzko martxoaren 16ko 7/1999 Foru Legean eta hura garatzen duten xedapenetan fin-katutako nekazaritza azpiegituretako ekintza eskualdeetan.

Lurren Funtsak, nahiz eta aurreko taldekoak ez izan, foru lege honen 12. artikuluan aurreikusitako Foru Dekretua duten beste eskualdeetan ere jardunen du, eta horietaz gain, ureztalur bihurtu edo dauden ureztalurrak modernizatzen diren eskualdeetan, aldaketa horiek partzialak badira ere.

2. Finkek eta haiei atxikitako ondasunek osatu-ko dute Lurren Funtsa. Ondoko jatorria izanen dute:

a) Jabe publiko edo pribatuen borondatezko ekarpena.

b) Ekintza eskualdeetan erositakoak.

c) Partikularrenak diren beste finka batzuekin trukaturakoak.

d) Nafarroako Gobernuaren eskubidea, egin-dako eskualdaketen gainean, lehentasunez eros-teko eta atzera eskuratzeko, ureztalur berrien araubide juridikoa aplikatzeko foru lege honen III. tituluko II. kapituluan ezarritakoari jarraikiz.

e) Lur sobranteak, foru lege honen 19. artiku-lua aplikatzearen ondorioz, korraliza bat edo gehiagoren jabeei egindako murrizketengatik.

f) Ondasun eta eskubideen desjabetzapena, ureztalurretako ekintzetan, baldin eta horiek man-

tentzeak lurzati berrantolamendua behar bezala egitea eragozten badu, edo lurra ureztalur bihurtzea edo dagoena modernizatzea galarazten badu.

g) Ureztalur bihurtzerik ez duten lurak desjabetzea, foru lege honen III. tituluko IV. kapituluaren ezarritakoaren babesean, kontzeptu horretarako finkatutako mugak gainditzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoei.

h) Ureztalur bihurtu ez eta lehorreko laborantza gisa berrantolatzerik ez duten lurren jabeek lurra desjabetzea.

i) Jabe baten finkak desjabetzea, lehorreko lurak ureztalur bihurtzeari ukorik egin ez dioten arren, foru lege honen 43. artikuluko 2.c) idatzatiaz ezarri bezala, eskatutakoa ordaintzen ez badu.

1. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak kudeatuko du Lurren Funtsa, zuzenean edo Riegos de Navarra, S. A. sozietate publikoa bitarteko, Nafarroako Gobernuaren aginduz.

2. Funtseko lurak erabiliko dira oinarrizko ustiatze azalerak osatzeko ekintza eremuan, bai eta erakutsi edo prestatzeko, ingurumenaren gaineko jardueretarako edo, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren ustez, eskualde horren garapenerako baliagarria izan daitekeen beste edozeinetarako ere, erregelamenduak ezartzen dituen arauari jarraituz.

3. Publizitate eta lehiakortasun irizpideak aplikatuko dira funtseko lurak adjudikatuzko. Adjudikazio lehiaketetan lehentasuna izanen dute familiako nekazaritza ustiatze lehenetsiek, eta batez ere nekazari gazte bat zuzendari edo gutxienez partaide dutenek; eta elkarte eitekoek. Azken horien ezaugarriak foru lege honen 41, 44 eta 45. artikuluetan azaltzen dira. Dena den, edozein kasutan ere, parte hartu ahal izateko, interesatuak beren burua lotu beharko dute Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren ustez dagozkien obren kostua pagatzera.

43. artikulua. Lurren Funtsaren aldeko desjabetzapenak.

1. Foru lege honen aurreko artikuluan aurreikusitako desjabetzapenak, Lurren Funtsarako, presako prozeduraren bidez egiten dira. Horretarako, deklarazioa inplizituki ulertuko da eskualdeko nekazaritza azpiegituretako ekintzei buruzko Foru Dekretuan.

2. Foru lege honen 42. artikuluko 2.h) idatzatiaz xedatutakoa betetzeko egin beharreko des-

jabetzapenentarako prozedura espezifikoki dagoenez, honako hau hartuko da kontuan:

a) Ureztalurrak jartzen diren lekuetan, lurzatie berrantolamenduko oinarriak onetsi ondoren, ukitutako jabeetakoren batek uko egiten badio foru lege honetan ezarritako konpromisoak betetzeari, eta, bereziki, oinarrizko proiektuak bildutako interes orokorreko obren kostuetatik pagatu behar duen portzentzeari, orduan, haren jabetzako lur horiek lehorrekoekin batera berrantolatuko dira, ureztalurretatik kanpo, edo, bestela, desjabetzen ahalko zaio lurak aldaketa egin aurretik zuen balioaren arabera.

b) Oinarrizko proiektuak biltzen dituen interes orokorreko obren kostuetatik onuradunak pagatu behar duena, aurreko a) idatzatiaz aipatzen baita, aldentzen ahalko da aurrekontutik, gehienez ere, ehuneko hogeita hamabost. Aurrekontua iraganiko denboraren arabera gaurkotuko da, kontsumorako prezioen indizea kontuan harturik.

c) Haien finkak ureztalur bihurtzea nahi ez duten jabeak zehaztearren, ebazpen baten bidez, aldaketak ukitutako titular bakoitzari hogeita hamar eguneko gehieneko epea emanen zaio, kontra dagoela adierazteko, nahi izanez gero, eta idatziz, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuan. Ebazpen horren kontra administrazioarekiko helegitea jartzen ahalko du, Nafarroako Gobernuari zuzendua.

3. Halaber, ureztalur berriek toki entitate baten ondasunak ukitzen badituzte, entitateak aldaketari atxikiriko konpromisoak onartu beharko ditu eta, bereziki, obren kostutik dagokion portzentzajea pagatuko du, bai interes orokorreko obrena, aurreko idatzatiaz kalkulaturakoaren arabera, bai herrilur loteetako lurzatiak antolatzearena. Hori guztia onartu ezean, ez du aldaketaren ondoriozko onurarik jasoko, eta, ahal izanez gero, ondasun horiek ureztaketako eremutik kanpo kokatuko dira. Horretaz gain, inola ere ez zaio aplikatuko aurreko idatzatiko desjabetzapen irizpidea.

III. KAPITULUA

Nekazaritza sozietateak

44. artikulua. Oinarrizko baldintzak.

1. Nekazaritza azpiegituretako ekintzak egiten diren lekuetan, lurak ureztalur bihurtu, ureztalur berriak jarri edo daudenak modernizatuzko, Nafarroako Gobernuak sustatuko du edo, kasu bada, nekazaritza sozietateen eraketa eskatuko du. Hauen helburu nagusia izanen da gutxienez oinarrizko ureztatze azalera osatzen duten lurak elkarlanean ustiatzea. Haien jabeak honakook izanen dira:

a) Oinarrizko ureztatze azalerarik, osotara eta ekintza eremu horretan, ez dutenak, betiere, jabe bakar baten finka guztiak sozietatean sartzen badira.

b) Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan hartutako bajaren bidez egiaztatzen dutenek ez dutela nekazaritza jardueran jarraitu behar zuzenean eta pertsonalki, ekintza eremu horretan, haien finken neurria edozein dela ere.

2. Modu honetara eraturako sozietateek jabe bakar gisa hartuko dute parte lurzatieen berrantolamenduan.

3. Sozietatea Foru Dekretua eman ondoren, eta lurzatieen berrantolamendurako oinarriak onetsi aurretik eratu beharko da.

4. Kideek berentzako erreserbatu ahalko dute lur puska bana nekazaritzan jarduteko, baina ez merkataritzarako, gehienez ere bederatziehun metro koadrokoa.

5. Sozietate horiek eratzeko laguntzen erregimena erregelamenduaren arabera ezarriko da. Horretarako, kontuan hartuko dira: eraturako sozietatearen ondoriozko lurren azalera, guztira; haren balioa, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuko moduluen arabera; eta Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan baja hartu duten jabeen kopurua.

Edozein kasutan ere, hauta daitekeen tamainari dagokionez, laguntzak, gehienez ere, ureztatuz ustiatzeko oinarrizko azalaren gehienekoaren bikoitzari dagokion baliokoak izanen dira.

45. artikulua. Baldintzak.

Nekazaritza sozietateek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Haien xede nagusia nekazaritza jarduera izatea, nekazaritzako industriaren edo nekazaritzako energiaren inguruko jarduerekin osaturik, halakorik denean.

b) Oinarrizko ureztatze azalera izatea gutxienez.

c) Hiru kide edo gehiago izatea eta haietako batek edo batzuek zuzenean eta pertsonalki lan egitea sozietaterako.

d) Erabakitze organoetako ordezkari gehienak nekazariak izatea.

e) Bere burua idatziz lotzea sozietatea gutxienez hamabost urtez mantentzera.

f) Nafarroako Nekazaritza Ustiategien Erregistroan eta aginduzkoak diren guztietan izena ematea.

g) Egoitza Nafarroan izatea.

IV. KAPITULUA **Landatzeko eskubideen eta labore iraunkorren eskualdaketa**

46. artikulua. Eskubideen eskualdaketa.

1. Landatzeko eskubideak, indarra duen legediari jarraikiz aitortuak, lurzati berrantolamendura aurkeztutako lurzatieen gainean, mahastienak, edo, kasua bada, bestelako labore iraunkorrenak, hala eskatuz gero, dagozkien ordezen finketara eskualdatuko dira. Horretarako, erabakia jenduraren jarri aurretik, jabeek eskatzen ahalko dute beren eskubideak jabetza berrian bueltatzeko, toki aldaketari buruz egoki iruditzen zaiena idatziz aurkeztuz, egiaztariekin batera. Lote berri horietan jabeak labore iraunkorrenaren pareko produktiorik ez badu, horretarako ezarriko diren kalte-ordainak eskatzen ahalko ditu.

2. Lurzatieen berrantolamendua dela-eta, beste jabe bati esleitu behar zaizkion lurzatieetako oihan espezieek honako tratamendu hau izanen dute:

– Jabe berriarendako izanen dira, honek aurrekoari pagatzen badio bien artean adostutako kopurua, edo, halakorik egin ezean, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak finkatzen duena.

– Erabakirik ez badago, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak jatorrizko jabeari aginduko dio zuhaitz horiek bota eta lurzatie laborantzarako prest uzteko. Jabeak uko egiten badio hori egiteari, lurra nahitaez desjabetuko da eta landareak errotik aterako dira.

3. Erregelamendu bidez garatuko dira kalte-ordainak eskuratzeko onuradunek bete beharreko baldintzak eta laguntzen zenbatekoa. Hauek kalkulatu dira kalte-ordaina jasotzen ahal duten azalaren urteko produkzio gordinaren portzentaje bat, hiru urteko gehieneko epean, oinarritzat harturik; eta bateraezinak izanen dira merkatuaren antolamendu komunak ematen dituenekin.

III. TITULUA **Babesteko neurriak**

I. KAPITULUA **Gutxieneko laborantza unitateen araubidea**

47. artikulua. Kontzeptua.

Gutxieneko laborantza unitatetzat hartuko da, lurzoru urbanizaezinetan, oinarrizko laboreek emaitza egokiak lortu ahal izateko azalera nahikoa, produktiorako baliabide arruntak erabiliz eta

eskualde bakoitzeko nekazaritzaren ezaugarri sozioekonomikoak kontuan hartuz.

48. artikulua. Erreferentzia balioak eta bermeak.

Nafarroako Foru Komunitate osoan aplikatuko dira gutxieneko laborantza unitate hauek:

a) Lehorreko lurretan, hamar hektarea. Lurzati berrantolamendua egin den edo egin behar den eskualde guztietan, definitu diren edo gero batean definituko diren oinarritzko ustiatze azaleretan, gutxieneko laborantza unitatea bat etorriko da lehorreko oinarritzko ustiatze azaleraren beheitiko mugarekin.

b) Ureztalurretan: ureztalur tradizionaletan eta ureztalur modernizatuetan, pisu bidezko ureztatze sistema tradizionala erabiltzen badute, gutxieneko laborantza unitatea hektarea batekoa izanen da.

Presio bidezko sistema erabiltzen den kasuetan, berriz, gutxieneko laborantza unitatea bat etorriko da ureztatuz ustiatzeko oinarritzko azaleraren edo oinarritzko ureztatze azaleraren beheitiko mugarekin. Halakorik ez badago, gutxieneko laborantza unitatetzat hartuko da bost hektareako azalera.

c) Aipatutakoa baino azalera gutxiagoko finkak eginen ez direla segurtatzeko, Jabetza Birbanatzeko Aktan gutxieneko laborantza unitatearen balioa agertuko da, eta abiapuntua izanen da, landalurreko finka bat zatitu edo banatzerakoan, lurzati berrien azalera gutxieneko neurri horri egokitzeko dela zehazteko.

d) Salbuespenei dagokienez, gai horri buruz legediak xedatutakoa beteko da, eta, gehienez ere, banaketa baimenduko da, Ingurumenaren gaineko Eraginaren deklarazioko neurriak betetzeko beharrezkoa bada.

II. KAPITULUA

Eraldatu ondorengo finka ureztagarrien araubidea

49. artikulua. Xedea.

Aldaketa eginen den eremuetan "eraldatu ondorengo finka ureztagarrien" araubidea ezarri da. Haren xedea da ordezen lote berriak hamabost urtetan mantentzera behartzea.

50. artikulua. Ezaugarri nagusiak.

1. Eraldatu ondorengo finka ureztagarrien araubidea benetan eraldatu eta lurzati zerrendan sartu diren finkei baino ez zaie aplikatuko, eta beharrezko izanen dute ureztaketa abiatzeko

deklarazioa, foru lege honen 69. artikulua araberaren egina.

2. Finkak kapitulu honetako araubideak gobernatuko ditu hamabost urtetan, ureztaketa abiatzeko deklarazioa ematen denetik aitzina, eta horrela sartuko dira jabetzaren erregistroan.

3. Araubide honek mugatu eginen du finka hauek eskualdatzeko eskubidea, salbu eta jabeak administrazioari ordaintzen badio finkan ureztaketako laborantza jartzeko egin den inbertsio publikoaren zenbatekoa. Eskualdaketa egiten ahalko da soilik lehorreko balioan, zeina Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak zehaztuko baitu; handiagoa izanen da interes orokorreko obren eta lurzati instalazio finkoen onuradunentzat. Batean zein bestean Nafarroako Gobernuak lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideak izanen ditu. Hala ere, "mortis causa" motako eskualdaketatik eta gurasoengandik seme-alabei dohainik egindakoetan ez da aplikatuko.

4. Artikulu honetan aurreikusitako lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideek lehentasuna izanen dute indarreko legediak, erosketak direla-eta, ezarritako beste edozein eskubideren aldean. Lurren Funtseko finkak, lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideak baliatuz gero, bertan ezarritako helburuetarako erabiliko dira.

5. Eraldatu ondorengo finka ureztagarriek beren izaera galduko dute honako kasuetan:

a) Lurraren erabilera aldatzen bada hirigintza-planengatik, betiere Nafarroako Gobernuaren onospena badute. Foru Komunitateko Administrazioari pagatu beharko zaizkio foru lege honen 71. artikuluko 2. idatz-zatiko 1go.a), b) eta c) azpidatz-zatietan azaldutako kostuetatik berak pagatutakoak.

b) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren egintza espresuaren bidez, jabeak eskaturik. Era berean, Foru Komunitateko Administrazioari pagatu beharko dio aurreko idatz-zatian azaldutakoa.

c) Hamabost urte baino gehiago pasatu badira ureztaketa abiatzeko deklarazioa eman zenetik.

6. Eskualdaketa egiteko prozeduren zehaztapenak erregelamendu bidez garatuko dira.

III. KAPITULUA**Ureztatze unitateen araubidea****51. artikulua.** Kontzeptua.

Ekintza eremuko ureztatuz ustiatzeko oinarriko azaleraren beheitiko muga baino balio handiagoa edo berbera izan arren, ureztatze unitateak lurzatika antolaturik dauden ureztatzeko instalazioen diseinu zuzena ahalbidetzen du eta, halaber, inbertsioaren eraginkortasun orokorra bermatzen du eta ustiategien emaitza ekonomikoak errentagarri egiten ditu.

Instalazio horietarako laguntza publikoak eskuratzeko, ezin izanen dira ureztatze unitateak baino azalera txikiagokoak izan.

52. artikulua. Ezaugarri nagusiak.

1. Ureztatze unitateen azalera ez da izanen ureztatuz ustiatzeko oinarriko azaleraren edo oinarriko ureztatze azaleraren gutxieneko tamaina baino txikiagoa, eremu hartako nekazaritza azpiegituretako ekintzei buruzko Foru Dekretuarekin bat.

2. Ureztatze unitateetako banakako finkei dagokienez, mugak izanen dituzte lurzatikako instalazioen diseinua egiterakoan, diseinu orokorren gaineko baldintza tekniko batzuei lotu beharko baitzaizkie, elkarketa honen bidez sortutako ustiategien iraunkortasuna bermatzearen.

3. Ureztatze unitateak finka bakar batek zein elkarren ondoan edo nahiko hurbil dauden batzuek osatuko dituzte, jabe batenak edo gehiagorenak izan. Dena den, ureztatze sistemaren diseinuari begira, unitate bakarra behar dute osatu, eta aipatu diseinua norberaren jabetzak kontuan hartu gabe egiten da, irizpide ekonomiko eta agronomikoen arabera. Irizpide hori ez da aplikatuko ureztaketarako ezarritako azalera oinarrikoaren neurria lortzerik ez duten finketan, bai topografi edo isolamendu arazoengatik bai ezintasun tekniko garbiengatik.

4. Ureztatze unitate berean ura lurzatian aplikatzeko sistema bakarra erabiltzen ahalko da. Aukeratua prestatuko da laboreetarako hobekien den moduan, arrazoi agronomikoak eta kostua kontuan harturik.

5. Hala eta guztiz ere, ureztalur berrien onuradunek nahi dituzten instalazioak egiten ahalko dituzte lurzatietan, baldin eta banaketa-sarearen eta ura bultzatzeko osagaien funtzionamenduko baldintza orokorrak aldatzen ez badituzte. Dena den, ez dute inolako dirulaguntzarik jasoko Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak horretarako dituen funtsetatik.

IV. KAPITULUA**Lurzatietan eraldaketak egin eta instalazioak jartzeko laguntzak mugatzeko araubidea****53. artikulua.** Kontzeptua.

Araubide honek helburua du onuradunek lurralde ureztalur bihurtzeko egiten dituzten aldaketak arautzea. Onuradunak pertsona fisikoak zein juridikoak izan daitezke:

a) Foru lege honen 73. artikuluan zehaztutako interes orokorreko obrek hartzen ahal duten gehieneko azalera, guztira, ureztalur bihurtzeko.

b) Lurzatian bertan ekipatu beharreko gehieneko azalera, guztira, foru lege honen 74. artikuluan ezarritako nekazaritza interes pribatuko obren finantzazioarekin.

54. artikulua. Eraldatzeko gehieneko azalera.

1. Foru lege honen 41, 44 eta 45. artikuluetan zehaztutakoak ez diren banakako onuradunek edo pertsona juridikoen lur bat ureztalur bihurtu nahi izanez gero, haren azalera, gehienez ere, ureztatuz ustiatzeko oinarriko azaleraren gehieneko neurria halako bikoia izanen da. Ureztatuz ustiatzeko oinarriko azalera dagokion Foru Dekretuan definitu da, ekintza eremu bakoitzera.

Pertsona juridikoei dagokienez, foru lege honen 41, 44 eta 45. artikuluetan definitzen baitira, ureztalur berria jartzeko gehieneko azalera izanen da banakako onuradunendako ezarritako muga eta ekintza eremuko kideek aurkeztu dituzten lurren batuketa.

2. Eskatzaile fisiko zein juridiko baten azalera, eraldatu beharreko perimetroan, aurreko puntuko irizpideen arabera finkatutako azalera gainditzen badu, desjabetzen ahalko da, lehorreko balioan edo aldatuko ez den lehorreko lurzatien berrantolamendukoan. Lehenengo kasuan, desjabetu ondoren, Lurren Funtsean sartuko da, foru lege honen 43. artikuluan aurreikusitako prozedurari jarraikiz.

3. Artikulu honetako mugatik salbuetsiko dira Nafarroako toki entitateen ondasunak, bai eta Nafarroako Toki Administrazioen Araubideari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarrian aipatutako instituzioenak ere.

55. artikulua. Finantzazio bidez ekipatu beharreko gehieneko azalera.

1. Foru lege honen 41, 44 eta 45. artikuluetan zehaztutakoak ez diren banakako onuradunek edo pertsona juridikoen laguntzak eskuratzen

ahalko dituzte foru lege honetan ezarritako lurzati-tietako instalazioak paratzeko, baldin eta:

a) Eskualde horretarako zehaztu den ureztatze unitatearen tamaina baino txikiagorik ez badute.

b) Eskualdeko ureztatuz ustiatzeko oinarritzko azalaren gehieneko neurria gainditzen ez badute. Hala ere, familiako nekazaritza ustiategi lehentasiek jasotzen ahalko dute eskualdeko ureztatuz ustiatzeko oinarritzko azalaren gehieneko neurria halako biri dagokion laguntza.

2. Elkartutako nekazaritza ustiatzeko eta foru lege honen 41, 44 eta 45. artikuluetan zehaztutako sozietate juridikoen bestelako ereduak laguntzak eskuratzen ahalko dituzte lurzati-tietako instalazioak paratzeko, baldin eta:

a) Eskualde horretarako zehaztu den ureztatze unitatearen tamaina baino txikiagorik ez badute.

b) Laguntza jasotzen ahal duen azalaren balioa, guztira, osagaietako bakoitzaren azalera partzialen batuketa baino handiagoa ez bada, artikuluko honetako 1.b) ataleko baldintzei jarraikiz.

IV. TITULUA

Nekazaritza azpiegituretako ekintzaren alderdi juridikoak

I. KAPITULUA

Ordezpen finkak sartu eta birbanatzeko akta

56. artikulua. Jabetza Birbanatzeko Akta.

1. Lurzati berrantolamenduko erabakia irmo bilakatu ondoren, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak Jabetza Birbanatzeko Akta luzatu eta baimenduko du. Bertan, berrantolamenduaren ondoriozko finkak edo ordezen finkak zerrendatu eta zehaztuko dira, bai eta horiek jabetzaren erregistroan sartzeko bete behar diren inguruabarrak ere. Horretaz gain, eta bereziki, ondokoak zehaztuko dira: foru lege honen babesean eratutako finkak; ustiategi bideragarriak; eta ureztatu beharreko laboreak jarri badira, eraldatu ondorengo finka ureztagarri horien izaera, eskualdatzeko mugak; Nafarroako Gobernuaren eskubi-deak lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko; eta foru lege honetan ezarritako beste berme batzuk.

2. Dokumentu horretan azalduko ere dira jaborikoak ez diren lehengo edo jatorritzko lurzati- gainerako eskubideak, haien jabetza badakarte, eta eskubide horiek egokitzen zaizkion ordezen finka, interesatuek, edo bestela, Nekazaritza, abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak zehaztua. Zerrendatuko dira, halaber, lurzati-

egoera juridikoa ezartzeko aldi lortutako gainerako eskubide errealak eta egoera juridikoak, eta foru lege honen xedapenetatik sortutako karga juridikoak, bereziki, gutxieneko laborantza unitateari dagokion balioa.

3. Jabetza Birbanatzeko Akta Notarioen Elkar-goak izendatzen duen notarioak protokolizatu-ko du. Horrek ematen dituen kopia protokolizatu-ek jabari-titulu gisa balioko dute berrantolamendu-ko parte-hartzaileentzat, eta Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuaren eginkizuna izanen da titulu horien Jabetza Erregistroko sarre- ra bultzatzea. Protokolizazioa egiteko, notarioari bidaliko zaio, aktarekin batera, berrantolamendu-ko eskualdeko plana, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak baimendua.

57. artikulua. Katastroaren eta Jabetza Erre- gistroaren arteko koordinazioa.

Lurzati berrantolamenduaren ondoriozko anto- lamendu berria eta haren ondorengo aldaketak, nahitaez islatu behar dira Landalurren Katastroan, eta Jabetzaren Erregistroarekin koordinatuta, gai- nera. Hartarako Nekazaritza, Abeltzaintza eta Eli- kadura Departamentuak baimendutako planoen kopia eta behar diren beste datu osagarriak bida- liko zaizkie Erregistroari eta Foru Komunitateko lurralde aberastasunaren gaietan eskudun den organoari, eta hortaz haren dokumentuak erakun- de publiko horietan jasoko dira. Landalurren Katastroak egoera berriaren arabera moldatuko du bere dokumentazioa eta kasuko Jabetzaren Erregistroari bidaliko.

58. artikulua. Ezezagunen finkak.

1. Ikerketa aldi normalean jaberik aurkitzen ez zaien lurzatiak ordezen dituzten finkak ere sartu- ko dira Birbanatze Aktan, bertan hala izan dela jasoko, eta hala bide denean kontsignatu eginen dira dauden edukitze egoerak. Finka horiek, haat- tik, ez dira Jabetzaren Erregistroan inskribatuko jabea azaldu ez edo Foru Berriko 304. Legeak agintzen duenaren arabera Nafarroako Foru Komunitatearen izenean inskribatzea tokatzen ez den artean.

2. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ahalmena izanen du, Birbanatze Akta protokolizatu ondoko bost urteetan, finka horien jabaria behar adina frogatzen duenari aitortu eta, hartara, agintzeko protokoliza daitezela bertako Jabetza Birbanatzeko Akta osagarriak, zeinen kopia notarioak emanen baitu, Jabetzaren Erregistroan inskribatzeko, Aktaren araubide bera- ren menpe.

3. Zilegi izanen ere du Toki entitateari edo ureztatzaile elkarteei, Ureztatze Sindikatuari edo kasuko beste elkarte bati jabe ezagunik gabeko finken laborantza lagatzea.

59. artikulua. Finka sobranteak.

1. Zilegi izanen da lur sobranteak, Birbanatze Akta protokolizatu eta hiru urteko epean, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak bidezko irizten dien helburuetarako erabiltzea.

2. Epe hori iragan delarik, herrilurtzat adjudikatuko zaizkio kasuko toki entitateari, interes orokorreko diren obrak zaintzeko konpromisoa hartuta, hala nola bideak, saneamendu sareak eta ingurumenari buruzko neurriak, lurzati berrantolamendua dela eta eginak.

3. Aurreko lerroaldean agindu denagatik ere, ureztalur bihurtzea edo ureztalurra eraldatzea delarik kontua, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak zilegi izanen du sobrante diren eta eraldatutako eremuan dauden lurrak ureztatzaile elkarteei esleitzea, ureztatze sindikatuei edo legez eraturako beste elkarteei, aurrez beren burua lotzen badute bertan dauden interes orokorreko obra guztiak mantentzera.

4. Hiru urteak iraganik, Jabetzaren Birbanatze Aktaren akta osagarri batean jasoko da finka horien adjudikazioa eta Jabetzaren Erregistroan jabe berriaren izenean inskribatuko. Hiru urte horietan Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak zilegi izanen du sobrante diren lur horien laborantza kasuko toki entitate, ureztatzaile elkarte, ureztatze sindikatu edo bestelako elkarteari lagatzea.

60. artikulua. Notario eta Erregistratzaileen eskubideak.

Berrantolamendua egiteko edo haren ondoriozko lanengatik eta ordezen finkak titulatu eta inskribatzeagatik sortzen diren Notario eta Erregistratzaile eskubideak Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak pagatuko ditu.

Ondorengo egintza edo kontratuengatik sortzen diren lansari horiek berak xedapen indardunen arabera dagokion partikular interesatuak pagatuko ditu, non eta lurzati berrantolamenduko prozesuaren ondoriozko zuzenketetatik heldu ez diren. Batzuk zein besteak, berrantolatu beharreko eremuen arantzel bereziaren arabera aplikatuko dira.

II. KAPITULUA

Bermeak

61. artikulua. Eskubideak eta egoera juridikoak aldatzea.

1. Oinarrietan beren titular legitimoari esleitu ez zaizkion eskubideek eta egoera juridikoek ez dute kalterik hartuko berrantolamendu espedientearen ebazpenagatik, nahiz ezbapena irmoa izan, baina bide judizial arrunta beste biderik ez da izanen Aktetan berrantolamenduaren aurretik eskubideen eta egoera juridiko horien titulartzat ageri zenari adjudikatutako ordezen finken gainean.

2. Eskubideok, jatorrizko lurzati ezaugarri bertsuko eta balio proportzionaleko ordezen finken gainean edo haiengandik bereizitako finka pusken gainean gauzatuko dira. Ordezgarritzko lotean dauden eite bereko finkak erregistroko fede publikoaren babesa duen hirugarren bati eskualdatu bazaizkio, artikulua honek aipatzen dituen eskubide eta egoeren titularrak kalte-ordain justua hartzeko bestetarako eskubiderik ez du izanen.

3. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak finkatuko du zein ordezen fin-kari edo finka puskari atxikiko zaizkion eskubide edo egoera horiek; honela:

a) Kasuko demandaren idaztohar aurreneurritza egiteko epaileak ematen duen agindua ikusirik, agindu hori finka jakin bati zuzentzeko;

b) Idaztoharra egiteko agindurik ematen ez bada, epaia betearazteko tramitean egingen da.

V. TITULUA

Zehapen araubidea

62. artikulua. Zehapen motak eta definizioak.

1. Arau-hauste dira eta administrazioaren aurreko erantzunbeharra sortuko dute foru lege honetan agintzen dena hausten duten egintzak edo egintza ezak, sor daitezkeen erantzunbehar penal, zibil edo bestelakoak ezertan galarazi gabe.

2. Hauek dira arau-hauste arinak:

a) Lurzati laborantzaren Nafarroan ohi den nekazaritza jardunbide ona ez begiratzea, nekazaritza azpiegituretako ekintza abiarazteko Foru Agindua argitaratu ondoren.

b) Ikertze eta sailkatze lanak nekeztea.

3. Hauek dira arau-hauste larriak:

a) Lurzatiak zedarritzatzea galarazi edo trabatzea edo mugarriak eta zedarriak jarri ondoren kentzea.

b) Finken balioa gutxitu dezaketen egintzak egitea.

c) Nekazaritza azpiegituretako ekintza abiarazteko Foru Agindua argitaratu ondoren labore iraunkorrak landatzea, behar den baimena eduki gabe.

d) Teknikariei lurzati edo finketara iristea galarazte, beren lana egin ez dezaten.

e) Eraikuntza proiektuetako interes orokorreko edozein obra hondatu edo gaizki erabiltzea.

f) Nekazaritza azpiegituretako ekintza abiarazteko Foru Agindua argitaratu ondoren finketan eraikinak edo hobekuntzak egitea, hartarako behar den baimenik gabe.

g) Nekazaritza azpiegituretako ekintza abiarazteko Foru Agindua argitaratu ondoren obrak hondatu, zuhaitzak eta zuhaixkak moztu, bota edo erre, landaketak edo labore iraunkorrak errotik atera edo kendu, lurra elkortu, edo lurzatiaren balioa murrizten ahal duen ekintzarik egitea.

4. Hauek dira arau-hauste oso larriak:

a) Finka berrien jabetza hartzea galarazi edo trabatzea.

b) Eremurako onetsi den eraikuntza proiektuko obrak egitea galarazi edo trabatzea.

c) Foru lege honetako 17. artikuluko b) idatzatian ezartzen diren balio naturalak aldatu edo suntsitzea.

d) Eraldatu ondorengo finka ureztagarriak eskualdatzea Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari egin beharreko jakinarazpena egin gabe edo eskualdaketa akasduna edo osagabea bada, frogatu gabe Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ebazpen espresua eman duela edo ustezko egintza ziurtatu dela eros-lehentasuneko eskubidea erabiltzearen gainean edo jakinarazi ez bezalako baldintzetan.

e) Eraldatu ondorengo finka ureztagarri bat eskuratzen duenak ondorengo jakinarazpenik ez egitea Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari.

63. artikulua. Zehapenak.

1. Arau-hausteez honako zehapenak izanen dituzte:

a) Arau-hauste arinak, 150,25etik 601,01 euroa arteko isuna.

b) Arau-hauste larriak 601.02etik 3005,06 eurora arteko isuna.

c) Arau-hauste oso larriak, aurreko artikuluko 4.a), 4. b) eta 4.c) idatz-zatietakoak, 3005,07tik 18.030,36 eurora arteko isuna. Aurreko artikuluko 4.d), eta 4.e) idatz-zatietako arau-hauste oso larriak, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak finkatzen duen ureztalurren balioaren ehuneko batetik bostera arteko isunarekin.

1. Nafarroako Gobernuak, Foru Dekretu bat emanda, zilegi izanen du aurreko lerroaldean ezartzen diren zehapenak gaurkotzea kontsumoko prezioen indizea nola aldatu den aintzat hartuta.

2. Zein ere zehapen mota ezartzen den, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura kontseilariak zilegi izanen du, ingurumenaren babesari buruzko arau-hauste larri edo oso larrien kasuan hurrenez hurren 100eko 50 edo 100 kentzea arau-hausleak nekazaritza azpiegituretarako, belar-laboreetarako edo nekazaritza-ingurumenekoetarako Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak emanda edo hari eskatuta dauzkan laguntza mota guztietatik.

3. Zehapenak ezartzerakoan behar den oreka mantenduko da arau-haustea osatzen duen gertaeraren benetako larritasunaren eta ezartzen zaion zehapenaren artean, bereziki honako irizpideak aintzat hartuta aplikatu beharreko zehapena graduatzeko:

a) Arau-haustea nahita egina edo bigarrena den.

b) Egindako kalteak nolakoak diren.

c) Arau-haustea berriz egina den, hau da, ea urtebetean eite bereko arau-hauste bat baino gehiago egin diren administrazio bideko ebazpen irmo batek hala deklaratu duenean.

d) Portaera berean bidegabetasun bat baino gehiago egotea.

5. Gertaera bakar batek bi administrazio arau-hauste edo gehiago osatzen baditu, larrienari dagokion zehapena ezarriko da, erdiko edo gehieneko graduan.

6. Foru lege honek agintzen duenaren kontrako administrazio arau-hausteez honako preskripzio epea izanen dute: oso larriek hiru urte, larriek bi urte eta arinek sei hilabete.

7. Arau-hausteen preskripzio epea arau-haustea egin den egunean hasiko da kontatzen. Preskripzioa eten eginen du zehapen prozedura hastek, interesatua jakinean dela, eta berriz hasiko

kontatzen zehapen espedientea, ustezko erantzuleari ezin egozteko moduko arrazoiak direla medio, hilabete baino gehiagoan geldirik egoten bada.

8. Edozein ekintza judizial nahiz administratibok eten egingen du preskripzio epea.

64. artikulua. Administrazioaren zehapen prozedura.

Foru lege honetan agintzen diren zehapenak ezartzeko, honako administrazio prozedura segituko da:

a) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ofizioz hasiko du prozedura, dela berak hala erabakita, dela goitik hala aginduta, edo beste organo batek arrazoen gainean hala eskatuta edo denuntzia sartuta.

Berak erabakitakotzat hartuko da lurzati berrantolamenduko teknikarien txostenetan jakiten denak ondorio dakarren ekintza.

b) Prozedura hasteko ebazpenak instruktore bat izendatuko du, zuzenbidean lizentziatua.

c) Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak zilegi izanen du, egintza arrazoi-tua eginaz, behar diren neurri behin-behinekoak hartzea izan litekeen ebazpena indarduna izan, prozedura ongi burutu, arau-haustearen ondorioek irautea galarazi, eta interes orokorrak eskatzen duena gauzatzeko.

d) Instrukture horrek ebazpen proposamena egin eta espedientearen ageri diren dokumentu, alegazio eta informazioekin batera bidalita, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak bidezko den ebazpena emanen du hori dena jaso eta hilabeteko epean.

e) Ebazpenean, hala bide denean, behar diren prekauzio neurriak hartuko dira ebazpena beteaz ez den artean efikaza izatea segurtatzeko.

VI. TITULUA

Nekazaritza azpiegituren exekuzioa

I. KAPITULUA

Alderdi orokorrak

65. artikulua. Koordinazioa.

Nekazaritza azpiegituren gauzatze materiala lurzati berrantolamenduko prozedurarekin koordinatuko da.

Zilegi izanen da obren exekuzioa prozeduraren edozein unetan egitea, baina eginahalean bateratuko dira administrazio faseak obren exekuzioare-

kin, hartzaileek ahalik eta kalte txikiena hartzeko, zeinek ez baitute horren aldera inolako kalte-ordainik hartzeko eskubiderik izanen.

66. artikulua. Okupazioa eta zorrak.

Nekazaritza azpiegituretako ekintzari buruzko Foru Dekretua onesteak ahalmena emanen dio Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari behin-behinekoz eta obren jasoera egin artean, eraikuntza proiektua aurrera eramateko behar den edozein terreno okupatzeko eta bai nekazaritza azpiegituretarako behar diren zor iraunkorrak sortzeko ere. Ekintzaren hartzaileak beharturik daude obra eta erantsitako instalazioetarako behar diren terrenoak libre uztera, kalte-ordainik hartu gabe.

67. artikulua. Eraikuntza proiektua nola itxuratu.

Nekazaritza azpiegituretako ekintzari buruzko Foru Dekretua onetsi ondoren, eta lurzati berrantolamendua zertan den ikusirik, eraikuntza proiektuak itxuratuko dira, foru lege honetako 9.2 artikulua zehazten duenaren arabera idatziak.

68. artikulua. Obren exekuzioa.

1. Obrak Administrazioak berak nahiz bere sozietate publikoetako batek egingen ditu. Sozietate horiek egingen dute kontratazioa eta proiektu eta obren zuzendaritza teknikoa beren gain hartuko.

2. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak aditzera eman beharko dio Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuari Ingurumenaren gaineko Eraginaren Deklarazioa Begiratzeko Plana noraino betetzen den.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak berak edo bere sozietate publikoen bidez obrak egin ahal izateko, hainbat baldintza aurretiatzko ezarriko dira, hartzaileek bete beharrekoak eta erregelamendu bidez garatzekoak, honako oinarri hauetan oin hartuta:

a) Dagokien finantzazio zatia eta hala bide denean egiten diren likidazioak aurrez aportatzea.

b) Kasuko toki entitateak frogatuki onetsirik edukitzea labore lote komunalen aprobetxamenduari buruzko ordenantza, foru lege honetako 40. artikuluko 5. idatz-zatiko b) letran agintzen den moduan; ez da zilegi izanen lote horien tamaina oinarritzko ureztatze azalera baino txikiagoa izatea eta hamabost urtez eutsi beharko diote tamaina horri ureztaketa abiatzen denetik.

c) Ureztatzaile elkarteen ordenantza eta erregelamenduetan, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Eli-

kadura Departamentuak finantzatu aurretik, ureztatzeko uraren kontzesiodunek ur kontsumoa kontrolatzeko neurriak sartzea; Departamentu horrek kanpaina bakoitzean Riegos de Navarra S.A. sozietatearen bidez ezartzen dituen ur kontsumorako erreferentziez gorako kontsumoagatik zehapenak jarriko dira.

d) Ureztatzaile elkarteei eta toki entitate laguntza hartzaileei dokumentu bat eskatuko zaie Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentua libratzeko instalazioak desegoki erabiltzeagatik sor litezkeen kalte guztien erantzunbeharretik, bereziki eremu horretarako eta ohiko laboretarako erreferentziatzat jarritakoa baino gehiagoko ur kopuruak aplikatzeagatik.

e) Bere burua lotzea Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuari edo haren sozietate publikoei behar diren datu guztiak ematera kanpainaz kanpaina ureztalur horietan ezarri diren edo ezartzeko diren laboreen gainean, estatistikak itxuratzeari begira eta nekazaritzako elikagaien eta nekazaritzako energiaren industrietzako informazio bideak hobetzeko.

69. artikulua. Ureztaketa abiatzearen deklarazioa eta babes araubidea.

1. Nekazaritza azpiegituretako ekintzak berekin ekartzen badu ureztalur bihurtzea, eta interes orokorreko obren jasoera egin ondoren, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak ureztaketa abiatzearen deklarazioa eginen du benetan ureztalur bihurtu eta behin betiko eremu ureztagarria osatzen duten finketarako.

2. Terrenoen babes araubidea, ureztaketa abiatzearen deklarazioa egin ondoren, nekazaritza produkzio handiko kategoriari dagokiona izanen da, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko uztailaren 4ko 10/1994 Foru Legeko 32. artikulua agintzen duenaren arabera, martxoaren 16ko 7/1999 Foru Legeak Nafarroako Foru Komunitateko Ureztalurren Plana osatzen duten ekintza eta obren eranskineko eta lege horren garabideko xedapenetako obretarako agintzen dutena ezertan galarazi gabe.

70. artikulua. Obren entrega.

1. Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Departamentuak entregatuko dizkie interes orokorreko obrak beren hartzaileei, behin obren jasoera egin ondoren. Eraldaketen kasuan, ureztaketaren abiatzeak deklaraturata beharko du gainera.

2. Obrak entregatzeko egintza berehala beteaztekoa izanen da eta entregaren ondoriozko betebeharrak guztiak sortuko ditu.

II. KAPITULUA Obra motak

71. artikulua. Sailkapena.

1. Nekazaritza azpiegituretako ekintzen eremuetan egin beharreko obrak bitarikoak dira: interes orokorrekoak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak nahitaez egin beharrak, eta nekazaritza interes pribatuko obrak, interesatuek berek egin beharrak.

2. Interes orokorreko obra Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak nahitaez egin beharreko horiek eremu osoari on eginen diote, ustiatzeaz landarako azpiegitura ekintzak izanen dira eta honako mota hauek izanen dituzte:

1go. Lurzati berrantolamendu guztietan ohi diren obrak, honakoak:

a) Ustiatze berrantolatu ondoren zerbitzu emateko behar diren landa bideak eta beharrezko irizten zaien saneamendu eta hustubideak.

b) Ingurumenaren gaineko Eraginaren Deklarazioan aipatzen diren neurri zuzentzaileen ondo-riozkoak.

c) Aurreko lerroaldean sartu ez baina nekazaritza azpiegituretako ekintzen peko eskualdearen ingurunea hobetzeko beharrezko irizten zaien obrak.

2gn. Ureztalurrak eraldatu eta modernizatze-ko obrak. Honakoak:

a) Sektoreko azpiegitura hidraulikoa: lurzati berrantolamenduko eremu jakin batetik gainez egin eta ureztatze sektore jakin baten oinarritzko azpiegitura osatzen dutenak, haren azpiko hainbat eremu hornitzeko modukoa. Haren barnean daude kaptazioen, bultzatze zentroen, erregulazio obren eta eremuko hodi nagusien obrak.

b) Eremuko azpiegitura hidraulikoa: Sektoreko oinarritzko azpiegituretik elikatzen diren azpiegitura hidraulikoko obrak. Haren barnean daude kaptazioak, bultzatze zentroak, erregulazio obrak eta eremuko hodi nagusiak, betiere baldin aldi berean banaketakoak ez badira.

c) Banaketako azpiegitura hidraulikoa: eremu-ko oinarritzko azpiegiturek jatorri harturik ureztatze unitateen hartuneetaraino ere joaten direnak, esleitu zaien ur-emia banatzeko.

d) Herrilurretako barne banaketa: aurreko letran sartzen ez diren azpiegitura obrak, barne banaketarakoak, instalazioetarako proiektu global batean sarturik egon eta toki entitateen ondasunen gainean edo Nafarroako Toki Administrazioari buruzko foru legeko hamargarren xedapen gehi-

garriak aipatzen dituen instituzioen ondasunen gainean eginak.

e) Lurren sistematizazioa: azaleraren sistematizazioa ureztalurren lurzati berrantolamenduko obretan, betiere baldin gainerako obrekin batera eta aldi berean egiten badira.

3. Nekazaritza interes pribatuko eta interesatuek berek egin beharreko obratzat hartuko dira presiopeko ura lurzatian banatzekoak.

III. KAPITULUA Finantzazioa

72. artikulua. Lurzati berrantolamenduko interes orokorreko obrak.

Lurzati berrantolamendua egiteak sortzen dituen gastuak eta bai foru lege honetako 71.2.1go. artikulua a), b) eta c) idatz-zatietan aipatzen dituen interes orokorreko obrek sortzen dutena ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren kontu egonen dira oso-osorik.

73. artikulua. Eraldatu eta modernizatzeko interes orokorreko obrak.

1. Foru lege honetako 71.2.2gn. artikulua a) idatz-zatian aipatzen dituen obrak, sektoreko azpiegitura hidraulikoari buruzkoak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak finantzatu ditu osorik.

2. Foru lege honetako 71.2.2gn. artikulua b) idatz-zatian aipatzen dituen obrak, eremuko azpiegitura hidraulikoari buruzkoak, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak finantzatu ditu osorik baldin presiopeko ureztalur bihurtzekoak badira, eta bai presiopeko ureztaketa sartzeko modernizatzekoak badira.

Hala ere, obra horiek pisu bidezko sareen bidez proiektatzen badira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ehuneko 85 finantzatu ditu eta interesatuek ehuneko 15.

3. Foru lege honetako 71.2.2gn. artikulua c) idatz-zatian aipatzen dituen obrak, banaketako azpiegitura hidraulikoari buruzkoak, honela finantzatu dira presiopeko ureztaketa sistemak sartzeko eraldaketa eta modernizazioetan: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ehuneko 85 finantzatu du eta hartzaileek gainerako ehuneko 15. Pisu bidezko ureztaketa sartzeko eraldaketa eta modernizazioetan, berriz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ehuneko 70 finantzatu du eta hartzaileek gainerako ehuneko 30.

4. Foru lege honetako 71.2.2gn. artikulua d) idatz-zatian aipatzen dituen obrak, herrilurretako

barne banaketari buruzkoak, finantzatzeko baldintza ezinbestekoa izanen da barne banaketa hori presiopeko sareen bidez egitea, eta hartara, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak gehienez ehuneko 75 finantzatu du eta kasuko toki entitateak edo eite berekoak gainerakoa, gainerako hori teknikaren egoera ikusita finkatzen ahal diren erreferentziako kostuen gainean kalkulatu. Horrez gain, toki entitateak hamabost urtez eutsi beharko dio bere hartan loteen tamainari; ez da zilegi izanen tamaina hori oinarritzko ureztatze azalera baino txikiagoa izatea, eta adjudikaziorako baldintzak foru lege honetako 42.5.b) artikuluan esaten denaren arabera izanen dira. ehuneko 75eko gehienezko dirulaguntza hartzeko baldintzak erregelamendu bidez ezarriko dira.

5. Foru lege honetako 71.2.2gn. artikulua e) idatz-zatian aipatzen dituen obrak, lurren sistematizazioari buruzkoak, honela finantzatu dira pisu bidezko eraldatze eta modernizazioetan: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak ehuneko 70 eta hartzaileek gainerako ehuneko 30.

74. artikulua. Nekazaritza interes pribatuko obrak.

71.3 artikuluan aipatzen diren eta eraldatzeko laguntza hartzaileak berak bere ustiatzean ura lurzatian presiopeko sareen bidez banatzeko egiten dituen obretarako, zilegi izanen da dirulaguntza bat hartzea baina inoiz ez da izanen kostuaren ehuneko 55 baino gehiagokoa eremu defaboratuen kasuan, eta ehuneko 45 baino gehiagokoa gainerako eremuetan.

Osoarako dirulaguntza portzentajea finkatzeko irizpideei dagokienez —erregelamendu bidez zehaztuko baitira—, jarduera nagusiko nekazaria izatea izanen da baldintza nagusia, ondoren, nekazari gaztea izatea, prestakuntza teknikoaren maila, eremu eta laboreen arabera ur kontsumoen kontrola, eta foru lege honetan definitzen diren nekazaritza sozietateen kide izatea.

Xedapen gehigarria

Salbu egonen dira Ingurumenaren gaineko Eraginaren Deklarazioa berriz egin beharretik Nafarroako Ubidearen eta haren eremu ureztagarriak eraldatzeko Udalez gaidiko Proiektu Sektorialean sartzten diren nekazaritza azpiegituretako ekintzak (proiektu hori Nafarroako Gobernuak 1999ko ekainaren 7an hartutako erabakiak onetsi zuten), ekintza horiei Ingurumen Ministerioak egin baitzien Ingurumenaren gaineko Eraginaren deklarazioa 1999ko maiatzaren 17an, eta Ingurugiro, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariak 1999ko apirilaren 29an.

Udalez gaidiko Proiektu Sektorial horretan aipatzen diren ekintzetarako ez da beharrezkoa izanen foru lege honetako 9. eta 10. artikuluetan eskatzen den dokumentazioa itxuratu eta tramiteak egitea; zuzenean egingen da foru lege honetako 12. eta hurrengo artikuluek agintzen dutenaren arabera.

Hala ere, foru lege honetako 67. artikulua agintzen duenaren arabera egindako nekazaritza azpiegituretako ekintzak garatzeko behar diren eraikuntza proiektuei buruz Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuak txosten bat egin beharko du, egiaztatzeko haien edukia Ingurumenaren gaineko Eraginaren Deklarazio horretan ezarri diren baldintzak betetzen dituen ala ez.

Xedapen iragankorrak

Lehenbizikoa. Foru lege honek indar hartu baino lehen Foru Dekretu baten bidez onetsi diren lurzati berrantolamenduak eta bestelako nekazaritza azpiegituretako ekintzak, oinarriak onetsita badituzte, lehenengo araudiaren arabera gobernatuko dira aurrerakoan ere. Foru lege honek indar hartu baino lehen Foru Dekretu baten bidez onetsi baina oinarriak onetsita ez dituztenak, berriz, foru lege honen arabera tramitatuko dira aurrerakoan;

ingurumenari buruzko prozedura, ordea, lehenengo legediaren arabera egingen da.

Bigarrena. Zilegi izanen da, Nekazaritza Azpiegituren Erreformari buruzko abenduaren 9ko 18/1994 Foru Legeko lehenbiziko xedapen iragankorrak esku ematen duen bezala, lege horretan aipatzen diren onurak oraindik beretu ez dituzten espedienteak bertako irizpideen arabera eta bera garatu eta aplikatzeko arauen arabera tramitatzen segitzea.

Xedapen indargabetzailea

Indargabetzen dira foru lege honek agintzen duenari kontra egiten dioten xedapen maila bereko nahiz apalagoko guztiak.

Azken xedapenak

Lehenbizikoa. Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari foru lege hau garatu eta aplikatzeko behar diren erregelamendu xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. (KENDUTA).

Hirugarrena. Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, 2002tik 2004rako Nafarroako Enplegu Plana betetzen dela bermatzekoa

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2002ko otsailaren 11n egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artiku-luak aitortzen dion legegintzarako ekimena erabi-liz, Socialistas del Parlamento de Navarra Parlamentuko Taldeak 2002tik 2004rako Nafa-rrako Enplegu Plana betetzen dela bermatzeko Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Biltzarreko Erregelamenduko 108 eta 145. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledu-nen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

Lehena.- 2002tik 2004rako Nafarroako Enple-gu Plana betetzen dela bermatzeko Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Bigarrena.- Aipatu Foru Lege proposamena premiazko prozeduraz bideratzea.

Hirugarrena.- Foru Lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 145. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2002ko otsailaren 13an

Lehendakaria: José Luis Castejón Garrués

2002tik 2004rako Nafarroako Enple-gu Plana betetzen dela bermatzeko Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENA

I.

Iaz, UGT, CCOO eta CEN sindikatuek, batetik, eta Nafarroako Gobernuak, bestetik, adostasuna lortu zuten enpleguaren munduarekin zerikusia duten gaietan. Helburuen, neurrien, programen eta gastu aurreikuspenen multzoak 2002tik

2004rako Enplegu Plana taxutzen dute. Nafarroa-ko Foru Komunitateko ekonomiarentzat eta haren sektore orokorrentzat, baita herritarren bizi baldin-tzetarako ere, guztiz positiboak diren edukiez hor-niturik, Enplegu Plana gizartearen eta enpresen ordezkarien arteko negoziazio kolektiboaren frui-tua eta ordezkari horiek Foru Komunitateko admi-nistrazioa itundutakoa betetzeko konpromisoa har dezan erakutsi duten gaitasunaren emaitza da.

II

Enplegua bultzatzea administrazio publikoek bete beharreko politika bat da. Enplegu mailak sortu eta haiei eustea beharkizun orokorra izan behar da. Europako Batasunaren gizarte ongiza-tearen maila enpleguaren eta langabeziaren ehune-koetan oinarritzen da, eta haien bitartez begira-tzen dio etorkizunari. Denentzako enplegua izatea helburu gisa hartu eta bilatu egiten da.

Enplegu mailek, ordea, ez dituzte bigarren tokian utzi behar konpontzeko dauden arazoak: langabezia handiagoa emakumeen artean, gehie-gizko behin-behinekotasuna, lan baldintzak, lana eskuratzeko prestakuntza, lan istripuak, etab. Hori guztia enplegu planaren betekizuna da.

III

Garapen mailekin norberak atsegin hartzetik etorkizun ekonomikoari aurre egiteko okerreko aholkuak etortzen dira. Caixak berriki 2001. urteari buruz eginiko inkestak (Espainiaren gizarte urte-karia) gaurkotasunaren mahaian jarri ditu lehendik ere sindikatu eta enpresa erakundeentzat kezka iturri ziren gaiak; lan baldintzek 2 puntu jaso dituz-te, 0tik 10era doan eskala baten barrenean.

Tasa hori baxua da, istripu larrien, baja ekar-tzen duten lanbide eritasunen eta behin-behineko zein aldi baterako kontratuen kopuru handia dela-eta.

IV

2002tik 2004rako Nafarroako Enplegu Plana kapitulu orokorretan taxutu da, honakoak biltzeko: Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren eginkizunak, lan gatazkak epaitegitik kanpo bideratzeko organoarenak, planaren beraren jarraipen teknikorako Batzordearenak, prestakuntza eta orientabiderako neurriak, enpleguaren sustapen eta egonkortasunerako neurriak eta laneko arriskuei aurrea hartzeko neurriak.

Emakumearen eta gizatalde behartsuenen inguruko zeharkako programa berariazkoak ere hartzen ditu, gizartean duten garrantzia dela eta. Enplegu planaren kostua 141.754.715 eurokoa da (23.586 milioi pezeta) 2002. urtean, 137.543.724 eurokoa (22.885,35 milioi pezeta) 2003. urtean eta 137.851.141 eurokoa (22.936,5 milioi pezeta) 2004. urtean, hau da, guztira, 417.149.580 euro (69.407,85 milioi pezeta), 2002-2004 urteetarako.

Kapitulu orokor bakoitzean proposatutako neurri eta ekintzen balorazio ekonomikoa egin da eta, berariazko edo zeharkako kapituluetan agerrarazi da kapitulu orokorretatik emakumeei eta gizatalde behartsuei atxikiko zaiena.

Laburpeneko tauletan aldi bakoitzeko kostua aurkeztu da, kapituluz kapitulu emana: prestakuntza eta orientazioa, enpleguaren sustapena, arriskuen prebentzioa, Nafarroako Enplegu Zerbitzua, lan arloko auzitegia eta koordinazioa, planaren ebaluazioa eta jarraipena eta planaren banaketa gizataldeen arabera (emakumeak, gizarteko baztertuak, desgaituak, aldizkako langileak eta etorkinak eta gainerakoak; azken honek gizatalde zehatz bati atxiki ezin dakizkiokeen zenbatekoak biltzen ditu).

V.

Foru lege proposamen honek sindikatuen eta enpresa erakundeen arteko negoziazio kolektiboen autonomia erabatekoari dion begirunea du abiapuntu. Halaber, Nafarroako egoera sozioekonomikoa hobetzen gogoz jardun beharraz UPNren gobernua konbentzitzeko gaitasuna onartzen du.

Aurkezteko arrazoia da bermatzea Nafarroako Gobernuak beteko duela Enplegu Plana 2002, 2003 eta 2004 ekitaldietan, bai Akordioaren testuan ageri diren politikak, ekonomia, industria, enplegu eta gizartearen arlokoak, bai hitzarturiko neurrien finantziario publikoa ahalbidetzeari dagokionez.

Bi kasuetan, kasuan kasuko gobernuaren gora behera politikoez haratago, politikan eta Parlamentuko indarren korrelazioan izaten diren alda-

ketez haratago eta aurrekontu berrien edo luzatutakoen indarraldiaz haratago.

Foru lege proposamen hau onarturik, 2002tik 2004rako Nafarroako Enplegu Planaren edukia betetzea guztiz bermaturik dago, eta Nafarroako Gobernua lotzen du, betetzea pentsatu ala ez. Aurrekontuko lerro egokiak onetsiko direla ziurtatzen du edo, urteko aurrekontu ohikoak onesti ezean, aurrekontuko 65 kreditu berezi onetsiko direla, gobernua beharturik baitago eskatzera eta Parlamentuak horiei sostengua emateko konpromisoa hartua izanen du, lege hau onartu baitu. Parlamentua lotzen du, aldi honetan bete beharreko jarduketaren ondorioz ezin izanen duelako itundutakoa murriztu eta urte askotako indarra izanen duen lege bihurtu.

Hortaz, xedea da akordio sozialari lege kategoria ematea itundutakoa hartuko duen eta egiaz beteko dela bermatzen duen proposamen baten bitartez.

ATARIKO TITULUA

I. KAPITULUA

Politika ekonomikoaren helburuak eta enplegua sortzea

1. artikulua. Enplegu politiken eraginkortasuna lanpostuak sortzean eta lan baliabideen erabilgarritasunean gauzatzen da, sortutako lanpostu kopuruaren bidez, lana duten pertsonen bidez eta lanik ez baina lanerako gogoia baduten horien kopurua murriztuz.

Enplegu planak eragina izanen du, bereziki, lehentasunezko bi arazo hauetan: aldi baterako kontratazioa eta lan istripuen kopuru handia.

2. artikulua. Helburu horiek, planaren garapen eraginkorra islatzen duten beste batzuekin batera, honela neurtuko dira:

1. Enplegu tasa. 2002tik 2004rako Nafarroako Enplegu Planaren indarraldia akitzean % 68,2koa izanen da.

Enplegua duten gizonezkoen tasa % 81,7koa izanen da eta emakumezkoena % 54,4koa.

Lanaren Nazioarteko Erakundeak gomendatu eta Europako Batasunean erabiltzen diren datu estatistikoetan oinarrituriko adierazle eta irizpideen arabera, enplegu plan honen datuek biztanle aktiboei buruzko inkesta lortutakoak dituzte erreferentzia gisa.

Enplegu tasaren definizioa da 16tik 64 urtera bitarteko biztanleetatik lana duten pertsonen ehunekoa, adin tarte horretan diren biztanle guztien

kopuruarekiko. Tasa hori adin eta sexuaren arabera zehaztu daiteke.

2. Langabeziaren tasa, orotara. 2004. urtearen akaberarako % 4ra jaitsiko da.

Langabeziaren tasa, gizonen artean, % 3koa izanen da eta emakumeen artean % 5,8koa. Langabezia tasaren definizioa da langabezian dauden pertsonen ehunekoa (LNEren definizioaren arabera) biztanle aktibo guztien kopuruarekiko. Adin, sexu eta langabeziaren iraupenaren arabera xehatu daitezke datuak.

Bestalde, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak erregistroko langabeziari buruz ematen dituen datuak hilabeterik hilabetera gertatzen diren aldaketak ezagutzeko balio absolutu gisa erabiltzen dira, eta politika aktiboetako neurriak programatzeko oinarri moduan, lana edo beste ekintzaren bat eskatzen duten langabetuak inskribaturik egotea beharrezkoa baita horiek gauzatzeko.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak lan munduan sartzeko moduan dauden eskatzaileei antzemateko sistemak ezarriko ditu, baita lehentasunez erregistratzen direnak bestelako onurak bereganatzeko, prestakuntza ikastaroak, kasu; azken horiei prestakuntza ekintzetan edo bestelakoetan sartzeko aukera emanen zaie, baina adieraziz halaber ez dutela lanean hasteko lehentasunik, enplegu zerbitzuak eraginkorragoak izan daitezen bitartekaritzan aritzeko garaian.

3. Enplegua sortzea. Planaren indarraldian zehar 14.000 lanpostu, gutxienez, sortuko dira.

Horietatik 1.500 lanpostu Nafarroan erroldaturiko gizonetzkoek beteko dituzte, 7.000 lanpostu baino gehiago emakumezkoek eta 5.500 lanpostu kanpoko pertsonen.

Enpleguarekin loturiko adierazle hori osotarako hazkundeari dagokio, lana duten biztanle guztien ehunekoaren urteko aldaketa gisa definiturik.

Azkenik, lan merkatuan alta emanda dauden langileen kopurua ezagutzeko, kontuan hartuko dira hileroko Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra ematen dituen datuak, haren araubideetan afiliaturik dauden pertsonen buruzkoak, eta Gizarte Segurantzakoa ez beste batean afiliatu eta inskribaturik dauden langileei buruzkoa: funtzionarioak, Estatukoak eta Nafarroako Gobernuarenak, –Mufaceri edo Nafarroako Gobernuko montepioari atxikiak–, udal montepioei atxikitako funtzionarioak, arma eta indar armatuetako kideak eta oraindik Gizarte Segurantzaz sarturik ez dauden lanbide elkargoetako kideak.

4. Aldi baterako kontratazioa. Enplegu plan honen helburua da aldi baterako kontratazioak behera egitea, indarraldia akitzean aldi baterako lana duten langileen proportzioa Europako Bata-suneko batez bestekotik hurbilago egon dadin, eta aldi baterako kontratazioa nabarmen jaitsi dadin sektore publikoan zein pribatuan.

5. Lan istripuak. Nafarroan dagoen lan istripuen tasa altua jaitsi egin behar da, eta lortu behar da urte murrizten joatea horren eragina, batez ere sektore kritikoetan, bereziki eraikuntzan. Sinatzaileak ahalegindu behar dira bermatzen osasun eta segurtasun arloetan dauden legeak lantokietan hobeki aplikatu daitezten.

6. Lanerako prestakuntza eta orientazioa. Enplegu planak lortu behar du langabetu bakoitzari, langabezian sei hilabete iragan aurretik, gazteen kasuan eta 12 hilabete helduen kasuan, banaka ematea behar duen lanbide orientazioa eta prestakuntza, haren lanerako aukerak hobetu eta kalifikazioak gaurkotzeko, lanpostu bat lortzeko gaitasuna izan dezan.

7. Enplegurako toki plana. Nafarroan enplegua hobetzeko oso komenigarri irizten zaio enplegurako toki estrategiak garatzeari, helburuak finkatu eta zerbitzuak herritarrengana hurbilduko dituztenak, 10.000 biztanletik gorako herrietan, bederen. Horretarako, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak akordioak izenpetu ahalko ditu agiri honetan ezarritakori jarraikiz enplegurako toki planak prestatzen dituzten udalekin.

8. Energia berriztagarrien arloko prestakuntzarako zentro nazionala. Plan honen indarraldian arlo horretako prestakuntza arautu, lan bidezko eta etengabe aritzeko zentro nazional integrala eraiki eta abian jarri behar da.

9. Etxebizitza soziala. Enplegu plan hau jabe-turik dago Nafarroan etxebizitzaren arazoak enpleguan eta zenbait gizataldetan (gazteak, etorkinak, baztertuak edo baztertuak izateko arriskuan daudenak) dituen ondorio larriez, eta kapitulu honetan bat heldu gara familiarri laguntzeko planean ageri denarekin, eta azpimarratu nahi dugu etorkinek dituzten etxebizitza premia bereziak eta herri zaharrak eta alde andeatuak berreskuratu beharra.

Horretarako eta abiapuntu gisa, toki eta autonomia administrazioek eskura dituen lege tresnez baliatuko da gizartean dagoen etxebizitza eskarri erantzuteko behar adinako lurzorua bermatzeko.

10. Lan denbora murriztea eta berrantolatzea. Enplegu plan berri honen sinatzaileok konpromi-

soa hartzen dute formula berekiak edo lehendik gauzatuak beste batzuk bilatu eta adostuko dituztela, bide eman dezaten, negoziazio kolektiboaren bitartez, aparteko orduak kentzeko prozesuarekin aurrera egiteko, errelebu kontratuak edo lanaldiaren murrizketa eta berrantolaketa, lanpostu berriak sortzea lortzeko formulak izan daitezzen.

Era berean, lan denbora berrantolatzeko ekimen berriak bultzatuko dira, "denbora txekea" delakoa edo antzekoak, dagoeneko Frantzia edo Alemanian ezartzen hasi direnak.

I. TITULUA Jarduketa eremuak

I. KAPITULUA Nafarroako enplegu zerbitzua

3. artikulua. Nafarroako Enplegu Zerbitzua funtsezko tresna Nafarroako Foru Komunitatean, langileen lan aukerak hobetzeko, enplegua sortzeko, lan eskaintza eta eskaeretan bitartekaritza aritzeko eta, oro har, enpleguarekin zerikusia duten ekintza guztietan.

4. artikulua. 2002tik 2004rako Nafarroako Enplegu Planaren sinatzaileek Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Zuzendaritza Kontseilua osatzen dute eta planeko neurrien sustatzaileak eta abiarazleak dira.

5. artikulua. Lege honen gainerako kapituluetan aurreikusitako ekintzez gain, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak esleiturik dauzka haren jar-

dunbide egokirako behar dituen kontusailak ere; nagusiak, hauexek:

– Enpleguaren behatokia, Nafarroako Lanbide heziketako Kontseilurako ere arituko da bere egin-kizunetan.

– Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren ekintzei buruzko informazioa, eta haien sustapena eta zabalkundea.

– Teknologia berrietara egokitzea, datu baseak hobetzea eta administrazio publikoekin, gobernu batzordeko kide diren erakundeekin eta enplegurako zentro integralekin unean-unean jartzea harremanetan.

– Programa berriak hasi, ikertu eta sostengu teknikoa emateko kanpoko laguntza teknikoaren beharra.

– Europako Batasunaren ekimenak

– Energia berriztagarrietako prestakuntzarako zentro nazionala.

6. artikulua. Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren jarduna lan arloko bitartekaritzako politika aktiboa oinarritu behar da, lan merkatuan etengabe egonik, bai langileen prestakuntza eta orientazioan, bai Nafarroaren ekoizpen garapenerako behar den esku lanaren bilaketa aktiboan, bere bitartekoz baliatuz edo enplegurako zentro integralekin lankidetzan.

7. artikulua. Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren aurrekontuaren barrenean, jarduketa orokorrak daude, kasuan-kasuan zenbateko hauekin:

NAFARROAKO ENPLEGU ZERBITZUA	2002	2003	2004	GUZTIRA
Laguntza teknikoa eta sustapena (Euroak, milakotan)	97,96	97,96	97,96	293,89
Sentsibilizazioa eta jardunaldiak antolatzea (Euroak, milakotan)	60,10	60,10	60,10	180,30
Enpleguaren behatokia (Euroak, milakotan)	450,76	450,76	450,76	1.352,28
Energia berriztagarrien zentroa (Euroak, milakotan)	4.808,10	300,51	300,51	5.409,11
Equal, komunitatearen ekimenak (Euroak, milakotan)	2.650,46	2.650,46	2.650,46	7.951,39
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	8.067,38	3.559,79	3.559,79	15.186,97
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	1.342,30	592,30	592,30	2.526,90

II. KAPITULUA**Lan gatazkak epaitegitik kanpo bideratzea**

8. artikulua. Lan harremanetarako Nafarroako sektorearteko akordioak, 1995ean sinatuak, lan gatazkak bideratzeko epaitegitik kanpoko organo bat sortu zuen. Horren ondorioz, akordioaren sinatzaileek, Nafarroako Enpresaburuen Elkarteak eta Unión General de Trabajadores eta Comisiones Obreras sindikatuek lan gatazkak bideratzeko

auzitegia, Nafarroako Lan Auzitegia izenarekin ezagunagoa, ezarri zuten 1996an.

Urte hauetan zehar eraginkorra dela frogatu du eta Foru Komunitateko lan harremanak hobetzeko organo funtsezkoa bilakatu da.

Lan auzitegiari sostengu ematen jarraitzea beharrezkoa denez, aurrekontu hau izanen du jarduteko:

LAN AUZITEGIA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	661,11	673,13	694,17	2.028,42
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	110,00	112,00	115,50	337,50

III. KAPITULUA**Koordinazioa, ebaluazioa eta jarraipena**

9. artikulua. Lege honen helburu eta edukien koordinazioa eta ebaluazioa Lan Zuzendaritza Nagusiaren ardura izanen da eta horren berri emanen dio Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Zuzendaritza Kontseiluari. Horretarako, lortzen diren emaitzak eta planaren betetze maila kantitatez eta kalitatez baloratzeko behar diren adierazleak zein diren ezarriko da.

10. artikulua. Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Zuzendaritza kontseiluak jarraipen teknikora-

ko batzorde bat eratuko du planaren ezagutza eta ebaluazioa ahal den eraginkorrena eta sakonena izan dadin. Batzorde horrek plana egokiro gauzatzeko beharrezkotzat jotzen dituen aldaketak proposatu ahalko ditu, eta halaber bidezko ekimenak sustatu ere, Nafarroako Gobernuak neurriak har ditzan enpleguari lotutako zerga pizgarrien arloan.

11. artikulua. Horretarako, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Zuzendaritza Kontseiluak mugatu egingen ditu jarraipen teknikorako batzorde horren eginkizunak eta bete beharrekoak, eta horiek betetzeko behar adina bitarteko ekonomikoez hornituko du.

JARRAIPEN TEKNIKORAKO BATZORDEA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	60,10	61,90	63,71	185,71
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	10,00	10,30	10,60	30,90

IV. KAPITULUA**Prestakuntza eta orientazioa****12. artikulua.** Xedeak

1. 2002ko irailaren 1a baino lehenago, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak proposamen arrazoitua eta oinarri egina egingen dio Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluari, biak ala biak ados jartzeko xede komunak batera gaurkotu eta planifikatzeko programa batzuei begira, enplegua eta lanbide heziketa elkarlotzeko. Horrez gain, honako hauek lortzeko helburuak koordinatuko dira: hiru azpi-sistemak integratzea, etengabeko prestakuntzaren balidazio akademikoaren esperientziei ekitea eta batera eginiko azterketa lanak eta

azterlanak egitea sektoreka, betiere Lanbide Heziketa berriaren premien arabera.

2. Lanerako prestakuntzaz eta etengabekoaz denaz bezainbatean, berriz, 2002-2004rako enplegu planak helburu hauek ezarri ditu:

1) Langileen eta langabetuen lan aukerak hobetzea lanerako prestakuntzaren bitartez, laneratzeko lortu arte; eta lana dutenenak etengabeko prestakuntzaren bitartez, modu iraunkor eta integralean, kasuan kasuko lanbide familiar prestakuntzako kualifikazio altuena eskuratu arte.

2) Enpresen produktibitatea eta lehiakortasuna hobetzea. Aurrekoaren ondorioz, logikoa da

enpresa bat lehiakorragoa izatea eta produktibitate handiagoa edukitzea haren langileak etengabe prestatzen eta haien ezaguerak gaurkotzen eta osatzen baldin badira.

3) Langileen bizitza sozialaren baldintzak hobetzea. Herritartasun aktiboa bultzatzea zenbait alderdiri begira: bizitza ekonomiko eta sozialaren maila guztietan parte hartzeko aukera eta modua, hala egiten saiatzeak dakartzan aukerak eta arriskuak eta horrek norbera bizi den gizarteko kide izateko sentimenduari eta bertan botoz eta hitzez aktiboki parte hartzeari egiten dion ekarpena.

13. artikulua. Lanerako prestakuntza sendotzea.

1. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak prestakuntza eskaintza planifikatzea.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak ekitaldi bakoitzeko prestakuntza eskaintzaren programazioa egiten du, irizpide hauekin:

1. Prestakuntza eskaintza lan merkatuaren beharretara egokitzea.

2. Lanpostu horiei dagozkien prestakuntza ibilbideak ezarri eta ikastaroak taxutzea, lanbide familietan oinarriturik.

3. Ekitaldi bakoitzari dagokion prestakuntza eskaintza planifikatzea.

4. Enplegua eskatzen dutenei orientabideak ematea eta ados jartzea haiekin lan merkatuan sartzeko behar duten prestakuntzari buruz.

2. Lanerako prestakuntza ekintzak sendotzea

Lanerako prestakuntzak beti jo beharko du prestakuntza integralerantz, lanbide familia zehatz baten barrenean ahal den eta osatuena, kontuan harturik, betiere, eskaintzen diren lanpostu askotan balorazio handi samarra ematen zaiola balio anitzekoa izateari, une hauetan, bereziki, eskaeraren funtsean "egiten jakitea" bezain garrantzitsua dela "izaten jakitea".

Horretarako hauxe egin beharko da:

– Lanbide familia bat osatzen duten mailaz mailako ikastaroen kopuru zehatz eta itxia ezartzea.

– Enplegurako aukerarik ia bat ere ez duten sektoreetako lanbide familietan ikastaroen kopurua jaistea.

– enplegu proiektio handiagoa duten sektore ekonomikoetako familietan ikastaroen kopurua handitzea, besteak beste, informazio eta komunikazio teknologia berriak, energia berriztagarriak eta hurbilketa eta turismo zerbitzuak.

Familia bakoitzean laneko arriskuen prebentzioari, aukera berdintasunari eta ingurumenari buruzko gaiak eman beharko dira. Era berean, komenigarria da lanbide familia osoak edukitzea hizkuntzetako oinarritzko maila bat, etorkizunean bete beharreko lanpostuarekin zerikusia daukana, eta informatika eta interneteko oinarritzko maila bat.

Oinarritzko ikasketarik ez duten langabetuentzat, berriz, prestakuntza ikastaroetan oinarritzko hezkuntza orokorra osatzeko modulu bat sartu beharko da.

Lantegi-eskolak, enplegu eskolak, lanbide etxeak eta lanerako prestakuntzako lantegiak bultzatzen jarraituko da. Unibertsitateko eta goi mailako lanbide heziketako tituludun batzuek beren prestakuntza osatu beharko dute laneratu ahal izateko. Horientzat komenigarria da lanerako prestakuntza bideratzea lanbideen arteko zeharkakotasuna eta beste lanbide batzuetan sartzeko espezializazioa bultzatuko duten ikastaroen bidez.

Halaber, lanerako prestakuntza sendotzeko neurri hori osatzeko eta arauturiko zein lanerako prestakuntza prozesuetako bakoitzaren zikloa ixteko helburuarekin, ikasle guztiak laneratzeko, honakoak sustatuko dira enpresetan: lana emateko konpromisoa duten prestakuntza programak, lanekoak ez diren praktikak, prestakuntza kontratuak lanerako prestakuntza ikastaroak egin dituzten eta prestakuntza arautuko titulurik ez duten langabetuentzat eta praktiketako kontratuak lanbide heziketako edo unibertsitateko titulua duten langabetuentzat.

14. artikulua. Lanerako prestakuntzarako diru hau erabiliko da:

LANERAKO PRESTAKUNTZA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	8.450,740	8.450,740	8.450,740	25.352,220
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	1.406,085	1.406,085	1.406,085	4.218,255

Etorkinentzat berariaz erabiltzen dena kontuan harturik, banaketa hauxe izanen da:

GIZATALDEAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Emakumeak (Miles euros.)	5.477,89	5.477,89	5.477,89	16.433,68
Ezgaituak (Euroak, milakotan)	180,30	180,30	180,30	540,91
Drogazaleak, presoak (Euroak, milakotan)	96,16	96,16	96,16	288,49
Langabezian aspalditik (Euroak, milakotan)	96,16	96,16	96,16	288,49
Graduatu ondokoa dutenak (Euroak, milakotan)	156,26	156,26	156,26	468,79
Lana emateko konpromisoa dakarten ikastaroak (Euroak, milakotan)	72,12	72,12	72,12	216,36
Etorkinak (Euroak, milakotan)	715,2	715,2	715,2	2.145,61
Gainerakoak (Euroak, milakotan)	2.371,83	2.371,83	2.371,83	7.115,49
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	9.165,95	9.165,95	9.165,95	27.497,84
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	1.525,085	1.525,085	1.525,085	4.575,255

15. artikulua. Etengabeko prestakuntzaren sustapen estrategikoa

Etengabeko prestakuntzaren sustapen estrategikoaren oinarriak hauek izanen dira:

– Prestakuntzarako akordioak enpresa bakoitzaren barrenean eta haien langileentzat.

– Sektorearteko ikastaroak, langileari bere ikasketa prozesua banaka eta bere kasa kudeatzeko aukera ematen diotenak, eta bere asmoak, lanekoak zein pertsonalak, ahal bada bere lanbide familiaren barrenean, denboran zehazteko bide ematen diotenak.

– Kalitatearen berrikuntzarako berregokitzeko ikastaroak, informazio eta komunikazioko teknologia berriei buruzkoak, egungo lan sistema eta metodoei buruzkoak.

– Lan merkatutik kanpo gelditzeko arriskua duten langile zaharrentzako etengabeko prestakuntza.

– Aurretiko erretiroak erabiltzen diren ekoizpen sektoreetako langileentzako prestakuntza ikastaroak.

Beharrezkoa da lanerako prestakuntzan hasitako ibilbideari jarraipena ematea edo, behar izanez gero, hastea, profesionaltasunaren egiaztageria lortu ahal izateko.

Lanbide heziketarako ezarri den osagarritasun ildo orokorrarekin bat, komenigarria da lanbide familia bakoitzean, lanerakoan edo etengabekoan, eta ahal bada azken horretan, kontuan hartuta ikastaroak laburrak direla, istripuen prebentzioari, aukera berdintasunari, ingurumenari, hizkuntzei eta informatikari buruzko prestakuntza sartzea.

Gizarte eta ekonomia eragileen presentzia ezinbestekoa da prestakuntzaren diseinuan, kudeaketan eta eraginkortasunaren kontrolean sektore pribatuan, INAFRE fundazioaren bidez gauzatzen da presentzia hori, horixe baita Nafarroan enpresaburuek eta ordezkariak handieneko sindikatuek eraturako tresna.

16. artikulua.

1. INAFREk kudeaturiko prestakuntza etengabeko diru hau erabiliko da:

INAFRE	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	6.010,12	6.160,37	6.310,63	18.481,12
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	1.000,00	1.025,00	1.050,00	3.075,00

2. Langile publikoen etengabeko prestakuntzarako diru hau erabiliko da:

LANGILE PUBLIKOEN E.P.	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	1.476,57	1.476,57	1.476,57	4.429,70
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	245,68	245,68	245,68	737,04

17. artikulua. Etorkinentzako prestakuntzako programa berariazkoak

Bazterte arriskuan dauden zenbait gizataldek Nafarroako Gobernuaren prestakuntzako ekintza berariazkoak jasotzen dituzte. Horrez gain, gaur egun kontuan hartu behar dira lanbide heziketa arautua uzten dutenak eta etorkinak.

Horientzat guztientzat prestakuntza berariazkoa programatuko da, zeinean bateratuko baitira

derrigorrezko irakaskuntza –horrelakorik ez dutenentzat– eta gizarte eta lan prestakuntza, gaztelania eta Nafarroako ohiturak eta historia barne, atzeritarrentzat bereziki, ikasketei garrantzi handiagoa ematen dieten prestakuntza eredu “normalizatueta” gertatzen den porrota nolabait hautsi egingen duten prestakuntza metodologia berariazkoak erabiliz.

18. artikulua. Berariazko prestakuntza horretarako diru hau erabiliko da:

ETORKINENTZAKO PRESTAKUNTZA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	715,20	715,20	715,20	2.145,61
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	119,00	119,00	119,00	357,00

19. artikulua. Prestakuntza eta enplegurako programa mistoak.

Prestakuntza eta enplegurako programa nabarmenenak hauexek dira:

1. Lantegi eskola eta lanbide etxeak:

Hogeita bost urtetik beherako langabetu gazteak laneratzea dute helburu, horiek kualifikatuz eta onura publikoko edo guztien intereseko jardueretan jardunaraziz, aldizka batean zein bestean, parte hartzaileei laneratzeko bideak emateko profesionalizazioaren eta esperientziaren bitartez.

2. Enplegu lantegiak:

Horien helburua da 25 urte edo gehiagoko langabetuen lan aukerak hobetzea, ondoren lan merkatuan sartzen laguntzeko.

Enplegu lantegietan parte hartzen dutenek behar den prestakuntza, bai lanbidearena bai lan jardunarena, onura publikoko edo gizartearen intereseko zerbitzuak eginez hartuko dute, parte hartzaileak geroago laneratu ahal izateko, besteren konturako lanetan edo enpresa edo ekonomia sozialeko proiektuak sortuz.

3. Lanerako prestakuntza lantegiak.

25 urtetik beherako gazteentzat, profesionalak prestatzeko sektoreen premia berariazko eta unean-unekoen arabera.

20. artikulua.

1. Prestakuntza-enplegu programa mistoetarako diru hau erabiliko da:

PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUKO PROGRAMA MISTOAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	3.948,65	3.948,65	3.948,65	11.845,95
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	657,00	657,00	657,00	1.971,00

2. Baliabideak honela banatuko dira gizatalde-
en artean:

GIZATALDEAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Emakumeak (Miles euros.)	1.066,80	1.066,80	1.066,80	3.200,39
Gainerakoak (Euroak, milakotan)	2.881,85	2.881,85	2.881,85	8.645,56
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	3.948,65	3.948,65	3.948,65	11.845,95
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	657,00	657,00	657,00	1.971,00

21. artikulua.

PRESTAKUNTZARI BURUZKO LABURPENEA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Lanerakoa (Euroak, milakotan)	9.165,950	9.165,950	9.165,950	27.497,840
Etengabekoa, sektore pribatuan INAFRE (Euroak, milakotan)	6.010,120	6.160,370	6.310,630	18.481,120
Etengabekoa, sektore publikoan (Euroak, milakotan)	1.476,570	1.476,570	1.476,570	4.429,700
Prestakuntza-enplegua programa mistoak (Euroak, milakotan)	3.948,650	3.948,650	3.948,650	11.845,950
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	20.601,280	20.751,540	20.901,790	62.254,610
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	3.427,765	3.452,765	3.477,765	10.358,295

22. artikulua. Orientazioa.

Langabetuen laneratzea lortzeko, banakako
informazioa eta orientazioa emanen zaie. Horretara-
rako diru hau erabiliko da:

ORIENTAZIOA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	1.517,56	1.555,42	1.594,49	4.667,46
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	252,50	258,80	265,30	776,60

Gizataldeen arabera:

GIZATALDEAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Emakumeak (Miles euros.)	955,61	979,65	1.004,29	2.939,55
Gainerakoak (Euroak, milakotan)	561,95	575,77	590,19	1.727,91
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	1.517,56	1.555,42	1.594,49	4.667,46
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	252,50	258,80	265,30	776,60

V. KAPITULUA Enpleguaren sustapena

23. artikulua. Gazte tituludunentzako praktike-tako enpleguaren sustapena

Gazteentzat garrantzi handikoa lan merkatuan lehen aldiz sartu eta aurrerago eskatuko zaien esperientzia bereganatzea. Hori dela eta, lehentasuna eman behar zaio aurreneko kontratazio horiek, prestakuntzari begira ezarririk dauden kontratu moten bidez, egitea sustatzeari.

Era berean, lanbide heziketaren ikusmolde berriaren arabera, enpresako praktikak, bitariko prestakuntza sistemak eta antzekoak bultzatuko dira.

Ildo horretan, onuragarria izan daiteke aldi baterako lanaz baliatzea, betiere lanpostu horiek aldi baterako kontratua akitu baino lehen mugagabe bihurtzeko konpromisoa.

Zerbitzuen sektoreak eskain dezakeen enplegua mugiarazi beharra dago, batez ere teknologia berriak, hurbiltasuneko zerbitzuak eta, oro har, enplegurako mota eta aukera berriak.

Aurreko guztian funtsezko zeregina beteko du Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren orientazioa, prestakuntza eta bitartekaritza, enplegu zentro integralen laguntzarekin. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak jarraipen egokia egingen du eta kontratu mota horiek behar bezala erabiltzen direla zainduko du.

24. artikulua.

GAZTE TITULUDUNEN PRAKTIKAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	2.494,20	2.494,20	2.494,20	7.482,60
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	415,00	415,00	415,00	1.245,00

25. artikulua. Emakumezkoen enpleguaren sustapena

Aurreko atalean emakumezko gazteen enplegua sartu da, eta honetan, berriz gure kezka emakumeena, oro har, izanen da, langabezian aspalditik dauden emakumeena eta lan merkatuan aurrenekoz edo aldi batean lanik egin gabe egon ondoren sartu nahi dutenena.

Familia eta lan bizitza bateragarri egiteko, emakumeak lan merkatuan jarraitzearen aldeko neurriak abiaraziko dira, plan honetan, emakumea eta enplegua gaiari buruzko atalean adierazi bezala.

Aitortu beharra dago emakume horietako askok, hasteko, beren prestakuntza merkatuaren eskaeretara egokitzeko premia dutela eta zaila dela hasieratik eskuratzea kalitatezko lanpostu egonkorra. Hori dela eta, kontratazio mota des-

berdinak bateratu beharko dira enplegua egonkorra izan dadin erraztu eta bultzatzeko.

Esperimentu gisa proposa liteke dauden kontratu mota desberdinak bi urte baino gehiago langabezian egondako emakumezkoen edo aurreneko lanpostuaren bila ari diren eta langabezian hamabi hilabete baino gehiago eman dutenen artean sustatzea, gogoan izanik beti egonkortasuna.

Aurreko gizataldearen kasuan bezala, Nafarroako Enpleguaren Zerbitzuak orientazio, hasierako prestakuntza, kalifikazioa berritu eta lan bitartekaritzako neurriak ezarriko ditu, enplegu zentro integralen laguntzarekin.

Halaber, zerbitzuen sektoreak, hurbiltasuneko zerbitzuek eta oro har, enplegurako mota eta aukera berriek eskaintzen dituen lan aukerak mugiarazi beharko dira.

26. artikulua.

FAMILIA ETA LAN BIZITZA BATERAGARRI EGITEA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	570,96	631,01	691,16	1.893,19
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	95,00	105,00	115,00	315,00

27. artikulua.

LAGUNTZA NEURRIAK HURBILTASUNeko ZERBITZUETAN	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	300,51	300,51	300,51	901,52
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	50,00	50,00	50,00	150,00

INBERTSIOAK ETA LAGUNTZAK AUKERA BERDINTASUNERAKO	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	480,81	485,02	489,82	1.455,65
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	80,00	80,70	81,50	242,20

28. artikulua. Gizatalde behartsuentzako enpleguaren sustapena.

Gizatalde behartsuen, besteak beste, gizarte

bazterkeria jasateko arriskua dutenen, ezgaituen, sasoikako langileen, etorkinen eta abarren lan kontratazioa bultzatu beharra dago; horretarako diru hau erabiliko da:

GIZATALDE BEHARTSUENENTZAKO SUSTAPENA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Ezgaituen kontratazioa (Euroak, milakotan)	661,11	661,11	661,11	1.983,34
Lanpostuak egokitzea (Euroak, milakotan)	180,30	180,30	180,30	540,91
Berriz laneratzea (Euroak, milakotan)	601,01	601,01	601,01	1.803,04
Berriz laneratzeko zentroetarako inbertsioak (Euroak, milakotan)	390,66	390,66	390,66	1.171,97
Enplegurako zentro bereziak (Euroak, milakotan)	6.761,39	6.761,39	6.761,39	20.284,16
Zentro berezietarako inbertsioak (Euroak, milakotan)	1.352,28	1.352,28	1.352,28	4.056,83
Sasoikako langileak (Euroak, milakotan)	408,69	408,69	408,69	1.226,06
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	10.355,44	10.355,44	10.355,44	31.066,32
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	1.723,00	1.723,00	1.723,00	5.169,00

29. artikulua. Kontratazioaren egonkortasuna hobetzea

Mota askotako arrazoiek eragiten dute lanpostuak aldi baterako izatea, eta langileen kalterako; baita finean enpresaburuen kalterako ere, kontratua amaitzen zaien langileen prestakuntza baliabideak eta esperientzia galtzen baitituzte.

Hori dela eta, kontratazio mugagabea erabiltzea sustatzen duten neurriak hartu beharko dira.

Konponbideetako asko sektore eta enpresa mailako lan itunetatik sortuko dira, bai aldi baterako kontratazioari eusteko neurrien bitartez bai lanaldiaren inguruko modu malguak kontsentsuatu, Europako Batasunak eginiko gomendioa, enpresetan barne malgutasunarekin batera enple-

guko kontratu segurtasuna ere lortzekoa, alegia, gauzatu ahal izateko.

Komenigarria da erretiro aurreraturako eskubide berriaz baliatzeko aukera sustatu eta erraztea eta, horrela, plantillak lanpostu egonkorrekin berri-tu.

Administrazio publikoek beren plantilletako aldi baterako lanpostuen kopurua jaitsi beharko dute Europako Batasuneko mailekin bat egiteko bidean, hutsik dauden lanpostuak lan eskaintza publikoaren bidez deituz.

30. artikulua.

Nafarroako Gobernuak zenbait neurriren bidez sustatuko du kontratazio egonkorra, eta horretarako diru hau erabiliko du:

KONTRATAZIO EGONKORRAREN SUSTAPENA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zerga kenkariak (Euroak, milakotan)	16.315,67	16.315,67	16.315,67	48.947,01
Inbertsiorako eta lanpostuak sortzeko laguntzak (Euroak, milakotan)	52.492,40	52.492,40	52.492,40	157.477,19
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	68.808,07	68.808,07	68.808,07	206.424,22
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	11.448,70	11.448,70	11.448,70	34.346,10

Inbertsiorako eta lanpostuak sortzeko aurreikusiriko laguntzak aurreko ekitaldietara aurreratu ahal izanen dira aurrekontuek eta jarduteko aukek horretarako bide ematen duten neurrian.

VI. KAPITULUA

Autonomoak eta ekonomia sozialeko enpresak

31. artikulua. Autonomoak.

Enpresa jarduerari ekiten laguntzeko, autoenpleguko proiektuak abiarazteak dituen alderdi korapilatsuenei arreta berezia emanik, honako zerbitzu hauek emanen dira:

1) Autoenpleguari buruzko informazioa, enpresa bat sortzeko fase guztiak hartzen dituena, hasierako ideiatik abian jarri arte.

2) Orientazioa, merkatuak eskaintzen dituen aukeren arabera. Egun edo etorkizunean proiektzioa duten asegabeko jardueretan hasteko laguntza emanen da, bereziki turismoarekin, etxeko zerbitzuekin, aisiarekin eta teknologia berrieekin lotutakoak.

3) Prestakuntza. Ekintzaile berrientzako jarduerak, enpresa jardun bati ekiteko oinarriko edukia eskura ditzaten eta jardunean zehar pres-

takuntza zikloak amaitzen joan daitezten lagunduko dieten prestakuntza neurriak hartzeko.

4) Enpresak sortzeko aholkularitza. Enpresa planak eta bideragarritasun azterlanak egiteko laguntza.

5) Enpresa proiektu sortu berrietarako konpainia eta laguntza tekniko aldi baterako.

6) Enpresa proiektuen finantziarioa. Finantza sostenguko neurriak hartuko dira, finantzabideak eskuratzen laguntzeko –esate baterako, mikrokredituak edo bestelako finantza bitartekoak– edo hobetzeko maileguren finantza kostuak eta merkatu baldintzak.

Ekintza horiek hauen bitartez gauzatuko dira: Nafarroako Enplegu Zerbitzua, CEIN, enpleguko zentro integralak, toki enplegu eta garapeneko eragileak eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin itunak egiten dituzten entitateak.

Sostengu ekintza guzti horiek aintzat hartu beharko dute genero, adin eta kokalekuen aniztasuna.

32. artikulua. Finantza dirulaguntzetarako, inbertsiorako laguntzetarako eta biziraupeneko errentarako diru hau erabiliko da:

AUTOENPLEGUA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	1.081,82	1.081,82	1.081,82	3.245,47
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	180,00	180,00	180,00	540,00

33. artikulua. Informazio, prestakuntza eta aholkularitzako ekintzetarako:

AUTOENPLEGURAKO INFORMAZIOA, PRESTAKUNTZA ETA AHOLKULARITZA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	389,92	389,92	389,92	1.169,76
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	64,877	64,877	64,877	194,631

Eta enpresak sortzeko aurrekontua hauxe da:

ENPRESAK SORTZEKO SOSTENGUA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	1.106,340	1.106,340	1.106,340	3.319,010
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	184,079	184,079	184,079	552,237

34. artikulua. Ekonomia sozialeko enpresak

Jarduketa ildoak langabezian dauden langileak kooperatibetan eta lan sozietateetan bazkide gisa sartzen laguntzera bideratuta egonen dira.

Autoenpleguaren kasuan bezala, honakoetan gauzatuko dira: informazioa, orientazioa, bazkide-

en eta kudeaketa taldeen prestakuntza, aholkularitza, enpresa proiektuak abiarazteko laguntza, eta proiektuak finantzaziorako finantza sostenguko neurrien aplikazioa.

Horretarako diru hau erabiliko da:

EKONOMIA SOZIALA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	1.652,78	1.652,78	1.652,78	4.958,35
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	275,00	275,00	275,00	825,00

EKONOMIA SOZIALA (MANTENTZEA)	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	216,36	216,36	216,36	649,09
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	36,00	36,00	36,00	108,00

VII. KAPITULUA
Kontratazioaren sustapena eta
enpresa jarduerak betetzea

35. artikulua. Toki garapena eta zabaltzen ari diren jarduera ekonomikoak

Toki ingurunean lanpostuak sortzea bultzatzeko honako ekintza hauek daude antolatuturik:

– Merkatu azterlanak eta toki sustapeneko kanpainak.

– Enplegu eta toki garapeneko eragileen kontratazioa.

– Ekimen berritzaileetarako sostengua.

Ekintza horietarako diru hau erabiliko da:

TOKI GARAPENAREN SUSTAPENA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	1.442,43	1.442,43	1.442,43	4.327,29
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	240,00	240,00	240,00	720,00

Europako Batzordeak, Europako hainbat herri-tan betetako ekimenetan oinarriturik, lanpostuak sor litzaketzen zenbait jarduera eremu identifikatu zituen (enplegu sorgune berriak).

Zabaltzen ari diren jarduera ekonomikoetan eta garapen eta enplegurako toki ekimenetan sustaturiko enpleguari sostengua emateko diru hau erabiliko da:

ENPLEGU SORGUNE BERRIAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	901,52	901,52	901,52	2.704,55
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	150,00	150,00	150,00	450,00

36. artikulua. Toki eta erakunde esparruetako kontratazioak

Lanpostua eskuratzeko zailtasun handienak

dituzten langabetuen taldeetarako, bereziki esperimentziaz gabeko gazte kualifikatuentzat, ezgaituentzat, emakumeentzat eta langabezia aspal-ditik daudenentzat.

INTERES OROKORREKO SOZIALEKO OBRAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	3.786,38	3.786,38	3.786,38	11.359,13
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	630,00	630,00	630,00	1.890,00

37. artikulua. Enpresa txiki eta ertainetarako laguntza

Enpresa txiki eta ertainek lanpostuak sortzeko gaitasunaren portzentaje handia hartzen dute.

Neurriak antolatu behar dira egoera horrek bere horretan irauteko, eta horrekin batera ekin-tzaile berriak sartzea erraztu.

Bete beharreko helburuak hauexek dira:

- Enpresa txiki eta ertainek finantziarioa eskuratzeko aukera hobetzea.
- Enpresen lehiakortasuna garatzea.
- Finantzabideak eskuratzeko.

Horretarako, diru hau erabiliko da:

MAILEGUAK ETA LEASING-A	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	721,21	721,21	721,21	2.163,64
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	120,00	120,00	120,00	360,00

FINANTZABIDEAK ETA KORRITUEN HOBARIAK ESKURATZEA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	3.005,06	3.005,06	3.005,06	9.015,18
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	500,00	500,00	500,00	1.500,00

38. artikulua. Enpresa garapena.

Enpresa garapena bultzatzeko diru hau erabiliko da:

ENPRESA GARAPENA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	10.751,51	10.751,51	10.751,51	32.254,52
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	1.788,90	1.788,90	1.788,90	5.366,70

AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA TEKNIKOA (CEIN)	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	173,566	173,566	173,566	520,698
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	28,879	28,879	28,879	86,637

VII. KAPITULUA

Laneko arriskuen prebentzioa

39. artikulua. Nafarroan laneko istripuen kopuruaren larriak neurri selektiboak eskatzen ditu, kopuru horren jaitsiera, lehentasunezko helburua izanik, lortzen lagundu dezaten, beste zenbait zereginekin batera: jomuga programa sakondu eta hedatzea, prebentzioaren arloan inbertsio zehatz batzuk errazteko neurri ekonomikoak ezartzea, eta eragile ekonomiko eta sozialen jarduketak enpresaren eremuan eta Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen barrenean. Arestan aipatutako helburua erdiesteko lau estrategia garatu beharra ezarri da:

40. artikulua. Prebentzioaren arloko prestakuntzarako programa.

Prebentzioaren arloko prestakuntzarako plan global bat taxutu eta antolatuko da, kontuan hartuko dituen, zeharka, ekoizpen sistemaren prestakuntza beharrak edo gabeziak.

Lan Osasuneko Prestakuntza Zentroa sortuko da, jarduketa ildo hauekin:

- Langileen prebentzio arloko prestakuntzari erantzuna ematea, ekoizpen sektore edo arlo batzuetan edo/eta lanpostu batzuetarako.

- Prebentzio lanetan aritzen diren langileak gaitzea, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legean eta hura garatzeko erregelamenduetan araututakoarekin bat.

- Sei langile baino gutxiagoko enpresak dituzten enpresaburuei prestakuntza ematea, beraiek har dezaten bere gain, zuzenean, prebentzio lana.

- Langileen ordezkariak prestatzea, bereziki prebentzio delegatuak.

- Langileak, enpresaburuak eta gizartea, oro har, sensibilizatu eta prestatzea lan eremuan drogamenpekotasunei aurrea hartzearen inguruan.

- Zentro hori Nafarroako Enplegu Zerbitzuan kokatuko da, Nafarroako Lan Osasuneko Institutuaren aholkularitza teknikoarekin. Haren jardunbidea irakatsi beharreko gaien eta ikastaroak emateaz arduratuko diren entitateen kontratazioaren planifikazio, kontrol eta koordinaziorako gutxieneko egitura batean oinarrituko da.

Parlamentuko lan istripuak aztertzeke Batzordearen gomendioarekin bat, erabaki zen sortzea Foru Komunitateko Laneko Arriskuen Prebentziarako delegatuaren figura, Nafarroako Lan osasuneko Batzorde Mistoan, 2001eko maiatzaren 31n Nafarroako Lan harremanetarako sektoreen arteko akordioa, 1995ekoa, garatzeko hartutako era-

bakia oinarritzat harturik, eta behar dituen baliabide ekonomikoak ematea, plan honetan adierazten den kopuruan.

Horrez gain, lehen aipatutako Lan Osasuneko Batzordearen esparruan lan talde bat eratu zen drogamenpekotasunari aurrea hartzeko lan eremuan.

41. artikulua. Enpresaren egituraren prebentzioa txertatzea.

Prebentzioa enpresaren egituraren txertatuko da, modu honetan:

- Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzko Legearen inguruko aholkularitza, informazioa, kontzientziazioa, zabalpena eta dinamizazioa, laneko arriskuei aurrea hartzeko taldeen bitartez, langile, delegatu eta enpresentzako, batez ere enpresa txiki eta ertainetarako.

- Prebentzio politiken inguruko kontzientziazioa, dinamizazioa eta diseinua enpresa txiki eta ertainetan.

42. artikulua. Enpresetan arriskuak gutxitzea sustatzea

Enpresaburua inplikatzeko, parte har dezaten haren enpresan istripuei aurrea hartzeko zereginen, eta prebentzioaren diseinua bere baliabideekin taxutzea, enpresetako prebentzio kulturaz jabeazten lagun dezaketen elementuak dira.

Horretarako, neurri hauen alde egiten dugu:

- Enpresetako langileak gaitzea, prebentzio zerbitzuen Erregelamenduaren VI. Kapituluari jarraikiz, kasuan kasuko eginkizunetan aritzeko, haien prestakuntzaren bitartez edo lan osasuneko prestakuntza zentroarekin hitzarmenak eginez.

- Enpresa txiki eta ertainetako lantaldeak egokitzeko inbertsioei laguntzea.

- Laneko arriskuen, prebentzio neurrien eta, oro har, Nafarroako lan osasunaren inguruko informazio orokorra, ikerketa, dokumentazioaren prestaketa, gida tekniko eta proiektuenak, zabal-kundea eta sensibilizazio lanak.

- Laneko arriskuen prebentzioaren kudeaketan kalitatea sustatzea.

- Nafarroako Lan Osasuneko Institutuaren esku uztea laneko ergonomiaren aferari heltzeko bideragarritasun azterlana, Nafarroan dauden zentro teknologikoekin batera ahal bada.

43. artikulua. Kontrolak areagotzea istripu kopuru handiena duten sektoreetan

Eraikuntzaren sektorean prebentzioko legeak aldatzea beharrezkoa izan litekeela baztertu gabe, egungoak eragiten dituen azaroak direla-eta, sektore horretan eta istripuak gertatzeko arrisku handia duten beste batzuetan egin beharrekoak kontrolak areagotzera jo beharko luke, babes tresna nagusiak betetzen direla bermatzeko.

Bestalde, ezin da ahaztu administrazio publikoak direla obra sustatzaile handienak eta, beraz, behar diren moduak ezar daitezkeela administrazio kontrataziotik bertatik.

Hauexek dira bete beharreko ekintzak:

– Lanak areagotzea laneko arriskuen prebentzioaren arloko aholkularitza teknikoan, zaintzan, ikuskatzailetzan, eta lan arloko agintaritzan, jomuga-programaz eta ikuskatzeari dagozkion programez baliatuz.

– Administrazio publikoek sustaturiko obretarako laneko segurtasun eta osasunaren eta laneko arriskuen prebentzioaren arloko kontrol eta jarraipen batzordea sortzea, administrazio publikoen ordezkariak eta ordezkariak handiena duten eragile ekonomiko eta sozialak kide dituela, eta jarduteko behar dituen funtsak ematea.

Batzorde honek proposamenak eginen ditu Kontratuei buruzko Foru Legea aldatzeko azpikontratazio prozesuetan istripuen kopurua jaiste aldera.

44. artikulua.

LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Prestakuntza zentroa (Euroak, milakotan)	210,35	216,36	222,37	649,09
Prebentzioaren dinamizazioa (Euroak, milakotan)	709,19	727,22	745,26	2.181,67
Inbertsioak prebentzian (Euroak, milakotan)	703,18	703,18	703,18	2.109,55
Ikerketa, dokumentazioa prestatzea, sentsibilizazioa (INSL) (Euroak, milakotan)	751,27	751,27	751,27	2.253,80
Nafarroako Foru Komunitateko laneko arriskuen prebentziorako delegatua (Euroak, milakotan)	180,30	184,82	189,92	555,04
Lan publikoen kontroleko batzordea (Euroak, milakotan)	54,09	55,894	57,096	167,08
Zenbatekoa (Euroak, milakotan).	2.608,39	2.638,744	2.669,095	7.916,232
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	434,00	439,05	444,10	1.317,15

II. TITULUA Emakumea eta enplegua

I. KAPITULUA Aukera berdintasuna

45. artikulua. Xede nagusia da emakumeen eta gizonen arteko aukera berdintasuna sustatzea lan munduan. Horretarako beharrezkoa da eraginkortasunez eta modu integrarean erraztu eta laguntzea emakumeak lan merkatuan sartu eta bertan irautea berdintasun baldintzetan gizonen aldean, bereizkeria mota guztiak ezabaturik.

II. KAPITULUA Emakumeen enpleguaren sustapena

46. artikulua. 2004. urtea amaituta, emakumezko langileen kopurua Nafarroan % 55 ingurukoa izan behar da eta langabetuena % 5,8koa.

47. artikulua. Emakume langabetuen kopurua jaitea eta lanpostu egonkorak sustatzea, hauxen bidez:

Prestakuntzako neurriak: emakumeen lanbide heziketa anitzagoa izatea lortzea, lan merkatuaren behar errealekara moldatzeko.

Prestakuntzaren arloko jarduketak bi motakoak izanen dira. Hasteko, emakumearen prestakuntza

anitzagoa izatea eta, bigarrenez, prestakuntza osatzea.

Lehendabiziko alderdiaz esan behar da emakumeak ikasketak aukeratu baino lehen jardun behar dela, emakumezko ikasleentzako orientazio prozesuei ekintza positiboak erantsiz, lanbide heziketa, bai arautu bai arautu gabea, duintasunez jantzi, eta bultzatuz emakumeak sartzea bai gizonezkoenak izan ohi diren lanbideetan, emakume gutxiren presentziarekin eta lanbide aukera onekin, bai enplegu aukera berrietan, familiak, enpresak eta langileak sentsibilizatuz.

Bigarrenez, laguntza eman behar zaie lan merkatuan sartu nahi duten emakumeei, prestakuntza izan ala ez izan, baina hura ikasketen bidez eskuratu nahi ez dutenean. Egun eskaera handia dago zenbait sektoretan, hala nola, birziklapenean, energia berriztagarrietan eta teknologia berrietan, eta horietan prestakuntza ikastaroak emanen dira, hasierako prestakuntza duten emakumeentzat bereziak, bereziki 25etik 34 urtera bitartekoentzat; halaber, enplegu lantegiak eratuko dira prestakuntzarik gabeko emakumeentzat edo gutxienekoa dutenentzat, batez ere 45 urtetik gorakoak, kualifikaziorik gabeko lanpostuetan edo lanerako aukera gutxi dutenetan.

Emakume guztientzat, batez ere emakume gutxi diren lanen kasuan, lana emateko konpromisoa daraman prestakuntza sustatuko da.

Neurri ekonomikoak: Nafarroako Foru Komunitatean dirulaguntzak ezarriko dira langabezia tasa jaisteko, emakumezkoen ordezkartza txikian islatzen den lan bereizkeria ezabatzeko eta emakumezkoen lanpostuen behin behinekotasun gehiegizkoa ere desagerrarazteko. Dirulaguntzak ezartzerakoan egokia litzateke bereiztea adin taldeak eta jarduera sektoreak edo adarrak.

Ekintza positiboko neurriak: Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren Behatokiak, Enplegu eta Emakumearen Batzordearekin lankidetzan, ekintza positiboko neurrien ezarpena baloratu behar du, emakumeen kontrako lan bereizkeria, hura deuseztatu eta sexuen arteko aukera berdintasuna erabatekoa lortzeko egiten diren ahaleginekin ere bizirik dirauena, desagerrarazteko xedeaz. Jarduketan eremuak prestakuntzarena eta lan merkatuan sartzearena izanen dira.

Prestakuntzari dagokionez, emakumeentzako ikastaro berariazkoak ezarriko dira emakumeek ordezkartza txikia izan eta enplegu aukerak dituzten sektoreetan. Horretarako, kontuan hartuko

dira emakume bakoitzaren instrukzio mailak, lanan dagoen ala ez, edo birziklatzeko asmorik al duen, bolada batean lan merkatutik kanpo egon ondoren. Komenigarria da ikastaro horiekin batera lana emateko konpromisoa dakarten praktikak izatea enpresetan, diruz lagunduta.

Lanbide heziketa, emakumeak egun haien presentzia urria baina lan aukera argiak eta proiektzio profesionala dituzten lanetan sar daitezzen zuzendua, bi aldetatik ulertu behar da: lan prestakuntza edo etengabea, baina berariazkoa bakoitzean, zein emakume talderentzat den haren ezaugarrien arabera.

a) Emakumezko langabetuak. Lan prestakuntza jaso dezaketen emakumeen taldean beste lau talde bereiziko dira, baina horietako bakoitza ere berriz banatu daiteke faktore zehatzagoen arabera.

Nolanahi ere, talde guztietan emanen dira autoestima, lana bilatzeko teknika eta hautaketa prozesu bati aurre egiteko teknikei buruzko ikastaroak.

- Langabezia aspalditik dauden emakumeak, ikastaro komun horien premia handiago dutenak besteek baino, lanbide batean aritzeko gaitasuna emateko beste batzuk gehituta.

- Orain arte etxeko lanetan soilik aritu diren emakumeak, lan merkatuan sartu nahi dutenak, gaintu beharreko gabezia komun batzuk dituztenak: ofimatikako oinarriko ezagutza, izan ditzaizketen hasierako lan ezagupenak gaurkotzea, etab.

- Emakumezko gazteak; aurrekoak baino prestakuntza maila handiagokoak, lehen lanpostuaren bila. Talde honentzat aukerarik onena da prestakuntza praktikoa bete ahal izatea enpresetan, ondoren enpresetan jarraitzea aurreikusiko duten akordioen bitartez.

- Familiako karga banatu gabeak dituzten emakumeak. Gehienetan, kualifikazio txikia dutenak, baliabide ekonomiko eskasak eta familia eta lan mundua bateragarri egiteko arazoak. Prestakuntza neurriak eta sostengu sozialekoak prestakuntza dira, prestakuntza ikastaroak, lantegi eskolak edo enplegu lantegiak eskuratzeko lehentasuna emanez, haurtzaindegi zerbitzuak emanez, etab.

Emakumeentzako lan prestakuntzarako eta orientaziorako erabilgarri diren baliabideak hauek dira:

LAN PRESTAKUNTZA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Lan prestakuntza arrunta (Euroak, milakotan)	4.146,980	4.146,980	4.146,980	12.440,950
Teknologia berriak (Euroak, milakotan)	381,640	381,640	381,640	1.144,930
Emakume kualifikatuak (Euroak, milakotan)	360,280	360,280	360,280	1.080,830
Emakumeak (3 helburua) (Euroak, milakotan)	240,400	240,400	240,400	721,210
Aspalditik langabezian dauden emakumeak (Euroak, milakotan)	156,260	156,260	156,260	468,790
Lana emateko konpromisoa (Euroak, milakotan)	192,320	192,320	192,320	576,970
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	5.477,890	5.477,890	5.477,890	16.433,680
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	911,445	911,445	911,445	2.734,335

ORIENTAZIOA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	955,61	979,65	1.004,29	2.939,55
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	159,00	163,00	167,10	489,10

LANTEGI ESKOLAK-LANTEGIAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	1.066,80	1.066,80	1.066,80	3.200,39
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	177,50	177,50	177,50	532,50

b) Lana duten eta beraz, prestakuntza etengabea jasotzeko aukera duten emakumeei dagokienez, berriz, bi talde bereizi beharko dira prestakuntza mailan oinarriturik. Emakume gazteek hezkuntza maila handiagoa dute, oro har, emakumezko langile zaharragoen aldean, azken horiek prestakuntza arautuaren maila baxua baina lanbide esperientzia handiagoa baitute. Horiek neurriak behar dituzte haientzako taxuturiko prestakuntza etengabeko ekintzetan parte hartzera bultzatzeko, lanbide sustapena eta birziklapena eskura dezaten, askotan teknologia berriek anto-

laketan eta ekoizpenean ekarri dituzten aldaketara nahitaez egokitu beharrak hala eskatzen dielako.

Ikastaroen ordutegi egokiak eta enpresak bertara joateko malgutasuna emateak lagundu dezakete emakume guztiak prestakuntza eskura dezaten familiarekin bateragarria bada.

Langileen sexuen arabera banaketatik abiatu, sektore pribaturako kapitulurik zenbateko hauek erabiliko dira, gutxi gorabehera:

PRESTAKUNTZA ETENGABEA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	1.923,24	1.923,24	1.923,24	5.769,72
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	320,00	320,00	320,00	960,00

Praktikak egiteko emakumezko gazte tituludunak kontratatzeko laguntzak:

TITULUDUNAK PRAKTIKETARAKO KONTRATATZEA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	935,330	935,330	935,330	2.805,980
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	155,625	155,625	155,625	466,875

48. artikulua. Emakumeen enplegu autonomia eta enpresak sortzea bultzatzea.

Emakumeen kontratazioa sustatzearekin batera, emakumezko langileen kopurua handitzeko beste jarduketa esparru bat emakumeen lan autonomia eta enpresak sortzea. Kontuan hartu behar da, gainera, emakume gehienek soldatapeko lana aukeratzen dutela.

Autoenplegua eta enplegu sorguneetan enpresa berriak sortzea bultzatu beharko da, batez ere teknologia berriekin eta ingurumenarekin zerikusia duten lanpostuak, industrian eta eraikuntzan emakumeen presentzia oso txikia dela ahaztu gabe.

Prestakuntzari dagokionez, ekintzaileentzako ikastaro berariazkoak eman beharko dira, negozio bat sortu eta zuzentzeari buruzko alderdi guztiak harturik: juridikoak, finantzakoak, enpresaren kudeaketakoak eta giza baliabideenak.

AUTOENPLEGUA ETA ENPRESAK SORTZEA SUSTATZEA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Autoenplegurako informazioa eta prestakuntza (Euroak, milakotan)	675,48	625,05	625,05	1.925,58
Autoenplegurako dirulaguntzak (Euroak, milakotan)	661,11	661,11	661,11	1.983,34
Ekonomia sozialerako dirulaguntzak (Euroak, milakotan)	438,74	438,74	438,74	1.316,22
Enplegu sorgune berriak (Euroak, milakotan)	402,68	402,68	402,68	1.208,03
Asmo berritzaileak (Euroak, milakotan)	175,50	117,20	117,20	409,89
Enpresak sortzeko laguntza (Euroak, milakotan)	150,25	150,25	150,25	450,76
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	2.503,76	2.395,03	2.395,03	7.293,82
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	416,59	398,50	398,50	1.213,59

Neurri ekonomikoen aldetik, emakumeen autoenplegurako edo enpresak sortzeko dirulaguntzak, interes txikiko maileguak, abalik gabeko mikrokredituak edo zerga pizgarriak ezarriko dira. Laguntza horiek gehitu ahalko dira kontuan harturik jardunean ez dauden eta langabezia dauden emakumeen ezaugarriak. Halatan, honelako fak-

toreak hartuko dira aintzat: adina, langabeziaren luzapena, familia kargak, prestakuntza maila, sektore ekonomikoa hurbiltasuneko zerbitzu pertsonal gisa, batik bat toki korporazioekin lankidetzan sustatzen badira, eta jarduteko aurreikusirik duten eremu geografikoa.

BERRIKUNTZA ETA ENPLEGUKO PROIEKTUAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	390,66	390,66	390,66	1.171,97
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	65,00	65,00	65,00	195,00

Bestelako pizgarriak ere sartu ahal dira, hala nola, garraiolariaren agiria eskuratzea, ibilgailuak, bulegorako behar den materiala, ordenagailuak, etab. erostea.

Aholkularitza eta informazioaren ikuspuntutik, egokia da dauden baliabideak sendotzea emaku-

mezko enpresaburuen eta autonomoen zalantzei erantzuna emateko, ez enpresa sortzerakoan bakarrik, baita jardueran zehar ere. Enplegu plan honetan, autoenpleguaren bidez enplegua sustatzeari buruzko kapitulua, zehaztu eta osatu egin dira neurri horiek.

AHOLKULARITZA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	240,40	240,40	240,40	721,21
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	40,00	40,00	40,00	120,00

III. KAPITULUA

Emakumeen kontrako lan diskriminazioa ezabatzea

49. artikulua. Atal honen xedea da neurriak ezartzea emakumeek lan harremanak indarra duen bitartean jasaten duten diskriminazioa ezabatzeke.

Emakumeek diskriminazioa jasaten dute lan-sarrietan, batez ere lan esparru pribatuan, askotan lanbide segregazioaren ondorioz; hortaz, ezinbestekoa dirudi enplegu plan honetan neurriak hartzeak lansari diskriminazio hori desagertzen laguntzeko.

Bestalde, lan merkatuan egonaldi laburragoak izaten dituzte, familia eta lan munduan bateragarria egiteko ahaleginean familiako ardurak, gehien bat, haiek hartzen dituztelako bere gain eta,

horregatik, ez dituzte askotan izaten gizonetzkoen aukera berdinak lanaldia betetzeko eta promoziorako bideak ere mugatzen zaizkie.

Atal honetan Nafarroako Foru Komunitateak arlo honetan berezko dituen lan agintaritzako eskumenak beteko ditu, Ikuskaritzako urteko planean sartuz.

Horrez gain, lan negoziazioaren bitartez laneo diskriminazioa zuzentzeko neurriak ezarri daitezke.

Lan hitzarmenak negoziatzen dituztenentzako aukera berdintasunaren arloko prestakuntza ikastaroak abiarazi behar dira. Era berean, eragile ekonomiko eta sozialek sentsibilizazio kanpainak abiaraziko dituzte bere egiturak emakumezko langileek jasaten duten diskriminazioaz jabearazteko xedeaz.

AUKERA BERDINTASUNA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	156,26	160,47	165,28	482,01
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	26,00	26,70	27,50	80,20

Lan prestakuntza eta etengabeko prestakuntza ikastaro guztietan diskriminazio ezari buruzko moduluak izanen dira.

Azkenik, dirulaguntzak ezarriko dira aukera berdintasunaren gaineko politikak gauzatzen dituzten enpresentzako. Horretarako diru hau erabiliko da:

BERDINTASUN POLITIKAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	324,55	324,55	324,55	973,64
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	54,00	54,00	54,00	162,00

IV. KAPITULUA

Familia eta lan mundua bateragarri egitea

50. artikulua. Familia eta lan mundua bateragarri egiteko premiak berebiziko garrantzia hartu du lan harremanen egungo erregulazioan, eta aukera berdintasun erabatekoa bermatu beharra dago. Hori dela eta, familiako ardurako dituzten emakumeek tratamendu berezia beharko dute enplegu plan honetan.

51. artikulua. Neurri ekonomiko gisa familiako ardurak dituzten langileak, emakumezkoak zein gizonetzkoak, edo familiaren inguruko arrazoiengatik lanik egin gabe egon ondoren lan merkatuan

berriz sartu nahi dutenak kontratatzeke dirulaguntzak emanen dira.

Kontuan harturik emakumeek, gizarte egoera dela-eta, maizago eskatu edo onartzen dituztela lanaldi partzialeko lanpostuak, dirulaguntzak eman beharko dira, halaber, lanaldi partzialeko kontratu egonkorak edo lanaldia murriztekoak egiteko hala eskatzen duten langileei, familiako kideak zaintzea delarik horretarako arrazoia eta familia mendekotasuneko egoera horiek dirauten bitartean. Egoera horietan dauden langileek edozein unetan itzuli ahalko dira lehengo egoerara, hala nahi badu, indarra duten legeek ezarri bezala.

FAMILIA ETA LANA BATERAGARRI EGITEA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	570,96	631,06	691,16	1.893,19
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	95,00	105,00	115,00	315,00

Lanaldiaren murrizketak indarra duen bitartean, lanaldiaren zati batean titularren ordezko aritzen diren emakumeei bitarteko kontratuak egitea sustatuko da.

52. artikulua. Prestakuntzaren atalean, familiar kasu egiteko lanari utzi ondoren lan merka-

tuan berriz sartu nahi duten emakumeak ikastaro berariazkoak hartuz birziklatuko dira.

53. artikulua. Haurtzaindegien sistema bultzatuko da, familia eta lan mundua bateragarri egiten lagungarri izateaz gain lanpostu iturri direlako.

HURBILTASUNEN ZERBITZUETAN LAGUNTZA EMATEKO NEURRIAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	300,51	300,51	300,51	901,52
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	50,00	50,00	50,00	150,00

54. artikulua. Lan negoziazioak eginkizun aktiboagoa bete beharko luke langile hauen lan baldintzen erregulazioan familia eta lan mundua bateragarri egiten laguntzeko.

Horrez gain, Estatuari eskatu behar zaio Langileen Estatutuaren erregulazioa osatu eta hobetu

dezan gai hauetan: seme-alabak eta familiako kideak zaintzeko eszedentzia, lanaldiaren murrizketa eta edoskitzaroa, etxeko langileak.

55. artikulua. Emakumeentzako erabiliko diren diru baliabideak hauexek dira:

EMAKUMEAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
PRESTAKUNTZA				
Lan prestakuntza (Euroak, milakotan)	5.477,89	5.477,89	5.477,89	16.433,68
Etengabeko prestakuntza (Euroak, milakotan)	1.923,24	1.923,24	1.923,24	5.769,72
Programa mistoak (Euroak, milakotan)	1.066,80	1.066,80	1.066,80	3.200,39
Banakako orientazioa (Euroak, milakotan)	955,61	979,65	1.004,29	2.939,55
ENPLEGUAREN SUSTAPENA				
Gazteak praktiketarako kontratatzea (Euroak, milakotan)	935,33	935,33	935,33	2.805,98
Autoenpleguaren sustapena (Euroak, milakotan)	3.134,82	3.026,09	3.026,09	9.187,00
Aukera berdintasuna (Euroak, milakotan)	480,81	485,02	489,82	1.455,65
Familia eta lan bizitza bateragarri egitea (Euroak, milakotan)	570,96	631,06	691,16	1.893,19
Hurbiltasuneko zerbitzuetarako laguntza (Euroak, milakotan)	300,51	300,51	300,51	901,52
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	14.845,96	14.825,59	14.915,14	44.586,68
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	2.470,16	2.466,77	2.481,67	7.418,60

III. TITULUA Gizatalde behartsuak

56. artikulua. Gizarteko baztertuak

Agiri honetan aintzat hartzeko moduko gizarteratze jarduketetako asko Nafarroan gizarte bazterkeriaren kontrakoa planean daude adierazita.

Gizarte bazterkerian daudenak laneratzeko laguntzeko aurreikusiriko neurri nagusien artean gizarteratu eta laneratzeko programa hauek daude:

1. Gizarte enplegu babestua: udalei edo gizarte ekimeneko entitateei laguntzak ematea herritarren intereseko proiektu irabazi asmorik gabekoak egin ditzaten, horren medioz gizarte bazterkeria pairatzen duten langileak aldi baterako kontratazen badituzte, horien lan aukerak hobetzeko xedez.

2. Enpresetan laneratzeko laguntzak; gizarte bazterkeria jasaten duten pertsonen aldi baterako edo mugagabeko lan kontratuak egiteko dirulaguntza emateko bidea da.

3. Autonomoen araubideko banakako lanpostuen proiektuak gauzatzeko laguntza. Jarduerari ekiteko laguntza ematea da xedea.

4. Gizarteratu eta laneratzeko zentron titularrak diren enpresentzako laguntza. Xedea da gizarte baztertuak eta langabezian hiru urte baino gehiago daramaten 40 urtetik gorakoak aldi baterako kontratatuzko dirulaguntzak ematea eta ordaintzea prestakuntza jarduerak, laneratzeko balizko zentron bideragarritasun azterlanak, teknikarien kontratazioa, aurrerago eta behin betikoz enpresa arrunt batean sartu edo autoenpleguan hasteko aukera.

GIZARTERATU ETA LANERATZEKO ZENTROAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	991,67	991,67	991,67	2.975,01
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	165,00	165,00	165,00	495,00

Zailtasun gehien dituzten gizataldeak laneratzeko beste neurri batzuk dira entitate publikoek edo irabazi asmorik gabeko entitate pribatuak

sustaturiko obrak eta zerbitzuak, gizartearen interes orokorrekoak, egiteko langabetuak kontratatuzko dirulaguntzak.

GIZARTEAREN INTERES OROKORREKO OBRAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	3.786,38	3.786,38	3.786,38	11.359,13
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	630,00	630,00	630,00	1.890,00

57. artikulua. Etorkinak.

Immigrazioak dakartzan arazoei aurre egiteko eta jakinik etorkinak, batez ere, lan merkatuan sartuz integratuko direla, enplegu planak lau helburu proposatzen ditu, bakoitza bere ekintzekin, Nafarroan etorkinak gizarteratzeko egun prestatzen ari den planean adierazitakoekin bat heldu direnak.

Enplegu plan honetan hartu beharreko neurriak lan baimena duten eta, alde horretatik, legezko baldintzak betetzen dituzten etorkinei zuzendutakoak izanen dira.

1. Informazioa eta orientazioa ematea eta prestakuntza ibilbideak eta lan merkatura egokitzekoak ezartzea.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eta haren zentro laguntzaileek ikerketak eginen dituzte aldiro, jakin ahal izateko zein diren eskulana behar duten ekoizpen sektoreak eta aurreikusteko etorkinen kopurua eta eman beharreko prestakuntza. Informazio ekintzak gauzatu dira, lan aukerei, Espainian langileek dituzten eskubideei eta babes sistemei buruzkoak.

Etorkinak Nafarroako gizartean sartzea sustatuko da, haien laneratzeko eta gizarteratze erabatekoaren bidez.

2. Langile horien lanbide heziketa, haien lan aukerak hobetzeko eta Nafarroako enpresen produktibitatea eta eraginkortasuna ere handitzeko.

Langileen prestakuntza ibilbideak lan prestakuntzako edo etengabeko prestakuntzako ikastaroak hartzeko aukera ere hartzen du. Prestakun-

tzaren diseinua berezia izanen da, hizkuntza arazoak eta askotan eragiten dien sasoikako langabezia kontuan hartuta.

3. Aitortu gabeko lanetan edo ezkutukoetan islatzen den lan irregulartasunaren aurka egitea eta gehiegikeriak zaindu eta galaraztea lan baldintzetan.

Lan arloko agintaritzaren ikuskatze eta zehatze ahalmenaz baliatzeaz gain, Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren lan bitartekaritza beteko du, enplegu-emaileak eta eskatzaileak elkartzen laguntzeko eta ezkutuko enplegu sektoreak desgerrarazteko.

Sasoikako langileentzat egindako programen antzekoak garatuko dira, horrek bide emanen baitu lan eskaintza arrazoizkoa izan dadin eta lehen legeak aginduta bezala egiten ez ziren kontratu asko azalera daitezten. Langile etorkinen esplotazioaren eta enplegu irregularraren aurka egiteko zabalkunde kanpainak ere eginen dira,

eta enpresaburuei azalduko zaie zein diren etorkin irregularrak onartzeak dakartzan ondorioak.

4. Pertsona horien enplegua sustatzea, haien lan baldintzak hobetzea eta haiekin jokatzeko bertako langileekin bezalaxe, maila guztietan.

Aldez aurretik behar den eskulana zehaztu eta ondoren kopurua ezartzean oinarrituriko politika bultzatuko da, Estatuko administrazio orokorrarekin koordinaturik, emigrazioaren sorburu diren herrialdeekin langileen hautaketa eta haien oinarritzako prestakuntza hitzartzeko, Nafarroara lan kontratu itxi batekin etor daitezten. Atzerritarren Legeari eta hura garatzeko erregelamenduari jarraikiz, langileei lurralde, sektore edo jarduera zehatz batera mugaturiko lanak eman ahalko zaizkie, baimena hasiera batean ematean.

Bestalde, lan baimena duten langileei aplikatu ahalko zaizkie enplegu plan honetan langile autonomoentzat ezarritako neurriak.

ETORKINAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	715,20	715,20	715,20	2.145,61
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	119,00	119,00	119,00	357,00

58. artikulua. Sasoikako langileak

Nafarroako sasoikako langileei laguntzeko planak, 2000 eta 2002. urteetan gauzatuak, erakutsi du tresna baliagarria dela nekazariei laguntzeko legezko esku lana emanaz, Nafarroako nekazaritza sektorearen hazkunde ekonomikoa normalizatzeko, sasoikako langileei lan egonkortasuna emateko eta horien lan eskubideak gordetzeko. Plan horrekin bat, hauexek dira kasu honetan planteatzen diren helburuak:

– Nekazaritzaren arloko erakundeen, gizarte eragileen eta toki entitateen arteko lankidetzak ahal den handiena izatea.

– Lan eskaintzak hobeki antzeman eta kudeatzeko aukera emanen duen egitura operatiboa garatzea.

– Sasoikako langileentzako lojamendu plan bat garatzea.

– Lan eskubide eta baldintzen kontrolean aurrera jotzea.

Horretarako, hartu beharreko neurriak hauexek izanen dira:

– Sasoikako langileei laguntzeko programei jarraipena ematea, 2000 eta 2001ean egin zen antzera.

– Nekazarien beharrak kanpainak hasi baino lehen antzeman eta langileak jatorrian aukeratu ahal izateko sistemak taxutzea. Horri esker lanpostuak esleitu ahalko dira aldez aurretik, eta sasoikako langileak banaka bidaiatu ahalko dira.

– Nekazarien prestakuntza eta informaziorako plan bat sustatzea.

– Lojamenduak egokitu edo aterpeak sor daitezten bultzatzea.

– Etxebizitza sarea kudeatzea, sasoikako langileentzako etxebizitzak zaharberritu eta errentan ematea arautzen duten foru gobernuaren dirulaguntzen babesean.

SASOIKAKO LANGILEAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Sasoikako langileei laguntza emateko plana (Euroak, milakotan)	120,20	120,20	120,20	360,61
Hitzarmena UAGN, UGT eta CCOO sindikatuekin (Euroak, milakotan)	90,15	90,15	90,15	270,46
Etxebizitzak egokitzeko diru laguntzak (Euroak, milakotan)	180,30	180,30	180,30	540,91
Planaren koordinazioa (Euroak, milakotan)	18,03	18,03	18,03	54,09
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	408,69	408,69	408,69	1.226,06
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	68,00	68,00	68,00	204,00

59. artikulua. Ezgaituak

Enplegu plan honen lehentasunezko helburua da langile horiek lan merkatuan sartu eta bertan irautea.

Hemen planteatzen diren helburuak ez dira aurreko enplegu planekoez oso bestelakoak izanen, baina egokia da horietan sakontzea, kontuan hartuta ezgaituriko pertsonen lan munduan sartzeko bidean aurkitzen dituzten oztopoak.

Hasteko, beharrezkoa da lana dutenen kopurua handitzea talde honetan, lan falta baita jasaten duten arazo nagusia. Horretarako, haien partaidetza gehituko da enplegu tasa altua duten sektoreetan, eta haien lan aukerak hobetuko dira, nola-eta ezgaituen lan prestakuntza eta prestakuntza etengabea osatuz eta langile hauen kontratazioa sustatuz. Horrez gain, pertsona hauen artean araubide autonomoko enplegua sortzearen alde eginen da, ekintzarako gogoak indartuz.

Bigarren helburua izanen da pertsona huentzat egokiak diren lanpostuak sortzen laguntzeko ahaleginak egitea.

Hirugarrena, aurreko neurrien osagarri, lanpostuak enpresen barrenean egokitzea bultzatzea, eta horretarako dauden arauak eta laguntzak ezagutaraztea.

1. Lana dutenen tasaz, berriz

A) Besteren kontura, eta eskaintzari dagokionez, langile horiek prestakuntza egokia bereganatu ahalko dute ikastaro berariazkoen bitartez edo prestakuntza ikastaro orokorretan toki ehuneko zehatz bat gordez haientzat. Kasuren batean enplegu lantegi egokiak sortuko dira.

Nafarroako Enplegu Zerbitzuko bitartekaritza, prestakuntza eta enpleguaren sustapeneko baliabideak erabiltzea bultzatuko da. Zerbitzua arduratuko da batez ere bere datu basea moldatzeaz

langile hauetara, bitartekaritza eta enplegu bilaketa hobetzeko.

Eskaeraren inguruan, neurriak ekonomikoa eta juridikoak izan daitezke.

Eskaeran eragina duten neurri ekonomikoen arloan, berriz, dirulaguntzak eta Gizarte Segurantzaren kuota hobariak erabiliko dira.

Beharrezkotzat jotzen da aztertzea gizatalde honetzako lanaldi partzialeko lanpostu mugagabea sustatzeko aukera edo lana berrantolatzekoa, lanaldi malguen bitartez, betiere langileak hala nahi badu, neurri horrek lagundu dezakeelako ezgaitasuna duten langileek lana lortzen eta horri eusten, lanaldi osoko lanpostu batean aritzeko zailtasun handiagoak topatu ahal dituztelako.

Ezgaitasuna duten langileentzako erreserba kuota, % 2koa 50 langile edo gehiagoko enpresetan eta % 3koa administrazio publikoetan, betetzen dela zaindu eta ikuskatzeko programazio bat ezarriko da. Enpresak legean aurreikusitako neurri alternatiboak aukeratuz gero, Lan Ikuskaritzaren aginduzko txostena eskatu eta enpresa batzordearen iritzia galdetuko da.

Lana dutenen kopurua handitzeko helburu horren barrenean, garrantzizkoa da sexuaren aldaera ere kontuan hartzea eta ezgaitasuna duten emakumeen kontratazioa sustatzea, desberdintasunak badirelako gizonezkoen kontratazioaren aldean.

B) Norbere konturako langileen esparruan, ezgaituek enpresak sortzea sustatuko da, bereziki enplegu sorgune berrietan.

Inbertsiorako eta finantza dirulaguntzei buruzko zabalkunde eta informazio jarduerak gauzatu-ko dira.

Komenigarria da, halaber, enpresak sortu edo sortzen dituztenentzako aholkularitza eta informazio zerbitzuak sortzea.

2. Enpleguko zentro bereziak; langile horientzat lanpostu berariazkoak sortzeko.

3. Enpresetako lanpostu arruntak sustatzea, horiei dirulaguntzak emanez.

4. Langileen eta enpresen egokitze ahalmena

indartu behar da enpleguan erabateko aukera berdintasuna erdiesteko. Dirulaguntzak, lanpostuak egokitzeko, enpresetan oztopo arkitektonikoak ezabatzeko edo norberaren babeserako bitartekoak eskuratzeko edo lan ekipoak moldatzeko, lan istripurik gerta ez dadin.

ENPLEGUKO ZENTRO BEREZIAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	6.761,39	6.761,39	6.761,39	20.284,16
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	1.125,00	1.125,00	1.125,00	3.375,00
ENPLEGU SUSTAPENA ETA INBERTSIOAK	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	1.352,28	1.352,28	1.352,28	4.056,83
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	225,00	225,00	225,00	675,00
ENPLEGU SUSTAPENA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	661,11	661,11	661,11	1.983,34
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	110,00	110,00	110,00	330,00
LANPOSTUA EGOKITZEA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	180,30	180,30	180,30	540,91
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	30,00	30,00	30,00	90,00
PRESTAKUNTZA	2002	2003	2004	Hirurtekoa, guztira
Zenbatekoa (Euroak, milakotan)	180,30	180,30	180,30	540,91
Zenbatekoa (Pezetak, miloitan)	30,00	30,00	30,00	90,00

Xedapen gehigarria

Nafarroako 2002, 2003 eta 2004ko aurrekontu orokorretarako proiektuetan Nafarroako Gobernuak foru lege honek dakartzan konpromisoak betetzeko behar diren kontusailak sartuko ditu.

Xedapen iragankorra

Foru lege hau onartzetik 2002ko aurrekontu ekitaldirako heldu diren konpromisoak betetzeko,

Nafarroako Gobernuak foru lege honek indarra hartu eta hilabeteko epean igorriko du Nafarroako Parlamentura kreditu bereziari buruzko lege proiektua, horrek onets dezan.

Azken xedapena

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

HARPIDETZAREN PREZIOA ALDIZKARI OFIZIALA ETA BILKURA EGUNKARIA	IDAZLARITZA ETA ADMINISTRAZIOA NAFARROAKO PARLAMENTUA «Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofiziala» Arrieta 12, 3 31002 IRUÑA
Urte bat..... 39,07 euro	
Aldizkari Ofizialaren aleko prezioa..... 0,96 »	
Bilkura Egunkariaren aleko prezioa..... 1,14 »	